

UNAMUNO, “VÖLKERPSYCHOLOGIE”

“Si hay un espíritu fuerte, señores, es el espíritu de la raza, sangre de nuestra sangre, jugo de nuestro jugo”, aldarrikatzen du Unamuno-k. Izpiritu germaniarra holako, latinoan halako, jeinu frantsesa, izpiritu ingelesa, bereizten ditu¹⁶³. Batez ere Unamuno-ren izkribuetan etengabeko gaia arima espainola da (hizkuntzan, paisaian, intrahistorian, pertsonaia nazional printzipaletan).

Zer da Unamuno-rentzat herriaren edo arrazaren arima hori? Haren Volksgeistak ere (berak asmatuiko mitologiaren despit, Unamuno hegeldarrarena) Herrien Psikologiatik ematen du eratorria, edo hobeto, haren deribazioen deribazio edo garapen paralelo frantses eta ingeles bazuetatik deribatua, inoiz ez gauza oso garbia. Tesi dokoralean (1884, “Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca”)¹⁶⁴, ez Volksgeist eta ez Herrien Psikologiaren inolako berri duenik ageri da. Aldiz, “Espíritu de la raza vasca” konferentzian (1887) ikusten da badituela honezkero zantzuren batzuk, baina, aski dokumentatuarena egin gura badu ere, eskaintzen dituen bai ideiak eta bai nahaspilatzen duen “herriaren psikologoen” zerrenda, zorabiagarri samarrak dira. Hasteko, hieroglifo hau: “En las grandes conmociones los arroyos se absorben en el mar; los individuos, en la masa; cada hombre es un número, y del choque y concurso de las almas brota el alma del pueblo, encarnadura de la nuestra, masa de nuestro espíritu. Los hombres piensan, sienten y obran juntos de muy distinto modo que aislados. – Y es porque el espíritu, como la tierra, está formado de muy distintas capas, más uniformes en todas las primarias, más heterogéneas en las últimas. En el último fondo de nuestra alma duerme el animal, que a veces despierta y nos da las horas más

163 UNAMUNO, M. , OC, IV, 155 (“Espíritu de la raza vasca: conferencia dada por M. de U. en la Sociedad «El Sitio» de Bilbao, el día 3 de enero de 1887”).

164 Ib., 87-119.

dulces y las más borrascosas de la vida; sobre él, el hombre primitivo y salvaje que se nutrió a los pechos de una desabrida madrastra, la naturaleza; sobre éste, el espíritu de la raza; sobre la raza, la tribu; sobre la tribu, la familia, y sobre la familia, el tan cacareado yo, lo más superficial y vano, sombra de sombra levísima, que se cree árbitro y es juguete y resultado del animal, del salvaje, de la raza, de la tribu y de la familia”¹⁶⁵. Ohar interesgarriak, zalantza barik, baina zerikusi gabekoak, are inkoherenteak: hasierako zatian Unamuno-k psiko-soziologoren bati segitzen dio (Lazarus?, Wundt? – “alma del pueblo” hori ni indibidualek beren harremanketa sozialetan sortarazten dute: beraz, gizartearen azal-azalgaineko aparra da, logikoki bera da “sombra de sombra”); azkeneko atalean Haeckel-en tankerako biologistaren bati (eta “espíritu de la raza” hori gizakiaren barnezola sakoneneko azpigeruza da). “Psikologoei” buruz, larderiatsu bai, ez dihardu argitsuago: “Mal que pese a quien pesare [?], yo creo poder declarar que la psicología como ciencia data de este siglo. Las ciencias naturales [Hegel-en edo konturik ez], absorbiéndola, la han hecho progresar. *De hoy* son [ene azpim.] la psicología del niño, la del loco, la del criminal (...), la de los pueblos. – Ese espíritu colectivo de que os hablaba es lo que llaman los psicólogos alemanes con vocablo expresivo e intraducible *Allgeist* [Volkgeist baino besterik izan behar du horrek nahitaez, jarraiko hitzetan ere nabarmen dagoenez!], el espíritu total, que recuerda en cierto modo la razón impersonal, la misma en todos, del filósofo árabe-cordobés Averroes, renovada por Cousin y el panteísmo, y que no es otra cosa más que nuestro sentido común. Waitz, Stheintal (sic) y Lazarus inauguran en Alemania la psicología de los pueblos; en Inglaterra tenemos preciosos datos sobre la de los pueblos salvajes, debidos en su mayor parte a los trabajos eruditos y sagaces de sir John Lubbock y Tylor. En Francia siguen la corriente Gobineau, Clemencia Royer, Taine y otros”¹⁶⁶. Katalogo honekin gauza seguru bakarra da, Unamuno-k Herrien Psikologia deitzen duena, ezer ulertzekotan, zentzu oso zabalean ulertu behar dela: historia sozialetik antropologia eta arrazen teoriara, eta psikologia edo soziologiatik literaturaren historia-raino, dena zaku bat. (Dilthey-ren “izpirituaren zientzia” guztiak, hor nonbait; gehi bai Wundt-ek eta bai Caro Baroja-k arbuaiatu duten Herri Psikologia bulgareena barne). Don Miguel-ek kanpaiak entzun ditu, ez daki nongoak, baina dakielakoa egiten du eszenategian. Idazten du Unamuno-k euskal arrazaren izpirituaren konferentzian, foruez diharduela: “siempre la costumbre ha precedido y determinado a la ley, menos hoy, que en vez de sacar las leyes del espíritu del pueblo,

165 Ib., 154 (“Espíritu de la raza vasca”).

166 Ib., 154-155.

las sacan del espíritu de los libros”¹⁶⁷. Aipu bat ematen du, hots, aipu bat da. Hala ere alferrik bilatuko duzu Zuzenbidearen Eskola Historikoa edo Savigny-ren izena. Izendatua, bai, J. Costa dago: “merecía el señor Costa ser pagado por el Gobierno para estudiar oficialmente un país”¹⁶⁸.

1889ko Humboldt-en itzulpenari hitzaurrean aski erakusten du, ez zeukala aditzera urrun bat baino Herrien Psikologiarena, hau eta Humboldt nolabait asoziatzean: “Hay notas [Humboldt-en bidai notetan] de psicología comparada (el parangón entre el vasco y el catalán, por ejemplo, curiosísimas y a que son tan inclinados los alemanes, fundadores de la que llaman *Völkerpsychologie*, psicología de los pueblos”¹⁶⁹. Urte horretan bertan “Cómo se escribe y para qué se escribe la historia” publikatu du (bi partetan partitua) *El Porvenir Vascongado*-n. Herodoto-rekin hasi eta, historiako maisuak errepasatzen ditu, Ernazimentutik, eskola historiko alemanetik paseaz (Mommsen), aurrerabide guztiaren erremate modura aipatzeko “este nuevo y fecundo modo de considerar la *ciencia histórica* [Unamuno-ren azpim.] que apuntó en Buckle y empieza a fructificar en Enrique Taine”¹⁷⁰. Unamuno-rentzat historia zientzia izatera Taine-rekin heldu da hortaz. Duda handirik ez du uzten, berak historia zientifikoarekin ulertzen duena Taine dela. Zientifikotasunarena erremarkatzen du: “Cuando se trata de estudiar la vida de un pueblo, hay que conocer científicamente el teatro de los sucesos, el país, el clima, su influencia en la raza, luego ésta, que es el actor, su constitución física y espiritual, su temperamento, su carácter; el medio además (...). – Aquí [Bizkaian] el mar y la montaña, el temperamento dominante en la raza, su educación, su modo de entender la religión y la vida, su literatura genuina y propia; todo esto es el obligatorio bagage de elementos para reconstituir la síntesis. – Pero para formarse cabal idea en este punto basta recorrer los primeros y admirables capítulos de la Historia de la literatura inglesa de Enrique Taine. Allí, con la solidez de un pensamiento fuerte, nutrido de ciencia psicológica y sociológica, con la forma de un estilista de nervio y sin hojarasca, se siente un clima, sube de las páginas la niebla fría de Inglaterra, se ve vivir una raza y del menudo de los hechos brotar un

167 UNAMUNO, M., *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, Madril 1974, 77.

168 Ib., 66.

169 UNAMUNO, M. de, OC, IV, 188 (“Prólogo a G. de Humboldt. «Bocetos de viaje a través del país Vasco»”, 1889). Jarrai daiteke irakurtzen: “Bien comprendo que toda comparación es odiosa y acaso lo serán para alguien las que Humboldt establece entre vascongados y castellanos, pero téngase en cuenta que fueron hechas por un extranjero, igualmente fuera de una como de otra raza”.

170 NÚÑEZ, D. – RIBAS, P. (arg.), *Unamuno y el socialismo. Artículos recuperados (1886-1928)*, Granada 1997, 83.

pueblo que palpita en las páginas muertas. – Es un estudio hermoso de lo que llaman en Alemania *Völkerpsychologie*, psicología de los pueblos¹⁷¹. Erakundeetan “toda el alma de un pueblo” bizi da¹⁷²: “los sucesos históricos son síntomas de un carácter colectivo y la razón de vivir bajo tal régimen no se halla precisamente en hechos pasados, sino en el carácter del pueblo y su modo de ser que aquellos hechos ponen de manifiesto”¹⁷³. Unamuno-rentzat historia ikusteko molde hau (nahiz esaldi batzuetan Hegel-en oihartzuna sumatzen dela pentsa litekeen) berri-berria da eta, batez ere, zientzia positiboa da. Seinale ez duela Herder edo Hegel-engan pentsatzen. “En España son pocos aún [1889] los que empiezan a entrar en la corriente y a comprender que querer historiar sin una fuerte preparación en ciencias antropológicas, es querer saber bien física sin haber estudiado matemáticas. – Me concreto a Vizcaya. Aquí aún no se ha estudiado bien la influencia del clima y el terruño de raza, su temperamento dominante, su carácter, su modo de ver las cosas impreso en su literatura, en sus costumbres y en su idioma”¹⁷⁴. Historia zientifikoaren interesaren alde Unamuno-k 1889an ematen duen arrazoi bat gutxienez gogoangarria da (haren eboluzio politikoari jaramon eginez): “Hasta hoy ha dominado en la historia [gertakarietan, ez zientzian] el movimiento de formación de las nacionalidades; hoy empieza la lucha entre el centralismo más o menos duro y el regionalismo en sus distintos grados, que son muchos. Este movimiento nuevo no puede tener acelerador y resolutor más seguro ni puede hallar razones más sólidas, que las que dé un estudio serio de la historia tal como hoy se hace; no historia de literato, ni de erudito, ni de filósofo apriorístico, sino historia positiva y científica, psicología y sociología de pueblo”¹⁷⁵.

1891ko maiatzaren batean idazten dio P. Múgica adiskideari gutunean: “A Taine le conozco mucho; he leído su admirable «L’intelligence», he leído su «Historia del antiguo régimen» y de la revolución francesa, he leído otros muchos trabajos suyos. Es a mi juicio el primer pensador y acaso el primer escritor contemporáneo en Francia; como fuerza de pensamiento enorme, como escritor le deja chiquito a Zola. Taine es una maravilla”¹⁷⁶. *En torno al casticismo*-n (1895), prologoan Herrien Psikologiak bitartean Espainian duen oihartzun zabala konstata-

171 Ib., 84-85.

172 Ib., 86.

173 Ib., 87.

174 Ib., 85.

175 Ib., 88.

176 UNAMUNO, M. de, *Cartas inéditas* (bilketa eta hitzaurrea: S. Fernández Larraín), Santiago de Chile 1965, 141.

tzen da, Volksgeist kontzeptuaren argiketa saio berri bat edireten dugu: “Cuan-
do se afirma que en el espíritu colectivo de un pueblo, en el *Volksgeist*, hay algo más
que la suma de los caracteres comunes a los espíritus individuales que lo integran,
lo que se afirma es que viven en él de un modo o de otro los caracteres *todos* de
todos sus componentes; se afirma la existencia de un nimbo colectivo, de una hon-
dura del alma común, en que viven y obran todos los sentimientos, deseos y aspi-
raciones que no concuerdan en forma definida, que no hay pensamiento alguno
individual que no repercuta en todos los demás, aun en sus contrarios, que hay
una verdadera subconciencia popular. El espíritu colectivo, si es vivo, lo es por
inclusión de todo el contenido anímico de relación de cada uno de sus miembros”¹⁷⁷.

1896an Bizkaiko usadiozko legeaz artikulu bat idatzi du in *Revista de Legisla-
ción y Jurisprudencia* (88, 1896, 42-71)¹⁷⁸. Gaia hain da osoki Zuzenbidearen
Eskola Historikoaren espezifikoa, eta Unamuno-ren pentsamendua hain haren
segidakoa, non A. Linage Conde-k begien bistakotzat baiets baitezake ezen horrek
“suponía estar de acuerdo con la Escuela Histórica”¹⁷⁹. 1898an Unamuno-k berri-
ro idazten du, Savigny-rekin are berdinago: “¿Puede vivir sano un pueblo en que
se promulga el Código Civil, sin haber apenas tenido en cuenta sus costumbres
jurídicas, su derecho consuetudinario?”¹⁸⁰. 1902an, Valentziako Ateneoan, ideia
berak mailukatzen jarraitu du: “No es que haya de imponerse a un pueblo una
marcha que a su naturaleza repugne, sino aquella misma que, a tener plena con-
ciencia de sí mismo y de su destino, tomaría por sí [!!]. De aquí el deber de estu-
diarlo para hacer reflexión de sus instintos y poder luego convertirle en instinto
lo reflexivo”¹⁸¹. “Hay que hacer patria, asentando en la tradición de progreso;
pero en la tradición honda, en la de debajo de la historia, no en la leyenda histó-
rica que el llamado tradicionalismo ha fraguado”¹⁸². Linage Conde-k inolako
zalantzarik gabe komentatzen du: “Savigny había lanzado su manifiesto intelec-
tual contra un colega racionalista, ajeno al sentimiento de lo concreto y ancestral,

177 *En torno al casticismo* (“Sobre el marasmo actual de España”), in: OC, bol. I, 867.

178 OC, IV, 201-222 (“Derecho consuetudinario de España: I. Vizcaya”).

179 LINAGE CONDE, A. “F. Tomás y Valiente (1932-1996) en la historiografía jurídica de España”, in: *Anuario de historia del Derecho español* 71 (2001) 588.

180 OC, IV, 1049 (“De regeneración en lo justo”).

181 OC, IX, 72 (“Discurso en el Ateneo de Valencia, con motivo del certamen nacional convocado por la Academia Jurídico-Escolar, el día 24 de abril de 1902”). Ohar bedi, holakoetan herriaren arima instintoa-
rekin berdintzen dela nolobait: Unamuno “liberalak” herriaren kontzeptu ez oso liberala erakusten duela,
orobat.

182 Ib., 75.

Thibaut. El Código Civil español, de génesis y aparición más tardíos, permitió al propio Unamuno opinar en torno a la misma cuestión previa, asumiendo integralmente la postura de Savigny”¹⁸³. Baina hortxe dago korapiloa: pasarte guztio-tan Unamuno-k Zuzenbidearen Eskola Historikoa inoiz ez du aipatzen ezertarako. Aldiz, egiazko iturria duena, behin eta birritan aipatzen du: “No creo queda ya otro remedio que sumergirnos en el pueblo, inconciente de la historia, y emprender en todos los órdenes el estudio que Joaquín Costa ha emprendido en el jurídico” (1898)¹⁸⁴. “Derecho, lengua y religión, las tres potencias del alma popular [kasu Volksgeistari hurbilketa honi!], son en nosotros romanas, pero escarbando pudiera sintieseis latir y aun resollar bajo ellas las almas más o menos reprimidas de los derechos, las lenguas y las religiones nativas de nuestro pueblo (...). El meritísimo investigador de nuestras costumbres de Derecho, don Joaquín Costa...”¹⁸⁵.

1897an, lehenago berak predikaturiko zientzia ja moda bihurturik, kultismo berri horretaz burlatzen hasi da: “Si no escribimos Thucydides lo que los demás escribimos Tucydides, ¿en qué se nos va a conocer que sabemos un adarme siquiera de griego?... Si no aparece una acción refleja o algo por el estilo en un cuento, ¿cómo se sabrá que hemos tragado a Wundt, Ribot, Münsterberg, James y otros tales?”¹⁸⁶.

Unamuno hamaika bider mintzatu da Euskal Herriaz, euskal arrazaz, edo arima, arraza espainolaz, etab., baina inoiz ez du erakusten, aipatzen dituen *Völkerpsychologie*-ko ezein ere autorez, edo aipatzen ez dituen Zuzenbidearen Eskola Historikokoez, zuzenean baliatzen denik. Zer esan, maite omen zuen Hegel-en Volksgeist eta historiaren filosofiaz?

Behin baino gehiagotan baietsi edo iradoki ohi denaren aurka, Unamuno-ren intrahistoriak *En torno al casticismo*-n¹⁸⁷, Hegel eta Volksgeistarekin zerikusirik ez

183 LINAGE CONDE, A., op. cit., 588-589.

184 UNAMUNO, M., OC, IV, 1028 (“Renovación”). “Las Universidades” artikuluan orobat (1898): “La inquisición de nuestro derecho consuetudinario y costumbres jurídicas, de que tanta luz va sacando D. Joaquín Costa, ayudado por fervorosos cooperadores (...). ¿No caben informaciones como las que llevó a cabo Le Play con sus discípulos?”, in: NÚÑEZ, D. – RIBAS, P. (arg.), aip. lib., 169.

185 OC, IV, 1079 (“España y los españoles”). Unamuno-k ezagutu zezakeen –ausaz– Savigny-ren *Sistema de derecho romano actual* (orig. al., 1840), frantsesetik espainolera 1878an itzulia baitzegoen. Baina hori ikerketa historiko positibo soila da. Ordea, bere oinarriko filosofia zuzenbide-historizista, Savigny-k *Vom Beruf unserer Zeit* (1814) goiztiarrean bakarrik azaldu du labur-labur, zabalkunde gutxikoa hori.

186 NÚÑEZ, D. – RIBAS, P. (arg.), aip. lib., 163.

187 Ik. ABELLÁN, J. L., *Historia crítica del pensamiento español*. Bol. V (II), *La crisis contemporánea*, Madril 1989, 319 eta hurr. (“La teoría del casticismo de Unamuno”).

dauka¹⁸⁸. Bere “Espíritu de la raza vasca”n¹⁸⁹ edo Gaztela eta Don Quixote eta esentzia espainolen meditazioetan orobat, Volksgeistik ez dago, esango nuke, kontzeptu bezala (Herder edo Hegel-en eran), apenas Herrien Psikologiaren ikerketetako adieran ere zehazki, baina bai erruz metafora mistiko difuso bezala (Renan-en gisara) edo topiko txar bat, propaganda politikoa ordurako European bulgarizatzen ari zen estiloan. Orokorki Unamuno-ren hegelianismoari buruz esan behar da, doi-doi horixe dela eta ez gehiago: bere buruarentzat berak asmatutako legenda aurea bat. “Aprendí alemán en Hegel, en el estupendo Hegel, que ha sido uno de los pensadores que más honda huella han dejado en mí –idatzi dio Juan Montseny anarkista katalanari (1901)–. Hoy mismo creo que el fondo de mi pensamiento es hegeliano”¹⁹⁰. Garai honetan Unamuno-k Hegel-en ideiarik ere ez dauka¹⁹¹, seguru asko ideia handirik inoiz ez du eduki¹⁹² (beharbada alemana ere inoiz ez du lar jakin)¹⁹³. Komentatzen du P. Ribas-ek erruki gogorrez: “La forma en que Unamuno se refie-

188 RIBAS, P., “El Volksgeist de Hegel y la intrahistoria de Unamuno”, in: *Cuadernos de la Cátedra de Unamuno* 21 (1971) 23-34. ID., *Para leer a Unamuno*, Madril 2002, 123-128.

189 UNAMUNO, M., *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, Madril 1974, 54: “En el último fondo de nuestra alma duerme el animal (...); sobre él, el hombre primitivo y salvaje que se nutrió a los pechos de una desabrida madrastra, la naturaleza; sobre éste, el espíritu de la raza...” Ib., 56: “si hay un espíritu fuerte, señores, es el espíritu de la raza, sangre de nuestra sangre, jugo de nuestro jugo”.

190 RIBAS, P., *Para leer a Unamuno*, Madril 2002, 115. “El hecho es que él recuerda con entusiasmo que fue lector de Hegel a sus 16 años” (116). Goethe-ri buruz ere Unamuno-k Maragall-i gutunean dio: “Casi aprendí en él alemán, y en él aquieto las turbaciones de mi espíritu” (Ib., 188, 23. oin-oharra).

191 Ib., 128-129. Tesiko zuraje teoriko-filosofiko guztiari, onberatasun pixka batekin, aprendiz inpresionatuaren zurriburri zentzubakoa iritzi dakioko: “(hizkuntzan) la materia representa el fenómeno; la forma es el nómeno”; (hipotesiak) “no tiene sino valor lógico, es tan sólo condición subjetiva para la mejor explicación de los hechos, y claudica desde el momento en que pasa del orden transcendental al empírico”, etab., etab., Hegel-ekin ez dauka zerikusirik, eta Kant-ena gehienez ere parodia bat da.

192 INSAUSTI UGARRIZA, F. J., *M. de Unamunos und J. Ortega y Gasset Philosophie im Zusammenhang mit ihrer Hegel-Rezeption*, Donostia 1993. RIBAS, P., “Unamuno lector de Hegel”, in: *Revista de Occidente* 96 (1989) 108-125.

193 GARATE, J., *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbo 1933: “he corregido la errónea traducción de Unamuno” (67 or.), “corrijo a Unamuno” (67 or.). HUMBOLDT, G. de, *Cuatro ensayos sobre España y América* (itzultz.: M. de Unamuno eta J. Garate), 54: “No era Unamuno un buen traductor en ese año 1889 e ignoro si llegó a superarse más tarde, al menos en lo que se refiere al alemán” (J. Garate). GARATE, J., *Un crítico en las Quimbambas*, Donostia 1993: “En París fui asiduo miembro de la tertulia de M. de Unamuno [honen exilio aldian], en el Boulevard Mont Parnasse, que se realizaba todos los días por la tarde, menos los domingos (27 or.); “no podía conversar ni entenderse con nadie en alemán ni en inglés, hecho que se ha ocultado cuidadosamente hasta ahora” (257 or.). Indikaziook X. Apaolaza kolega eta lagunari zor dizkiot. Ik., orobat, RIBAS, P. – HERMIDA, F. (arg.), *Unamuno: Cartas de Alemania*, Madril 2002, 200: “Ud. ya no domina la declinación alemana (...). No presumiría yo, pues, tanto basándome en la autoridad de sus estudios alemanes” (irakurle aleman baten gutuna). Ik. OC, IV, 1369: “der geborener [sic] Held”.

re a este conocimiento de Hegel permite pensar que le complacía proclamarlo. Pero un lector atento de la obra del español notará enseguida que hay pocos apoyos para considerar que el hegelismo de Unamuno fue algo que pueda definir su orientación intelectual¹⁹⁴. Intrahistoriari gagozkiola (kontzeptu unamunotar joan-etorritsuagoa dirudienak iruzkingileentzat Unamuno-rentzat berarentzat baino)¹⁹⁵, hori da metafora bat, zer omen den, Unamuno-k metafora gehiagorekin bakarrik argitzen edo iluntzen diguna. “Historian” bi maila dago: ageriko eta axala, gertakariena, kroniketan agertzen dena, hori deitu ohi da historia; eta barnekoa, isila, historiaren substantzia, ur gaineko uhinen azpi-azpian dagoen itsas hondoa, intrahistoria. Azaleko historiak, batera eta bestera zoro-zoro dabilela ematen duen artean, sakonean barnehistoria bere horretan iraunkor dago. Arazorik gabe ulertzen dugu: errepublikan ala monarkian, orain festan, gero hiletan (historian), nola belaunaldi batean hala hurrengoan, sakonean gizarte bat beti gizarte bera da (intrahistorian, edo iraunaldi luzeko historian). Baina zer da zehatz-mehatz intrahistoria hori? Arima bat?, arraza?, herri xumea?¹⁹⁶, kultura?, tradizioa? (baina zer tradizio: erlijioso, literarioa?)... Ematen du, historia eta intrahistoria, esentzia eta akzidenteak edo jarduna eta egona bezala kontrajartzen direla, izana eta bilakaera. Ribas-ek seinalatzen duen legez, intrahistoriaren metafora ia denek egona, pasibitatea adierazten dute (“inmensidades en el fondo del olvido”, “sedimento de los siglos hundidos en la tradición”, “inmensa pirámide submarina”; “debajo de esa historia de sucesos fugaces, historia bullanguera, hay otra profunda historia de hechos permanentes, historia silenciosa, la de los pobres labriegos”)¹⁹⁷, eta denboragabe eta zedarrigabetasu-

194 RIBAS, P., op. cit., 115. Lerro batzuk lehenago esana du: “su actitud [Unamunorena]... se mueve en los antípodas del pensamiento de Hegel”. Eta 118 or.: “No creo posible sostener de forma coherente que en el joven Unamuno se halle una línea hegeliana significativa”.

195 MORÓN ARROYO, C., op. cit., 82: “El término intrahistoria es privativo de Unamuno. Lo introdujo en el primer ensayo de *En torno al casticismo* pero lo empleó poco y lo descartó muy pronto de su lenguaje. Intrahistoria condensa en una sola palabra la expresión «historia interna», expresión corriente a fines del siglo XIX para referirse al estudio de la vida de los pueblos, frente a la historia «externa» que sólo prestaba atención a los reyes con sus guerras y sus pactos”.

196 Unamuno-k joera dauka intrahistoria (herriaren arima) jende xumeari hurbiltzeko, edo harekin berdintzekoa; eta herri xumea, herri laborariarekin. “El pueblo, el hondo pueblo, el que vive bajo la historia, es la masa común a todas las castas, es su materia protoplasmática; lo diferenciante y excluyente son las clases e instituciones históricas”. Baina, kuriosoki, Frai Luis Leongoa, Lope eta Shakespeare intrahistoria jende-xumetar horretan kokatzen dira. Zergatik Kant edo Spinoza ez?

197 OC, I, 981 (“La crisis del patriotismo”). “Hay en el Océano islas asentadas sobre una inmensa vegetación de madréporas, que hunden sus raíces en lo profundo de los abismos invisibles. Una tormenta puede devastar la isla, hasta hacerla desaparecer, pero volverá a surgir gracias a su basamento. Así en la vida social se asienta la historia sobre la labor silenciosa y lenta de las oscuras madréporas sociales enterradas en los abismos”.

na (“inmenso”, “lo que es eterno”), h. d., izan bat, intuizioak bakarrik atzeman ahal izateko modukoa, ez begiespenak eta ez adimen zehatzak, hots, ente ahistoriko, metafisiko bat azkenean, positibismo txarretan maiz bezala¹⁹⁸. Unamuno-k sakon-sakonean zinezko historiatzat jotzen duena, hortaz, historiari eza da, eternitatea – San Agustin eta Bossuet, beraz. Teologia. Alabaina, intrahistoria isil geldi hori ei da herri eta jendei bizia eta ekimena ematen dien iturria, karakterea ezartzen dien indarra, eta egiazko historiaren egiazko egilea: teologia da politikaren azpiko fundamentua.

Historiaren bi mailen eskema honek, eta batez ere gertakarizko historia ageriaren inesentzialtasunak, aise erreparatzen da, historiaren teologiarekin legez, historiaren filosofia krausistarekin ere antz handitxoa du –hori idealista da–, Giner de los Ríos-ekin bereziki¹⁹⁹. Baina Unamuno-rekin sekula ez dago jakiterik. Herrien historiaren azpiko intrahistoria hori izan daiteke Natura (pixka bat Kant-en antzera), edo materialisten materia, edo indar absolutu ezezagun eta ezagutezin bat eraginkorra, efektuen ugaltzeko legearen arabera historia agerikoan biderkatzen dena (Spencer), edo biologia psikologizatu bat, arraza (Ardigó, Taine), edo beste zernahitsu XIX. mendetarra. Unamuno-k ideiak handik eta hemendik bildu, eta bere pentsamenduaren modura eraldatu egiten ditu, edo soil metaforizatu, literarioki baliatzeko, baliagarritasun hori baita berari oroz gain interesatzen zaiona, ez doitasun kontzeptuala. Unamuno gaztea garai honetan positibismoaren ildoan dabil buru-belarri, eta hala, intrahistoriaren metafora ere irudi eta konparazio naturalistaz jantzita aurkezten digu, indar kosmiko bat bailitzan. Haatik, intrahistoria horrek –panteista edo panenteista–, zerbait mistiko teologiko narbarmena du (*Paz en la guerra*-n jada), historiaren filosofia krausista guztiak legez bestalde²⁰⁰, edo krausismo osoak hobe²⁰¹, eta azken batean berdin Unamuno osoak, periodo positibista barne. Beharbada garaiko giro eta planteamolde esentzialisten propioa da “erlijiositate” orokor hori (fundamentalismoa esango litzateke orain), libre-pentsamenduan eta laizismoan bertan ere

198 RIBAS, P., “Contexto sociocultural de la generación del 98 (1895-1905)”, in: *Anuario Filosófico* 31 (1998) 58: “El libro de Unamuno está lleno de ambigüedades, y por ello permite lecturas muy distintas (...). Unamuno alude a los sin voz con tanto acompañamiento de metáforas del mundo mineral, inmóvil e inconsciente, que puede muy bien convertir a los que serían auténtico sujeto de la historia en seres petrificados. En una palabra, los que serían auténticos motores de la historia tienden a quedar inmovilizados, eternizados, sí, pero con una eternidad carente de vida y movimiento”.

199 Krausismoak ere azaleko eta barneko historia bereizten du: gertakarien agerikoa, “ideien” (edo, esan daiteke: Jainkoaren) barnekoa, ik. LÓPEZ-MORILLAS, J., aip. lib., 40 eta hurr. Giner de los Ríos-ek barne-historia hori herriaren psikologiarekin berdintzen du, Ib., 114 eta hurr.

200 Ib., 38 eta hurr., 40 eta hurr.

201 Ib., 18, 20, 40 (47), 55, 172.

nabariagarria XIX. mendean. Ezaguna da Ganivet-en itzulia San Agustin-en esakunean: “Noli foras ire, in interiore Hispaniae habitat veritas”²⁰². Ongiaren eta gaizkiaren esentziak bilatzen dira, eta erremedio esentzialak. Herri espainolaren barne-esentzia eternal hori da denboragaindiko intrahistoria bezala metaforizatu duena Unamuno-k, egiaren toki eta osasunaren iturri zerugaindiko, Espainiaren gaurko gaixoa-orentzat erremedioa. Gero, gaur arte, tradizio honetako intelektual tipoak –“erlatibismoaren” oso etsaia izaten da hori–, ezin onartu izaten dizu arazo politikoak maila politikoan soil analisatu eta eztabaidatzea, haien zinezko sustrai sakon-sakonak, berak dakien sakontasun filosofiko ezkutu batean, omen baitautza.

“Búsqueda afanosa –idazten du J. Varela-k– de las raíces de la nacionalidad que conlleva casi siempre la referencia al pueblo, entendido al modo romántico. «Espíritu del pueblo», llama Ganivet a esta potencia creadora. Unamuno lo escribe en alemán, lengua que domina: *Volksgeist*, hondón del alma, nimbo colectivo, subconsciencia popular, que de estas maneras lo traduce y matiza [beraz, errigortsuki Volksgeistik batere ez, baizik ez dakigu zein psikoziientziatako eta erlijiotako zein arima, Unamuno-k eta bere lagunek inbentatua!]. Sede de toda virtud, archivo de los sentimientos profundos, «inexplicables»; depositario de la verdadera continuidad histórica, soporte de la «constitución interna» de un país. Hay que estudiar, propone Unamuno como tarea, el «alma inconsciente del pueblo zafio», de ese pueblo que nos sustenta a todos. Lo cierto es que, en esa pesquisa, lo popular tiene siempre una figura arcaica. No suele ser casi nunca obrero industrial...”²⁰³

(Esentzialismo eta ruralismo sasirromantiko, ezen ez erromantiko, honen kritika –Tx. Agirre, Orixe–, euskal literaturari begira, aspalditxo, h. d., jada 1960 eta 70eko urteetan egin zen Euskal Herrian: Varela jaunak hori ez daki, noski).

202 GANIVET, A., loc. cit., 151. San Agustinen originala: “Noli foras ire, in teipsum redi; in interiori homine habitat veritas”. (Espainia pertsona bat bezala hartua, gehiago ezin den moduan).

203 VARELA, J., *La novela de España. Los intelectuales y el problema español*, Madril 1999, 160.

EUSKAL HERRI GOGOAZ

1887ko urtarrilaren 3an Unamuno-k Bilboko elkarte “El Sitio”n hitzaldi bat jaulki zuen, “Espíritu de la raza vasca” izenburua daramana, tesi estrainio honekin: euskal izpiritua den bezalakoa izanda, Euskal Herriak independentea izan behar luke²⁰⁴. Orain ez gara arduratuko independentziaz, ezpada izpiritu edo herri gogoaz – hori ere Unamuno-ren aro hau oroitarazteko adinatxo, besterik gabe, testua orokorki ezagun samarra baita bestela (eta Unamuno-ren pentsamenduaren historian momentu labur bat baizik ez).

Konferentzia honen aurretik –1886ko apirilaren 9an–, beste konferentzia bat, edo hobeto, 87koaren lehen partea, emana zuen “Orígenes de la raza vasca” izenburuarekin, polemika bizi bat piztu zuena, non ere interbenitu baitute I. Olea, Unamuno, Campián-ek eta, azkenik 1888an oraindik Sabin Arana gazteak. “Orígenes de la raza vasca” horren testurik ez da gorde, baina J. A. Ereño Altuna-ren ikerlan bikain-bikainari eskerrak, haren eduki seguruenekoa lau puntuok osatu dute: 1) euskal herriaren jatorriari buruzko ameskerien kritika, 2) euskarari buruzko Larramendi, Astarloa eta abarren estrabagantzien kritika, 3) euskal legenda eta tradizio ipuinezkoen kritika (Xaho), 4) euskararen ahultasuna bizi borrokan gaztelaniari ezin buru eginik²⁰⁵. Guretzat, gogoan hartu beharrekoa da, “Espíritu de la raza vasca”ko testua –ikustera goazena– polemika artean formulatua dela; erantzun bat legez, nolabait, haren foralismoaren zintasunaz fido ez direnei. Hala ere,

204 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 53-80. Hitzaldiaren sarreran Pi y Margall-en hitzok dakartza goiburu gisa: “A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos”.

205 EREÑO ALTUNA, J. A., “Remitidos polémicos. A propósito de la conferencia de Unamuno en *El Sitio*, el año 1886, «Orígenes de la raza vasca»”, in: *Letras de Deusto* 24/65 (1994) 115-116.

bestelako zerikusi politikoak oro alde batera utzi eta, herri gogoaren kontzeptua jokoan nola ageri den ikustera mugatuko gara gu hemen.

Aro honetan, Unamuno-rentzat, herri gogo edo izpirituaren eragile nagusi-nagusia, agian bakarra, ingurugiroa da, hau zentzu geografiko soilean ulertua gainera (“medio ambiente”), ingurumari soziala gabe, historikoa ere gabe – itxuraz, behintzat. Hizkuntza bera inguru geografikoaren efektua kontsideratzen da; berdin arraza. Arraza eta hizkuntza bat eta bera dira, “pero ni la raza hace al lenguaje ni éste a aquella; son como el órgano y su función: ni la función crea el órgano, ni el órgano crea la función: ambos son efectos del medio ambiente obrando sobre la interna plasticidad”²⁰⁶. Euskaldunok, nortasunaren printzipio geografikoaren araberak: “somos un pueblo montañés y costero; las montañas que se elevan macizas al cielo sin desprenderse de la tierra y el mar que bate incesante nuestras costas han formado nuestro espíritu”²⁰⁷. “La montaña nos ha hecho amantes de la primitiva libertad y prontos a turbar nuestro suelo con discordias. El mar, aventureros y expansivos, recios y flexibles”. “El cielo brumoso y la tierra ingrata han hecho al vasco tardo, pero seguro; poco imaginativo, pero de grande sentimiento; mediano poeta, pero inmenso corazón”²⁰⁸, etab.

Izpiritua hiru partetan partiturik, honela ezaguarazten du euskal izpiritua – “psikologoren” batzuei jarraiki: 1. Enteleguaz edo inteligentziaz denaz bezainbatean, estreina adimenari gagozkiola, gure herriak pentsalari eta inteligentzia gailen gutxi eman du; baina, alderantziz, batz besteko jende adimendutsua da euskalduna²⁰⁹. (Hau bera arrazaren primitibotasunaren ezaugarria ei da). Irudimenaz bezainbatean: “el vasco es pobre en imaginación artística”, “el vasco es poco poeta” (baina ez sentimendu faltagatik)²¹⁰. 2. Sentimenduaz bezainbatean, izan ere, euskalduna sentimendu sendoetakoa da, batik bat moralak²¹¹ (ez hainbeste estetikoak), eta

206 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 57.

207 Ib., 58-59. Ik., Ib., 82: “Las montañas verdes y el encrespado Cantábrico son los que nos han hecho” (“Alma vasca”, 1904). Berdin, hitzez hitz, in: OC, IV, 261.

208 Ib., 59.

209 Ib., 61. “Aquí faltan grandes pensadores, vigorosos genios que encaucen la opinión, poco encauzable, pero el nivel intelectual medio es satisfactorio. Otros nos aventajan en el máximo y el mínimo; dudo que muchos nos aventajen en el medio”.

210 Ib., 64. Unamuno-rentzat dudarik ez dago, “la literatura vasca” euskaraz egina bakarrik dela (ez erdaraz egina, euskoek egina izanik ere), ik. 64 or. Euskal literatura modernoan “bi poeta eta erdi” ezagutzen du: Iparragirre eta Bilitx, eta hirugarren erdi bat, “uno que vive y por eso no le nombro” (Arrese Beitia, nik uste).

211 Ib., 67: “El vasco posee las virtudes vigorosas y másculas del montañés primitivo, no las virtudes alambicadas y adquiridas de los pueblos cultos. Es franco, leal, jamás ataca por la espalda”, etab.

sozialak²¹², erlijiosoak ez dago garbi oso sakonak ote diren²¹³, izatekotan ere kristautu eta gerokoak²¹⁴. Euskaldunarentzat erlijioa ekintza molde bat da. 3. Ekintza edo nahimenaz bezainbatean: “En el cerebro, señores, de los pueblo salvajes y los primitivos pueblos, los centros motores están mucho más desarrollados que los directores. – El pueblo vasco es un pueblo activo, fuerza, mucha fuerza, aunque le faltan ideas, porque en nosotros las ideas se truecan en fuerza”²¹⁵. Errotik ekin-tzaile, euskalduna abentureroa da eta etxetik kanpo ibili ohi da, guduan, itsasoan eta nahinon: “Y hoy hay vascos en todas partes; pueblo joven y como tal flexible, es español en España, francés en Francia, americano en América y vasco en todas partes”²¹⁶. Disertazioa –“zientzia” eta erretorikaren tortilla bat, ber denboran euskoen kritikaren²¹⁷ eta losintxarena bezalaxe– “el sentimiento más vivo, el alma del alma de nuestro pueblo, el individualismo, el espíritu de independencia” hitzekin amaitzen da²¹⁸.

Unamuno-ren periodo honetako kredo positibistaren ondorioz, ez dut esan-go kontraesan etengabekoan mugitzen ari dela, baina konferentzia guztian atezu edo barne tentsio deseroso bat ohartzten da historia eta naturaren artean (ez Herder eta ez Hegel-ek daukatena, modu honetan behintzat; baina berriro topatuko duguna hein batean Ortega-rengan, antipositibista izan arren), beharbada zantzu bat dena, garai honek guztiak eduki duen problemarena izpirituaren trataeran, zehazkiago natura eta historia nola elkarretaratu izpirituarekiko erlazioan. Zientzia naturalen (eta antropologia biologistaren) tenoreko goraldiaren arabera, herri gogoa modu naturalista estriktoan, historiarik gabe, definitzen da – “Volksgeista” arrazaren izpiritua da: betikoa eta beti bera dirudi, eta gero horrek historiarekin ahal duen bezala konpondu behar du; euskal arrazaren izpiritua holako eta halako

212 Ib., 68: “Para el euskalduna no adulterado por la influencia alienígena, la patria es la Euscalerria, el sentimiento patrio amor al terruño, patriotismo de campanario”.

213 Ib., 69-74.

214 Ib., 75. “La religión para el vasco es acción, lucha”. Prototipoa San Inazio Loiolakoa da. “Y esta tendencia a la acción, no a la contemplación religiosa, a la propaganda activa, no a la especulación mística, es evidentísima”.

215 Ib., 75 eta hurr. “Alma vasca” artikuluan sumariokiago: “La inteligencia de mi raza es activa, práctica y enérgica, con la energía de la taciturnidad”. “Un carácter rudo y pacientemente impetuoso, por lo común autoritario” (Ib., 83).

216 Ib., 76-77.

217 Konferentzia honetan Unamuno, Madrilen krausopositibismoa ezagutu berria duena, oso kritikoa da bere aurreko edo garaiko zenbait euskal “filologo” eta historialari edo legendazalarekin (Xaho, etab.): beti arrazoi zuzenekin ez bada ere, arrazoi guztiarekin bai.

218 Ib., 77. Ik. 77-80.

da, puntu. Natura eta naturaren obra. Historiak, bere aldetik, ez du ematen izpiritu horren beraren produktu, baizik beste indar naturalista arrotzen batzuen ekarkia, hor nonbait airean; eta herri izpirituak, euskaldunak bederen, historia horren pean aterpetzen izango ditu lanak. Behin eta berriro errepikatzen denez, euskal izpiritua dago “pegado, todavía (...) con fuerza a la rudeza primitiva”²¹⁹; gara “un pueblo primitivo recién salido de la tosquedad prístina, que acabamos de dejar por los encantos de la civilización los pechos de la naturaleza”²²⁰. Beraz, historiara, zibilizaziora, euskal izpiritua “atera” egiten da bere baitatik norabait kanpora, berea ez denera. Berez euskal arrazaren izpiritu kolektiboa naturari itsatsia da. Hori hizkuntzaren analisiak frogatzen du (gero ikusiko da), baina ez horrek bakarrik (hizkuntza ez dela natura, osteratu ahal izango bailuke norbaitek), baizik euskal herrian gizon eta emakumeen artean dagoen entelegu berdintasunak ere bai; entelegu berdintasun bat, bere oinarri fisiologiko organikoan materialki egiaztatu ahal dena, gainera: “hay un hecho, señores, que distingue grandemente a los salvajes y los pueblos primitivos de los amansados en la cultura y que llevan la civilización en las venas. La diferencia de la capacidad relativa del cráneo de la mujer al hombre es mayor en los pueblos civilizados que en los que no lo están; entre los salvajes, la mujer es tan inteligente como el hombre; entre los cultos, la diferenciación se ha operado, y mientras el hombre llega a la edad adulta, la mujer apenas pasa de la infancia. No quiero fatigar vuestra atención con datos psicológicos, fisiológicos y étnicos que prueban este aserto”²²¹. Ordea, “cuantos visitan el país vasco están contestes en afirmar que aquí la mujer vale más que el hombre”, arraza primitiboa garen froga hori ere. Beste agiri bat errefutagaitza, buruko gaixoen kopurua da (“gran contingente de enfermedades mentales”), hau ere zientifiko naturalista (eta betiere “ingurugiroari” atxikia: nahiz eta orain bat-batean honek ia historiko-kulturalagoa dirudien organiko-materiala baino). “Cuando la adaptación al medio es lenta, la adaptación se cumple con más exquisita perfección que si es rápida. Los cambios bruscos perjudican al organismo, la llegada de la primavera se anuncia con catarros y constipados. En el choque, unos resisten, otros padecen. Así sucede en el paso de los pueblos del estado primitivo semi-bárbaro al estado de cultura. Entre los negros salvajes y los esclavos la locura es caso raro, muy frecuente entre los libertos. Y es que su organismo, menos adaptado para la nueva vida, se resiente y sufre. – Somos, señores (...) un pueblo recién nacido del

219 Ib., 60.

220 Ib., 61.

221 Ib., 61.

prístino estado de naturaleza, ayer sin historia, hoy en ella...”²²². Zibilizazio modernoari arin-arin egokitzera behartua (“ayer éramos bárbaros montañeses rodeados de pueblos cultos; hoy marchamos a su lado”)²²³, Aro Garaikidean zorokilo samartua ei dabil euskal izpiritu primitiboa, euskaldun guztiak. “En todos veréis algo anormal, algo incoherente en las ideas, la tendencia a los extremos, la terquedad en la opinión y la locura colectiva que consiste en lanzarse al campo sin medir los riesgos, sin pesar las fuerzas. En este siglo hemos dado los vascos el mayor contingente a dos guerras que han sido dos actos de locura colectiva”²²⁴. Antza, gerrak ez dira fenomeno historikoak, baizik naturalak; eta gerren kausak patologia arrazialekoak dira, ez historiko-sozial edo politikoak. Unamuno-k euskaldunaren gorputz tankera, sudurra, ilea ikertu duen hainbat jende aipatzen digu jada ordurako: M. de Quatrefages (“célebre naturalista francés”), M. Cénac Moncaut, Girault de Saint-Fargeau, Moreau de Jounes, Napier, Bladé, Broca eta beste²²⁵. Horien –“zientziaren”– esku dago, nonbait, euskalduna eta euskal herri gogoia zertan datzan irakastea²²⁶.

Bestalde, testuingurua bestelakoa izan orduko, historiari ez omen duen herri honi, harrigarri historia asko aitortzen zaio. “La historia del pueblo vasco ha sido la historia de un pueblo individualista, unas veces luchando por su independencia, mil veces vencido, no domado; obedecía, pero no cumplía; y cuando no luchábamos con los de fuera, luchábamos con los de dentro; la historia de las guerras de bandería, las famosas machinadas y nuestras luchas civiles intestinas...”²²⁷. Euskaldunen gerra gogoak, bada, ez dirudi buruetan modernizazioari adaptatu ezinak sorturiko gaitza²²⁸. Are, gerrak berak ez dirudi erokeria bat. “Si no hubiera sido por ese espíritu, no conservaríamos nuestra alma independiente, nuestro fiero individualismo; en la historia humana, los pueblos belicosos son los que sobreviven; el primer elemento civilizador ha sido la guerra: Roma devoró a Cartago”²²⁹. Beraz, inzibilizatua omen zen basajende gerrazale horri, zibilizazioa ere dexente

222 Ib., 63.

223 Ib., 77.

224 Ib., 63.

225 Ib., 62-63.

226 Ik. 54-55: herrien psikologia, etab., “zientzia naturalak”, aipatuak.

227 Ib., 59.

228 Aitzitik, behialako “espíritu belicoso, que late con fuerza en todo aquél” hori, “se va trasformando en otra tendencia afín, en el espíritu arriesgado y osadísimo para las empresas mercantiles e industriales” (Ib., 59-60).

229 Ib., 60.

aitortu ahal dakiok: bere literaturatxoa, handia ez bada ere (baina beste hizkuntzetatik anitz itzultzen duena, esate baterako; eta Aitor edo Lekobideren faltsifikazioak ere kultura dexente gabe ez dira egiten); bere ezagupideak itsasoan: “El vasco ha domado al mar. Marineros intrépidos desafiaron los peligros del océano glacial; bogaron hacia el Ártico..., llegaron, después de diferentes tentativas [“trial and error”!], hasta las costas de Islandia y Groenlandia; equiparon flotas de 50 a 60 buques”²³⁰; ingeles eta holandesei beraiek irakatsi diete ozeanoan ibiltzen. Egia da, Unamuno-k hau euskaldunen nahimenaren atalean adierazten duela, baina adimen eta zientzia pixka bat ere ezingo diegu ez suposatu itsasturi ausart horiei. Batez ere, alabaina, historia eta zibilizazio gabeko euskaldun primitibo horiek legeria eta justizia paregabe bat funtsean txit modernoa ere finkatu dute (“allí se muestra viril espíritu de individualismo: defender al individuo contra los abusos de toda autoridad civil o religiosa”, “allí la familia, los hijos protegidos contra los abusos de los padres; la mujer, contra los del marido, todo lo contrario del romano unitarista”)²³¹, eta antolaera politiko bikain bat asmatu dute, askezalea, oraingo “barbarie civilizada”k (“que algunos llaman liberal”) ezarri gura duena baino askoz liberalagoa egiaz. “¿De qué me servirá poder nombrar quien me gobierne fuera, si no puedo gobernarne dentro?”²³².

Euskal herri gogo kontraesantsu bat, beraz. Testuinguruen arabera, naturari itsatsi geldoa edo izpiritu enpresarial eta komertzial iradukoa; barbaroa edo bana-ko ahulenen babeslea; primitibo inzibilizatua edo askatasun politiko indibidualen begirale modernoena. Izpiritu bat, gutxienez dozena erdi bat izpiritu dena.

Baina behatzekoena da, emaitzen bitxia baino gehiago, herri gogoaren kontzeptuarekin nola jokatzeko den; h. d., in actu erreparatzea garbi-garbi, zein unibertso diferentetan gabiltzan, Herder irakurri ala Unamuno irakurri. Unamuno hau irakurriz, horren kaos mentalean, katramila guztien gakoa azkenean modernitatea edo horren mensa dela deduzitzen da: ala moderno zara, ala ez zara ezer. Lehen Unamuno honentzat (Ortega-k berdin jokatu du geroago), historiarik ez edukitzea modernitatez ez edukitzea da. Hori bera, Estaturik ez edukitzera bihur daiteke apika: euskaldunek (Okendo, San Inazio) hainbat proeza egin dute, baina beti besteren historian – ez dute beren historiarik. Unamuno Bilboko publi-

230 Ib., 76.

231 Ib., 77. “El espíritu del fuero es el espíritu de todo pueblo no contaminado con enredos especulativos, es la inspiración de la naturaleza”.

232 Ib., 79. “Hace ya tiempo que, a cambio de la libertad de gobernarnos, nos dan otras libertades, que para nada nos hacen falta” (Ib., 78).

koaren aurrean, estudiante gazteak Unibertsitatean harrapatu zuen sukar intelektual krausopositibista ari da garatzen, Madrilgo Ateneoan Espainiari eta historia espainolari buruzko gogoeta kritikoa zena (monarkiaren kritikoa, populista, etorkizun berri-berri moderno baten iragarlea), berak “El Sitio”n Euskal Herri postforalari aplikatuz, kritikoa erregeekin, kritikoa liberalismoarekin, kritikoa orobat bere aurrekariekin, bera baino lehen euskara, euskal herri edo jende (orain arraza), historia, erlijio, foru edo politikaz jardun izan direnekin, apologista, historialari hala literatoak (Garat, Xaho, Navarro Villoslada), hala euskaltzaleak. Herri gogoa tesi horren bermea baino ez da. Horren izenean egiten da erregeen (karlismoaren) ukoa²³³, Foruen zina egin zuten erregeak barne, baita liberalismoaren ukoa ere (“despotismo de la idea”). “No os hagáis ilusiones –dio karlistei begira–; nuestro espíritu de raza repugna ese despotismo viejo y carcomido [karlista] a que quieren volvernos algunos, cuando nunca nos hemos dejado dominar por él; tan fatales fueron ayer los reyes para nosotros como las leyes hoy [liberalak]. Pero nuestro espíritu de raza –darrai liberelei begira– repugna también este despotismo nuevo que algunos llaman liberal. No nos deben tiranizar –guztientzat orain– ni prejuicios de monarcas, enamorados del Sacro Imperio y de la uniformidad de la muerte, ni las teorías de gentes enamoradas también de la uniformidad absoluta, que se aprende en los libros de la filosofía del absoluto [?] y en las inspiraciones del doctrinarismo”²³⁴. Karlistei begira: “el paraíso no está en el pasado, está en el futuro”; “nuestra gloria deben ser nuestros hijos más que nuestros padres”. Eta liberelei begira: “El que combatió contra el derecho divino, justo es combata contra lo que llaman soberanía nacional; ni el despotismo de un hombre, ni el despotismo de la masa”²³⁵. Batzuen eta besteen aurka, Unamuno-k “liberalismo” berri bat proposatzen du, independentziaz Euskal Herriarentzat eta askatasun osoaz norbanakoarentzat, euskal herri gogoari egoki dagokiona hori bakarrik omen baita²³⁶.

233 Ib., 78: “Hace ya tiempo que ahogaron el espíritu del pueblo. El primero de los austriacos que se sentó en el trono de España ahogó en los campos de Villalar, con sangre de los comuneros, las libertades de Castilla; su hijo hizo rodar con la cabeza de Lanuza las esperanzas de Aragón, a las que dio el golpe de gracia Felipe de Anjou (...), mató las libertades de Valencia; después viene, tras de la paz de Utrecht, la epopeya de Cataluña, a la que redujo el primer Borbón”.

234 Ib. Ik. 79: “Nosotros nos hemos gobernado, no nos pudo gobernar un tirano [monarkiak], no lo podrán una recua de tiranuelos [Gobernu liberalak]”.

235 Ib., 80.

236 Ib., 78: “Hoy dos partidos diversos luchan por lo perdido [biak, beraz, foralistak!]; el uno quiere volvernos a la cuna, tornarnos a la barbarie de que salimos; el otro, llevarnos adelante, educarnos en la civilización; aquél trata en nuestra lucha con el espíritu moderno de volvernos al viejo; éste trata de acomodarnos a él; yo creo que debemos buscar el espíritu del porvenir”.

Jarraitu baino lehen, gauza bat ohartzeari dugu beharrezkoa: Unamuno honez-
kero “darwinismo soziala” ohi deritzon pentsaeran higitzen da (nahiz, de fakto,
Darwin baino Spencer gehiago irentsi duen); h. d., arraza edo herri gogo ezber-
dinak, begikera honetan, elkarren arteko bizi borrokan ari dira bata bestea hil
arte. Hori garaiko pentsaera arrunta da, baina, hala ere –gure interesari jarraiki-
utziezina dugu Volksgeistaren filosofia klasikoetatik zein urrunduak gabiltzan
berriro oroitaraztea. “A finales de siglo –idazten du J. W. Burrouw-k– ya era más
o menos axiomático que, siendo únicas, las culturas se enfrentaban unas a otras
como adversarias. No siempre había sido así. Para Herder, en el siglo XVIII, cada
voz cultural añadía un elemento, por así decirlo, al coro de la humanidad. Ade-
más, la relación entre un pueblo y su tierra era un lazo místico, crucial para su
identidad. En Herder, un pueblo anexionista hubiera sido una especie de contra-
dicción. Siguiendo a Herder, antes de 1848 los nacionalistas de todos los países
esperaban sólo un futuro pacífico en una Europa en la cual una nación, su terri-
torio y su estado tuvieran los mismos límites. La ingenuidad de esta idea se hizo
obvia más adelante: hablando desde el punto de vista intelectual, se sumó Darwin
a Herder, por así decirlo; un pueblo, según Ratzel, debía expandirse o morir. Lo
cual nos lleva al darwinismo social”²³⁷.

237 BURROW, J. W., *La crisis de la razón. El pensamiento europeo 1848-1914*, Barcelona 2001, 133.

HIZKUNTZAREN IZPIRITUA, EDO HIZKUNTZA ETA IZPIRITUA

Euskararen edo hizkuntzaren izpiritua Unamuno baitan sistematiko arakatzea, zeregin iluna eta labainkorra da. Iluna, Unamuno-ren pentsamendua delako iluna kapitulu honetan (eta, menturaz, edonolako tropo artean berak apropos ilunagotua, ez zelako inkontziente bere iluntasunez). Labainkorra, eztabaida politiko azkenik gabekoetan sarraraz gaitzakeelako²³⁸. Zorionez, ez guztiz sakontzea eta ez zehaztea izango da gure lana, baina alorra jorratzea bakarrik, batetik haren eboluzioari jaramon eginez, bestetik Volksgeistarekin zerikusirik duten puntu irtenenak biltzera mugatuz.

Erreferentzia obligatua bihurtua baitago, gure erreferentzia nagusia ere izango dira, Bilboko Lore Jokoetan Unamuno-k 1901eko abuztuko 26 gauean²³⁹ harrotu zituen hautsak, bere jokabide zatarragatik ere bai (jaietako erregina, ez zer eta ez hura, mandazain mozkor batek baino ez akademikoago laidoztatuz), baina bere tesi probokatzaileagatik batez ere: euskarak ez duela mundu modernorako balio, eta lehenbailehen hiltzea dela onena. Tesiak badu bigarren parte bat, gutxiago aipatzen bada ere, ez gutxiago erreparatzekoa guretzat: euskal herri gogo edo izpirituak ez duela ezer galtzen euskara galduz, aitzitik irabazi bai, hizkuntza unibertsal bat eskura edukita; are, ez bakarrik euskal arrazarenak, baizik “euskararen izpirituak” berak bizirik jarraituko duela euskaldunen gaztelanian. Tesi bikoitz hau, gutxien-gutxiena hartarakoxe zen Lore Jokoetako tribuna festaliarretik proklamaturia, sozietateko eskandalutxo baten goragailuak are gehiago potentziaturia, zenbaitek txalotu

238 Edo, Unamuno ukiezin samarra ere badelako nonbait batzuentzat, ik. MARAÑA, F., “Contra los necios: teoría de los vascos asuntivos”, in: *Gara*, 1999.03.10, 20 or., Torrealdai-ren liburu beltzeko aipuengatik (ik. 245 oin-oharra) haserrea.

239 Ik. UNAMUNO, M. de, OC, I, 1043. Konferentziaren testua Bilboko *El Noticiero Bilbaino* eta *El Liberal*-ek 1901. 08. 27an argitara zuten, iraileko zenbakian Madrilgo *Revista Contemporánea*-k.

egin du (Bilboko sozialistek, Maeztu-k, etab.); hainbat eta hainbatek, gaur arte, gogotik errepikatu du (Ortega, etab.); euskaltzaleak jeneralean Unamuno-ren arrazoari erantzun beharrean sentitu dira, argudioekin zein praxiarekin (S. Arana Goiri, Orixe, Lizardi, etab.), bestalde euskaltzaleon artean harenganako jarrera nahiko diferenteak nabaritzen direlarik.

Hona hemen Unamuno-ren diskurtsoko zati iskanbilatsua (hizkuntzari doakio-na) osorik:

“El vascuence y el castellano. El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que desaparezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma.

La mejor lengua es la propia, como la mejor piel la que con uno se ha hecho; pero hay para muchos pueblos, como para otros organismos, épocas de muda²⁴⁰. En ella estamos. En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao, hablando vascuence, es un contrasentido. Y esto nos da ventaja sobre otros, pues nos encierra menos en nuestra primitiva personalidad, a riesgo de empobrecerla²⁴¹.

Tenemos que olvidarlo e irrumpir en el castellano, contribuyendo a hacer de él, como de núcleo germinal, el español o hispano-americano, sin admitir monopolios casticistas, que no es un idioma feudo o heredad. Le llevaremos nuestra peculiar manera de decir, algo elíptica, cortante, angulosa y seca; algo hemos de aportar al castizo decir castellano, de amplios pliegues de capa en que el caballero se emboza, dejándola flotar al viento.

Del viejo bajo latín, pronunciado y construído por tribus que para aprenderlo tuvieron que olvidar sus viejas lenguas, surgieron los hermosos romances.

Del castellano, pronunciado y construído por distintos pueblos que habitan en ambos mundos dilatados dominios, surgirán, no distintas lenguas, que no consiente la vida social de hoy y el rápido intercambio, sino el sobre-castellano, la lengua española o hispano-americana, una y varia, flexible y rica, dilatada como sus dominios²⁴².

Y en ella cabrá, me atrevo a esperarlo, la expresión de nuestros anhelos todos, de nuestra concepción de la vida y de la muerte, de nuestro sentimiento de la naturaleza y del arte²⁴³. Será como una traducción gloriosa y depurada del para enton-

240 Beraz, hemen, sugereantzat azala bezala, aldatzen den zerbait kontsideratzen da herriarentzat hizkuntza (ez arimarik edo).

241 Arrazoi estrainio hau gogoan edukitzekoa da, Unamuno-ren burutazioari zentzuren bat igarri ahal izateko euskaldunen gehiagotasun izpiritual sonaz gaztelauen aldean.

242 Ik., orobat, Ib., 1004 eta hurr., Lore Jokoetako esaldi hauen argiketa (“Sobre la lengua española”, 1901).

243 Hau dena kontsideratzen da orain, hortaz, herri edo arraza batek bere-berea hizkuntzatik menpegabeki duena.

ces muerto eusquera; el pensamiento que dormitaba cual crisálida en el vascuence de Axular, preso en el enmarañado capullo de la venerable lengua milenaria, lo romperá y saldrá a bañarse en luz, apenas secas al sol las recién abiertas alas, en el español de la mañana.

Nuestra alma es más grande ya que su vestido secular: el vascuence nos viene ya estrecho; y como su material y tejido no se prestan a ensancharse, rompámosle. Hay además una ley de economía, y es que nos cuesta menos esfuerzo aprender el castellano que transformar el vascuence, que es un instrumento sobrado complicado y muy lejos de la sencillez y sobriedad de medios de los idiomas analíticos.

Y no digáis que no será nuestro pensamiento, verdaderamente nuestro, si en lengua que no sea la nuestra lo expresamos. Apropiémonosle, y nuestro, a la vez que de ellos, será el castellano y más comunicable pensar. En el bárbaro y brioso latín de algunos germanos medievales estalla el pensamiento germánico, tan genuino y fuerte como en los rudos cantos de los Nibelungos, en lengua germánica vertidos; así se preparó la lengua de la *Chanson de Roland*, de que salió la de Voltaire; así la del *Romanz de myo Cid*, de que brotó la de Cervantes. ¿Es acaso Trueba menos vasco que Iparraguirre? Ni creemos que es el actual castellano definitivo; no hay Academias que detengan el proceso de la vida. Va desapareciendo, con nuestra leyenda áurea, aquello de que fuera Castilla el granero de España; pero aún hay quien cree que el castellano es la lengua más rica. Le falta mucho, muchísimo, para serlo. A enriquecerla, pues, a flexibilizarla, a hacerla nuestra, sin admitir monopolios casticistas.

¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutorial!

Enterrémosle santamene, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia. Y para lograrlo, estudiémosle con espíritu científico a la vez que con amor, sin prejuicio, no atentos a tal o cual tesis previa, sino a indagar lo que haya, y estudiémosle con los más rigurosos métodos que la moderna ciencia lingüística prescribe.

A un inglés es a quien más he oído reprocharnos el que olvidemos el vascuence; al tal le parecerá bien la desaparición de las lenguas célticas del Reino Unido²⁴⁴.

No nos dejemos engañar por esas voces de eruditos que quieren que les criemos un conejito de Indias para sus experiencias lingüísticas: la vida está sobre la ciencia, y no hemos de acomodarnos a ser objeto de curiosidad, ni caso de etnografía. Porque observo en algunos de mis paisanos la pueril vanidad de tenerse por parte

244 Unamuno-ri ere, antza, mintzaira zeltikook galtzea, euskara galtzearen pareko fenomenoa iruditzen zaio: haatik, haien galeraren arrazoiak ezin dira euskararen arrazoi intralinguistiko berak izan!

de un caso que ha resistido hasta hoy a las clasificaciones. La vida ante todo, la vida concreta; y la vida nos trae la pérdida del vascuence”²⁴⁵.

Lehenbizi ohartzeko, “muere por ley de vida” hori erlatiboa da, ez absolutua. Unamuno-k berak hala ulertu duela, ulertzea komeni da (bai haren alde eta bai haren aurka), badagoen polemistaren grinaren azpian²⁴⁶, ez dagoen dogmatismo-rik ez ikusteko; berak gehitzen baitu arrazoi ‘ekonomikoa’: “nos cuesta menos esfuerzo aprender el castellano que transformar el vascuence”. Lore Jokoetako purrustadaren ondoren, behin eta berriro itzuli behar izan du gai berera prentsan. Geroz eta azpimarratuagoa aurkitzen da euskararen ezgaitasun “berezko”aren alde²⁴⁷, baina ez da uzten gehitu gabe: “Es éste un idioma rural, sin tradición literaria, y el hacer con sus materiales y valiéndose de su capacidad de formar derivados un idioma de cultura nos costaría muchísimo más esfuerzo que el adoptar el castellano nos ha costado”²⁴⁸. Beraz, ahalegin gehixegoz, baina ezin-ezinezkoa ez da euskara antzaldatzea, eta literatura eta zientziarako trebatzea. Ezagutu ere, ez ditu zentzuzkotzat jotzen, baina ezagutzen ditu, horretantxe ahalegiten ari direnak (esate baterako, bere bi lehiakideak Diputazioaren katedrarako): “entretiéndose no pocos de mis paisanos, en absurdo empeño por resistir el incoercible proceso vital, en inventar una especie de volapük eusquérico que ellos solos lo entien-

245 Ik. Unamuno-ren ateraldiok eta oihartzun aldezele batzuk, in: TORREALDAI, J. M., *El libro negro del euskera*, Donostia 1998, 43 eta hurr. Erreplika landu bat, UGALDE, M. de, *Unamuno y el vascuence*, Buenos Aires 1966. Erdibanatsu Unamuno-rekin eta haren aurka, Aita Villasante eta S. Mitxelena frantziskotarrak. Interpretaziorik ezustekoena (eta onargaitzena, hurrengo urteetako traiektoriari beha), KINTANA, X., “Unamuno eta euskara”, in: *Jakin* 121 (2000) 65-80: alegia, “Unamunok, sibilak bezain maltzurki, bere herritarrei erronka egiten zuela (...), euskararen aurkako erasoekin min emanez, hala, haserrez eta kontrakarrean, haiek, eginekin, euskara zientziaren zehaztasuna eta filosofi mintzabidearen xehetasunak oro adierazteko egiazki gai zela frogatzen ahalegin zitezen, bera oker zegoela erakutsi arte” (77 or.).

246 “La pérdida del vascuence es inevitable, y lejos de deplorarla, debemos desear los buenos vascongados que sea cuanto antes”, ik. OC, I, 1060 (“La cuestión del vascuence”, 1902).

247 Ik. OC, IV, 254: “En el caso concreto del vascuence estoy profundamente convencido de que se pierde, y que se pierde de pronto y sin remedio, y por su índole misma, por ser un idioma inepto para la cultura moderna. Dejo para otro lugar y ocasión el razonar con argumentos técnicos mi convicción de que el vascuence, por su índole misma, no puede acomodarse a la vida moderna, que Bilbao hablando vascuence es un contrasentido, que una obra de ciencia, de filosofía, de alta elucubración es imposible en vascuence” (“El bizkaitarrismo y el vascuence”, 1901). Ib.: “El vascuence es una curiosidad lingüística, pero llega a ser una inutilidad práctica; es un viejo pergamino nobiliario que no se cotiza ya”. In OC, I, 1043: “Yo estoy convencido de que la principal causa es de origen intrínseco, y se basa en la ineptitud del euskera para convertirse en lengua de cultura” (“La cuestión del vascuence”, 1902). TORREALDAI, J. M., aip. lib., 48-49.

248 Ib., 49 (*El Imparcial* 1901. 10. 07).

den, o mejor dicho, tantos volapükés cuantos reformadores del vascuence salen”²⁴⁹. Beraz, ahal izan, ahal izango litzateke, baina ez du merezi hainbeste permatzea. Unamuno-rena printzipioz ez da ebazpen kategorikoa (beharbada azken urteetan bai); eta gutxiago da, maite-maite omen lukeen euskara hil-hurren ikusten duenak dolorezki eginiko eutanasiaren edo paliatiboen planteamendua (oso euskaltzale bati bakarrik burura zekiokkeen hipotesi hori, nik uste: euskara sufritzen dagoen pertsona baten irudipean identifikatzea, 1901eko Unamuno-ri nekez imajina dakiokkeen sentiera baita; sentimentu horiek hobe Arrese Beitia-rentzat uztea)²⁵⁰.

Intentzioak aparte, Unamuno-ren interbentzioa Bilboko Lore Jokoetan euskararen biziraupenari atake bat zuzen-zuzenekoa izan da. Euskaltzaleen zalapartak ulertzekoak dira. Alabaina, ez dago esaterik Unamuno oportunistak bat zela, edo patxikontra hutsa, harroa, etc., ukatu gabe hori dena ere sar litekeela aferaren esplikazioan, edo esplikazioaren parte batean, beste parte bat begien bistakoa Unamuno-ren hamalau urteko eboluzio zurriburritua baita, ideietan eta sentimenduetan. Ez da gure gaia, baina gogora ditzagun data soil batzuk: 1886 “Orígenes de la raza vasca” eta 1887 “Espíritu de la raza vasca” konferentziak, Euskal Herriaz eta haren patuaz aro modernoan. 1888: Unamuno Bizkaiko Diputazioak sorturiko euskararen katedrara aurkeztu da, R. M. Azkue-k “irabazi” dio²⁵¹. 1891: hainbat oposizio gehiagotan alferrik ahalegindu ostean, azkenean Salamancan hizkuntza eta literatura grekoaren katedra erdietsi du. Salamancan –orain profesore– periodo berri bat abiatzen du: filologiara mugatu gabe, kazetaritzan oso aktibo, hasieratik hiri hartako gizarte kontserbakoi itxiarekin eta gotzain Cámara-rekin talka egiten du; Espainiako berrikuntza kultural eta intelektualean saiatua (itzulpenak eta abar eginez), hagitiz interesatua politikan ere. Barne prozesu ulertzeko bihurri samar batean, bi burdinbide ezberdinetatik batera balihoa bezala dabil, Bilborekiko lotura zaharrak, alde batetik, 1894an PSOEn militatzera darama, Espainia sozialaz kezkaturik (baina, nahiz Salamancan bizi, Bilboko asoziazioan afiliatua); eta ber denboran, bestetik, sorterrri berrian “arimarekin Gaztelaren bila” –Goethe-k esango lukeena–, *En torno al casticismo* izenburupean ezagutzen diren saioak publikatzera 1895ean, Espainia eternalaz

249 Ib. UNAMUNO, M. de, OC, IV, 253.

250 Nolanahi ere, ik. TORREALDAI, J. M., aip. lib., 80-81.

251 Arazoaz ik. Ugalde-ren aipatu liburua (berton erreferentzia gehiago, bereziki A. Akesolo-rena). Hala-ber GRANJA PASCUAL, J. J., “¿Por qué perdió Unamuno la Cátedra de Euskera en 1888?”, in: *Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno* 29 (1994) 337-345.

meditazioak²⁵². 1897 *Paz en la guerra* nobelaren argitalpen urtea da (nobela filokarlista bat, labur eta gaizki esateko: hamar urte lehenagoko konferentziarekin sintonian)²⁵³, eta aldi berean krisi erlijioso pertsonalarena, handik harako guztizko zaputzarekin positibismoari eta “fede itsurako” konbertsioarekin razionalismo eta zientismo ororekin apurtuz. “Misio salbatzaile” baten eta erruduntasunaren kontzientziak gatibatzen du. 1898: “desastrea”ren durduzadura, abiarazten duen gogoeta literario eta intelektual kolektiboarekin Espainiaren patuari buruz. 1900: Salamancako Errektore izendatua.

Uste dut, Unamuno-ren barrukoak benetan prozesu ikaragarri konplexuak izan direla, bizpahiru deskalkifikatibo psiko-moralekin sinplifikatzerik ez dagoenak. Saia gaitezen, beraz, ulertzen. Eta bereiz dezagun, zati-zatika, guri interesatzen zaiguna: 1) euskararen –berdin da: edozein hizkuntzaren– (a) berezko zaharkitutasuna, eta (b) ondoriozko baliogabetasuna mundu modernorako; 2) arraza, hizkuntza eta herri goaren arteko erlazioa.

Euskararen berezko pobretasun eta barne egituren zaharkitutasuna, Unamuno-k, tesi doktoralarekin hasi eta, bere periodorik “abertzaleenean” ere jada seinalatua zuen: Diputazioaren katedrarako kandidaturan huts egin aurretik, beraz²⁵⁴. “El euskera –idatzi du 1886ko “Del elemento alienígena en el idioma vasco” artikuluan, adierazpenak oraingoz susmo baten tonua gehiago ager dezakeen arren, tesi batena baino; eta agresibitate suntsikorrik gabe, batez ere– no es ni más ni menos perfecto que otros idiomas; todo es perfecto relativamente; cada idioma es el mejor para el pueblo que le habla (...). El castellano es un idioma más hecho, más integrado, más analítico, se presta más al grado de cultura que hemos alcanzado, y no se busque en la incuria de los hombres la razón de ciertos hechos: búsqese en la interna necesidad de los hechos mismos. Hablando del euskera se dice: ¿esto se va!, y ¿qué le hemos de hacer? Esfuerzos de eruditos nada pueden; si los años de vida están contados, ¿qué conseguirá el médico? No me acusen de pesimista; digo

252 Ik. diferentzia hauetan harmonia bat bilatzeko saio bat (“de no ser así, habría que hablar de esquizofrenia en Unamuno”), in: RIBAS, P., *Para leer a Unamuno*, loc. cit., 155. Fede bat eta bere kontrarioa ber denboran edukitzea, Unamuno-ren betikoa izan dela ematen du: Madril-en estudiantetako positibismo filosofoaren aro itsuenean, emozionalki Wordsworth, Coleridge edo Leopardi-ren poesia da bete-betetzen duena.

253 Sozialismoa eta karlismoa ez dira kontrariorik hartu behar, baizik eta “egiazko” karlistek nolabait Unamuno-ren bere moduko sozialismo edo anarkismoaren ideia inkarnatzen dute.

254 Unamuno-ren jarrera, euskararen juzguan irizpide kritiko eta zientifiko hutsak esijituz, ez dago isolatua, Euskal Herriaren historia eta legendetik bere jarrera kritiko orokarraren parte da; beraz, doktorego tesia bezain zaharra. Ik. URRUTIA, M. M., *Evolución del pensamiento político de Unamuno*, Deusto 1997, 24-26, 29-32.

lo que creo y lo digo claro. El vascuence se va porque no puede resistir el choque, porque lucha desesperadamente por la existencia contra un idioma más fuerte; más fuerte por sus condiciones externas y más fuerte por su interna organización”²⁵⁵. Ideia berdintsuak adierazten ditu berririo “Más sobre el vascuence”n (1886). Hizkuntzen perfekzioaren arazoa erlatiboa da: zeinentzat?, zertarako? “Todo idioma es el mejor para el pueblo que lo habla”, dio. Baina: “Como hay pueblos más cultos que otros, hay idiomas más perfectos y acabados”²⁵⁶. Eta konkretuki “si el vascuence es mejor que el castellano (...), yo respondo categóricamente: no. En primer lugar, a mi juicio, un idioma aglutinante [euskara] no puede nunca ser tan perfecto y claro como uno de flexión [gaztelania]. La perfección de los idiomas consiste en simplificar los medios, en pasar de la expresión sintética a la analítica, como el castellano ha hecho (...). Yo creo que la perfección consiste en pasar de la aglutinación a la flexión, y de ésta, a la expresión analítica”²⁵⁷. Horregatik bizi modernoan –urbanoan– euskara moldagaitza da: baserritarrak, euskara baztertu eta, gaztelania jakin nahi du, ulertua izan dadin, eta “en los pueblos algo urbanizados se habla un vascuence que no es vascuence”, “como lengua oficial, no puede usarse: habría que inventar giros y frases que nadie entendería; verdad es que yo, sabiendo algo castellano, apenas entiendo la jerga oficial”²⁵⁸. (Ohartuko da arrazoi intralinguistiko eta soziolinguistiko ezberdinenak nahasian dabiltzala). Euskara de fakto egon biziera modernorako prestatua ez zegoena, edozeinentzat zen ebidentea. (Arana Goirik pasarte elokuentek ditu horri buruz; Unamuno-k ez bezalako ondorio batzuekin). Era berean 1887ko “Espíritu de la raza vasca”n: “Todos habréis oído hablar de la rara perfección del euskera, de su riqueza de formas, de su exuberante vegetación. Es preciso que nos entendamos. Hay, a mi juicio, dos perfecciones en los idiomas, que en cierto modo están en razón inversa, en cuanto el lenguaje es órgano del conocimiento espontáneo y vulgar, y en cuanto lo es del reflejo y científico. – Los idiomas antiguos eran más perfectos para la expresión de lo real, del sentimiento que brota, del instinto que salta, para la poesía épica, para lo concreto y sus matices. Los modernos lo son más para lo ideal y lógico, para la razón que inquiere, para la lírica que expresa el sentimiento alambicado y reflexivo, para lo abstracto y sus formas; los antiguos eran sintéticos como la realidad, que es una

255 “Del elemento alienígena en el idioma vasco”, in: *Revista de Vizcaya*, Bilbo, 1886ko otsaila eta martxoa, cfr. UNAMUNO, M. de, OC, IV, 135. Ik., berton, 128: “Es un hecho curioso la pobreza del vascuence para expresar con vocablos propios las ideas generales”. TORREALDAI, J. M., aip. lib., 39.

256 UNAMUNO, M. de, OC, IV, 142.

257 Ib.

258 Ib., 143.

gran síntesis; los modernos, analíticos como la ciencia, que es un grande análisis. – El idioma vasco es rico en inflexiones que expresan imperceptibles matices de la realidad; pobre, pobrísimo en voces y giros que expresan los sutiles derroteros de lo ideal”²⁵⁹. Unamuno-k arrunt zeukan tresneria teorikoaz hizkuntzen tipologia eta balioespen hauetarako (bere esperientzia pertsonala aparte, euskararen ezagutzaille eskasa zen aldetik, eta segitzen zituen maisuen aldetik berdin), ikus bedi aipaturiko X. Kintanaren artikulua²⁶⁰. Esan beharrik ez –ikus, berriro, Kintana–, gaurko linguistikan ez dela hizkuntzen berezko “barne gaitasunez” eskema horiekin juzgatu ohi.

Alta, euskararen pobre eta trakestasunaren behaketatik (hori teoriko hutsa – “teorian”!), uztagun hiltzen edo hilaraz dezagun praktikora, hautu baten jauzi kualitatibo dago –salto mortal logiko bat–, hautuak barnebiltzen duen arrazoi-mundu linguistiko, politiko, humano artzakonplexu guztiarekin (S. Mitxelena-kerderki hustiatu duena). Bestalde, filosofiatik begiratuta, Unamunoren traiektorian doigabetasun logiko deigarri bat dago afera honen inguruan, ene ustean oraindik aski argitu ez dena, eta argitzapena, nik uste, politikoa duena, ez filosofikoa. Alegia, 1897 aurretik Unamuno positibista/zientista izan da gehienbat bere argudiamoldeetan. Baina justu orain, bera positibismo eta razionalismoa destainatzen ari da, erre kara botatzen modernitatea, progresoa mespretxatzen (“el campesino del Toboso que nace, vive y muere ¿es menos feliz que el obrero de Nueva York? ¡Maldito lo que se gana con un progreso que nos obliga a emborracharnos con el negocio, el trabajo y la ciencia, para no oír la voz de la sabiduría

259 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 58. Ib., 71 or., bere tesi doktoraletik (1884) kopia tzen du: “el euskera es pobrísimo en voces significativas de objetos espirituales o suprasensibles, y hasta carece de términos que expresen ideas abstractas. Árbol en general, planta, animal, color, son voces que en vano se buscarán en el léxico puro euskárico, cuanto menos alma, inteligencia u otra análoga”.

260 Orobat, RIBAS, P., aip. lib., 23 eta hurr., 26 eta hurr. HUIZI, P., “Hizkuntzalaritza eta psikologia: Wundt en garaia”, in: *Gogoia* IV-2 (2004) 267: “August Schleicherrek, mendear en erdialdeko hizkuntzalar en nagusiak, 1850ean argitaratu zuen Europako hizkuntzen gaineko monografia batean, argi eta garbi aitortzen zuen hizkuntzak berarentzat organismoak zirela, organismo guztiz naturalak, eta hauek deskribatzeko terminorik egokienak biologiatik hartutakoak zirela, hala nola, «generoa», «espezia» eta «barietatea». Geroago, Darwin en eboluzioaren teoria hartu zuen hizkuntzak aztertzeko. Bere *Die Darwinische Theorie und die Sprachwissenschaft* (Darwin en teoria eta hizkuntzalaritza) liburuan egin zuen hori, 1863an. Liburu horretan batere erreparorik gabe esaten zuen hizkuntzak «organismo naturalak» direla, «giza nahiak esku hartu gabe sortu, lege jakin batzuen arabera garatu, zahartu eta hil egiten direnak”. Gramatikari gazteen –“Junggrammatiker”– kritikak Schleicher-en planteamoldeari, 270 eta hur. Unamunoren biologismo eta “darwinismo lingüístico”az, oso ongi, ik. EREÑO ALTUNA, J. A., “Remitidos polémicos. A propósito de la conferencia de Unamuno en *El Sitio*, el año 1886, «Orígenes de la raza vasca»”, loc. cit., 111-115.

eterna”)²⁶¹, intelektualismo “transpirenaikoa” erdeinatzen, Espainiari lehenago berak aldarrikaturiko europeizazioaren lekuan balio eternal erlijioso eta mistikoetara hots egiten, Descartes baino San Joan Gurutzekoa lehenesten, etab. 1901 Kierkegaard estudiatzen hasi den urtea da, eta 1900 “¡Adentro!” artikulua²⁶². Eta, positibismo hastanduen ezorduko eztanda baten antzera, orduantxe pasatzen da Unamuno, lehenago euskararen pobretasuna teoria jakin bateko filologo gisa analitikoki egiaztatuzera zuhurki mugatu izatetik, mintzaira horren abandonoa gudakoiki Bilbon aldarrikatuzera, eta hain zuzen modernitatearen eta progresoaren izenean hori (“resignarnos al progreso”, “acatando el progreso”)²⁶³. Galdera, horretarako Unamuno-ren arrazoiena da. Ez bakarrik Unamuno-ren arrazoiketaren ilogikotasun posiblea garai hartako bere beste arrazoimoldeekin (hori ezin zaio Unamuno-ren ezein irakurleri gehiegi interesatu), ezpada ilogikotasun horrek Bilbon erakutsi duen agresibitatearen arrazoa. Badago Unamuno-ren gutun bat zenbait kazetari katalani, asko ezagutzen ez dena, eta argi eman lezakeena haren motiboei buruz. Hona hemen *Noticiero Salmantino*-k 1901. 09. 20an inprimatu bezala:

“Varios redactores y colaboradores de *La Publicidad* de Barcelona, que felicitaron al señor Rector de la Universidad de Salamanca por su valiente discurso en los Juegos Florales de Bilbao, han recibido del señor Unamuno la siguiente carta, que publica el número de aquel periódico llegado hoy a esta capital.

Dice así:

Salamanca, 14 Septiembre 1901.

Señores don Daniel Ortiz, Valentí Camp, Roselló, Corominas, Miquel, Miró, Costa y Jordá.

Mis muy estimados amigos: Mil gracias por su telefonema del 31 del pasado. Me han animado en la batalla las voces de lo más granado y culto no sólo del resto de España, sino de mi misma querida tierra vasca.

Cumplí sencilla y serenamente con mi deber, diciendo lo que creo ser la verdad.

He visto que a algunos no les ha parecido bien ahí, en Cataluña, lo que del vascoence dije. Es sin duda ignorancia de la cuestión. No se trata del punto general

261 RIBAS, P., aip. lib., 92. Ik. 91-94 osoa. Alderantziz euskararekin, ik. UNAMUNO, M. de, OC, I, 1060: “al que se resiste a la cultura no le dejan gozar de su felicidad, si es que la hay en la ignorancia consentida y vencible”. “El valor moral consiste en saber plegarse a la ley de la vida, y en saber sacrificar a la razón y las exigencias vitales los más caros sentimientos” (“La cuestión del vascoence”, 1902).

262 UNAMUNO, M. de, OC, I, 947-953. Ikus, orobat, bertonek: “La ideocracia” (1900), 954-961; “La fe” (1900), 962-970. Eta, are gehiago, “La vida es sueño. Reflexiones sobre la regeneración de España” (1898), 940-946.

263 *Ib.*, 1004.

de si conviene o no el mantenimiento de las lenguas y dialectos regionales frente a un unitarismo abstracto y jacobino. Dése a este punto la solución que se le dé, en el caso concreto del vascuence resulta que éste se pierde sin remedio y nos conviene a los vascos que se pierda, porque por su índole misma es tal idioma un obstáculo para la difusión de la cultura (tengan en cuenta que lo hablo). Si yo fuese catalán, sería partidario tal vez de la conservación de la lengua catalana (lo sería de seguro), aun siendo anticatalanista, pero hay que saber, como sé yo, el vascuence para comprender que nosotros no podemos pensar lo mismo. Hay que resignarse al progreso, aun sacrificando sentimientos hondos. Además, el fondo de la cuestión se encierra en esta frase de un cura desde el púlpito: «no enviéis a vuestros hijos a la escuela que allí les enseñan castellano, y el castellano es el vehículo del liberalismo». Aquí está todo. El bizkaitarrismo no es más que un movimiento anti-liberal, la reacción de la España medieval contra la moderna²⁶⁴.

Y de todos modos el primer deber es decir siempre la verdad; oportuna o inoportunamente como decía San Pablo, desnudar el alma, ser absolutamente sincero. La hipocresía y la cobardía moral nos tienen perdidos.

Gracias de nuevo por su telefonema, que tanto me alentó por venir de la redacción de un diario a que me he aficionado y cuyo espíritu me es altamente simpático (en el rigor etimológico de este vocablo).

Y ahora a trabajar todos por la verdad, la justicia y el progreso.

Les saluda cordialmente y se les ofrece de todas veras su amigo”²⁶⁵.

Halaber, Lore Jokoetako erasoaren egiazko zioa honela adierazten du Unamuno-k berak Madrilgo *El Imparcial*-en emaniko jarraipenean “El bizkaitarrismo y el vascuence” izenburuaz: “Era y es preciso agitar el bizkaitarrismo y ponerle en tensión, obligándole a vivir vida agitada e intensa, pues cuanto más tirante viva, antes se le acabará la cuerda; lo peor es dejarlo que se duerma y prolongue así una

264 Kuriositate bezala bakarrik notatuko dut, R. de Maeztu-k, Unamuno-ren Lore Jokoetako diskurtsoaren iruzkin panegirikoan, beste hauxe adierazten duela, salaketa gogorra izan nahi duen pasartean gainera: alegia, “aunque parezca paradoja”, “bizkaitarrak” liberal foralisten haurrak baino ez direla. “Anoche, mientras el abogado burgalés señor Vega de la Iglesia, iniciador de los Juegos Florales, pronunciaba un discurso cantando las excelencias consabidas del noble solar, el árbol, las veneradas tradiciones, etc., etc., pensábamos en que hubo tiempo en que todos los diarios de Bilbao, *El Noticiero*, *El Porvenir Vascongado*, *El Nervión*, *La República*, *El Diario de Bilbao*, *El Vasco*, *La Cantabria* eran dirigidos por periodistas de fuera del país. El artículo de fondo decía, cualesquiera que fuese la índole del periódico, las mismas cosas del señor Vega de la Iglesia; era una adulación incesante, un día y otro, años enteros, lo que leía la gente, repetido en las conversaciones particulares. Así se fue formando la bola de nieve. «Cuando lo reconocen los de fuera, ¡nuestro mérito debe ser extraordinario!», pensaron los lectores de periódicos que nunca leyeron otra cosa, – y aquel día apareció el bizkaitarrismo”, cfr. UNAMUNO, M. de, OC, IV, 249.

265 NÚÑEZ, D. – RIBAS, P., aip. lib., 174-175.

vida latente. Por eso, más que por desuso, ha de gastarse en contradicciones y no con complacencias ni fingidos desdenes”²⁶⁶. Eta: “El bizkaitarrismo, como otros movimientos análogos, tiene una fe, basada en errores si se quiere, pero fe al fin y al cabo, y una fe sólo se cura con otra. Lo he dicho antes de ahora y lo repito: no mata el error, sino la mentira. Y hubiera sido en mí una mentira tácita el hablar en los primeros Juegos Florales de Bilbao, mi pueblo, y no decir nada del bizkaitarrismo, y no oponer a su fe otra fe, como hice, mi fe en el porvenir de mi propia casta vasca”²⁶⁷. Hizkuntzaren beraren ahalgabetasuna gorabehera, “el fondo de la cuestión” bizkaitarrismoa da, beraz. Edo hobeto, esango nuke, Unamuno-k orain daukan bizkaitarrismoaren pertzepzioa. Izan ere, batetik, ez dirudi 1901eko bizkaitarrismoak, eta preseski alor linguistikoa, kanpaina iraultzaile (?) bati ekiteko aski justifikazio eskain zezakeenik, Euskal Herri osoari begira gainera. Gero, Unamuno-ren arrazoiketa kazeta baterako gutun bat besterik ez da, eta ez dago estuegi hartzerik; baina arrazoitzeko ailegatzen duen hori, ez dakit zein Basaburutan ez dakit zeinek esan omen duen ez dakit zer, anekdota pintoreskoa da, ezen ez argumentua, higatutxoa balia-bidea, zuri-bide politikero gisa ere xahar eta txarra²⁶⁸. Bestetik, beraz, kasu ailegatuarekin jarraitzeko, apez sermolaria “bizkaitarra” [Arana Goirizale edo jeltzale] zela, Unamuno-k ez dakit nola jakingo zuen (“ETAko apaiz” askotxo eta are Gotzainen bat ezagutu zaharrak ez gara): data horietan apezak, bizkaitarrak baino errazago, karlistak izaten baitziren. Eta, karlistak ala bizkaitarrak izan, apezak antiliberalak baldin baziren, halaxe ziren orobat 1887ko Unamuno bera “Espíritu de la raza vasca”n eta 1897ko Pachico [Unamuno] *Paz en la guerra*-n. Eta, dena den, Lore Jokoak ez apaizenak eta ez bizkaitarrenak ziren. Hori da, beraz, galdera: bitartean zer aldatu den. Eta aldatu den lehen-lehenbizikoa Unamuno da.

Lehen, Unamuno-ren bisioan, iraganaldi uherra –Estatuak, gerrak, joputzak– desegiten eta gainditzen, etorkizun arras garden batera bokaleratzen ikusten zen. Eta han, Herder biziki gogoratzen duen ikuskari batean, ez separatismoz, baizik herrien askatasunaren garapen naturalez, gainditua gaurko liberalismo jakobinoa ere²⁶⁹, Euskal Herriaren independentzia ikusten zen, hots, euskaldun bakoitzarena eta guztiena, eta euskaldunen herriarena (ez euskal Estatu bat, ezta Zazpiak Baten Kon-

266 UNAMUNO, M. de, OC, IV, 251 (“El bizkaitarrismo y el vascuence”, 1901. 09. 30).

267 Ib., 252.

268 Baina urtebete geroago eta *La lectura*-n errepikatu egiten du, ik. UNAMUNO, M. de, OC, I, 1060.

269 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 69: “Todo español debe rechazar el nombre calumnioso de separatista. En España no hay separatistas, ni los habrá jamás, si no los hacen los ciegos adoradores de la centralización brutal. ¡Libertad! Libertad! Libertad para el hombre de pensar, de asociarse, de cultos; muchas libertades son y, en cambio, regatean la libertad a los pueblos”.

federazioa ere²⁷⁰, baizik Estaturagabetasunean herrien elkartasuna)²⁷¹, askatasun indibidualak eta nazionalak bat egiten zutela. Mundu aske batean Euskal Herri askea, eta askea euskaldun bakoitzaren kontzientzia. “Pedid el reino de la libertad, de la libertad individual, y todo lo demás se os dará por añadidura” (1887)²⁷². Hori izan da Unamuno-ren utopia, bilbotarra gazte eta “progresista” zenean, h. d., kritikan eta arrazoian sinestuna: zientziak eta aurrerapenak gerraren eta Estatuaren gaindipena zekarten, herri guztien elkar osagarritasuna, komertzio libre, eta askatasun eta anaitasun unibertuala²⁷³. Bitartean, ordea, Salamancan, krisi erlijiosoak pitzatua, filosofia positibistatik kontrarioa konbertitu den bezala (existentzialismorantz, formula labur batekin esateko), Unamuno etorkizunetik ere iraganera konbertitu da, historia progresista eta aitzinaketariaren apar eta zirimoletatik intrahistoria isilgeldira, utopia historiko guztietatik salbaziozko esentzialismo katoliko eta espainolera. Espainiaren kontzeptu batetik bestera etorri da era berean. Salamancako bere pasieretan hurbildik ezagutzen eta maitatzen ikasi du Gaztelako jende eta lurraldeak, populu horren kultura, hizkuntza, erlijioa (erlijioa da horren “forma suprema de la cultura”). Eskolatu gutxi batzuk salbu, europartuak, jende xume hori guztia, analfabetoa gehien-gehienbat, “un desesperante marasmo” dela ohartu dizu, inkisizioa barneratua duen “páramo espiritual de una aridez que espanta” (*Entorno al casticismo*, “Sobre el marasmo actual de España”). Herri espainol horren arima, ikusi dizu, kateatua dago, joputza moral eta izpiritual zeharokoan, kontzientzien askatasun arrastorik gabe (“aún hay hoy menos libertad íntima que en la época de nuestro fanatismo proverbial”)²⁷⁴; ez etorkizun berri baten atarian, iragan ilun baten lauzapean baizik. Kontzientzia supiztu zaio, bere misioa herri hori astindu eta iratzartzea eta askatzea dela. Iragan astun horren petik askatzeko, kultura da zereginik premiatsuen: “nuestro deber es buscar el reino de la cultura, y lo demás se nos dará por añadidura” (1902)²⁷⁵. Baina hori jada ez da etzango herria pentsa-

270 Ib., 79.

271 Ib., 56: “(...) así como el hombre busca en la mujer y en el hombre la mujer lo que les falta, formando el verdadero individuo humano que decía Michelet, vendrán unas razas a completar a otras y completarse en ellas, y a formar en un abrazo íntimo la gran familia humana que ha de inaugurar el reinado del espíritu. – Nadie tiene que renunciar a lo propio para gozar de lo ajeno; la integración viene después de la diferenciación; la división del trabajo es anterior a la asociación cooperativa. Estos unitaristas que sueñan con la unidad impuesta de la fuerza...”

272 Ib., 80.

273 AZURMENDI, J., “La revelación que me fué la historia”, in: *Enseiukarrean* 14 (1999) 25-79.

274 UNAMUNO, M. de, OC, I, 866.

275 Ib., bol. IX, 75. “La enseñanza arrastraba vida lánguida (...). En 1887, el 71,5 por 100 de los españoles no sabían leer ni escribir (81,16 entre mujeres). En 1900, el analfabetismo había descendido tan sólo al 63,79

mendu kritiko eta razionalista arrotzez europartzean –bere estudiante garaiko krau- sisten programa izpiritu hartara itzulia baita substantzialki–, baizik Espainia bere bai- taratzean eta bere-bere balio eternalak, bere barnekondo sakonean lokartuak, berbi- ziaraztean (“el porvenir de la sociedad española espera dentro de nuestra sociedad histórica, en la intra-historia, en el pueblo desconocido” – oroit Michelet, etc., herriaren mistika frantsesak). Herria estudiatu behar da –Costa-k egin duen bezala, esaten du–, eta bere eskolan eskolatu, landu. Ordea, hori egin behar duena eta egin dezakeen bakarra Estatua da (ez Eliza!, hain zuzen makaltasun espainolaren erant- zulea bera da)²⁷⁶, eta, “cirujano de hierro” bat gogoko ez duen arren (oraingoz!), kulturaren izenean Unamuno Estatu sendo, herri arazoetan zuzenean eskuhartzaile baten abokatu bilakatu da: Estatua salbatzailearena – “el Estado docente”! Are, Espainia modernotzeko, Estatua bera behar da modernotu; eta modernotzeko, zen- tralizatu eta sendotu.

Pentsalari konbertitu antimodernoaren Estatu irmo eta modernoazale izate hau ez da Salamancako errektore beti paradoxal kontsideratuaren paradoxa bat gehia- go, eta bai kopia bat edo jarraipena soil, tenore horretantxe, XIX. mendearen hon- darrean, karakteristika berberekin Frantzia agitzen ari den lerrakuntzarena eskuin patriotarantz. Unamuno-rentzat lehen “separatistimorik” ez zegoen: haren orduko historiaren filosofiarekin –eboluzionista eta positibista–, Estatua eskualde guztiek, denen artean, askatasunerantz gaintitu beharrekoa baitzen (foralismoa, “kantonali- smoa”, etab., ez ziren, hortakoz, separatismoak)²⁷⁷; “razionalismo estuko” filo- sofia hori gaintituz gero, konbertituaren oraingo “historiaren filosofia gabeziare- kin”, aldiz, Estatua denen artean sendotu beharrekoa da (Elizaren ordeztako Eliza bat!), Estatuak altxa dezan herri eroria; eta orain su eta fu borrokatu beharra dago “separatismoak” oro, heresiak pertsegitzen diren bezala. Unamuno hau da, herri espainol intrahistorikoaren erredentore, eta horren salbazioaren amorez Estatu oli- garkiko eta zentralistaren apostolu bilakatua, Bilbora etorri dena – ez Lore Jugla- re, baizik aita misiolari (“apostolu zibila”). Orain, Espainiaren bere ideia eta sen-

por 100”; ik. TUÑON DE LARA, M., *La España del siglo XIX*, Bartzelona 1975, 95-96. 1900ean Hego Eus- kal Herrian analfabetismoa %29 zen, eskerrak eskola Udalen eta Diputazioen ardura zela: gobernu espainol “liberalak” eskola horiek estatal zentralizatuak bihurtu ditu, Euskal Herri “atzerakoia” modernotzeko.

276 1900ean, bigarren irakaskuntzako 59 Instititu zibil bakarrik zegoen Estatu espainol guztian versus 504 Elizarenak. Unibertsitatean, Elizak ontzat ematen ez zuen doktrinarik, ezin irakatsi zen (horregatik Madril- go Ateneoa etab.ren garrantzia, ideien askatasun gehixeagoren eremu bakarrak).

277 “Es un deber esperar que un día, rota toda presión impositiva y autoritaria [Estatua], concuerden las patrias chicas todas en la gran Patria humana, la Humanidad misma, asiento del amor fraternal...”, ik. OC, I, 979 (“La crisis del patriotismo”, 1896).

timendu berrian (min degio Espainiak!), min degio, bizkaitarrismo politikoak ez ezik, euskararen edozein lanketak ere (Lore Jokoak!). Izan, Unamuno-k berak erakusten du (erreakzioak aintzat hartzeke ere, aldekoak bereziki), “el fondo de la cuestión” ez zela euskararen izpiritua, hizkuntzarena, hori bere izaeraz beraz kamutsa den ala ez, eta bai bizkaitarrismoaren edo espainolismoaren izpiritua²⁷⁸. Eztabaidan, euskararen ahal edo ezinmenak baino sakonago, Estatuaren erdua dago. (Ailegatu, Unamuno-k, liberalismoaren defentsa ailegatu ohi du, orainago beste batzuek Konstituzioaren defentsa ailegaten duten legez). Eta Unamuno-ren tesia, Renanena bera da bretoierari buruz, eta anitz gehiagorena egun haientantxe Bilbon bertan²⁷⁹; Austria-Hungariako alemanek erabili zuten bera txekieraren aurka, etab., tesi “ilustratu” klasikoa (jakobinoa): progresoaren hizkuntza Estatuaren hizkuntza bakarrik dela. Euskararen aurkako oldar politikoak bai Espainian eta bai Frantzia askoz lehenagokoak dira Unamuno baino. Bilboko Lore Jokoetan Salamanca-ko Errektoreak burutu duen jukutria originala izan da –berria ez bazen, berak jada kontsokratua utzi duena betiko–, euskararen arazoa, jendaurrean bere autoritate guztiarekin zinez linguistiko eta zientifiko hutsa balitz bezala planteaturik, arazo politikoaren izaera guztiz ezkutatuz politizatzea guztiz. Euskararen ahultasunaren edo heriotzaren erruduna, euskara bera da; heriotza ere ez da heriotza, berpizkundea baizik beste izpiritu batean; eta borraroa jada ez da exekutatu bat, eta bai salbatzailea. (Jarraitzaileen eskolak ez, jarraitzaileen elizak segitu dio). Hau dena, historiaren bere ikuspegiari bildurik dago.

Joan-etorri bat bidean egin beharrean gara, hortakoz, arazo guztian korapilatuturik dabilen historiaren filosofia esplizitatu gabeko hori agerian jartzeko eta xehekatzeko. Izan ere, Unamuno-ren jarrera berria euskarari buruz guztiz ulertzeko, historiaren pentsamendu berriaren barruan ulertu behar da hori, historiak haren diskurtsoan dauzkan lau maila elkarlotuetan: historia pertsonala eta unibertsala, Espainiako historia eta Euskal Herrikoa, hauek denak berak 1901ean ikusten dituen legez. Euskarari buruzkoa (goian aldaturiko atala) Lore Jokoetako diskurtsoaren hamarre-

278 Pio Baroja-k, adibidez, euskarak hizkuntza literario eta zientifiko gisa ez duela balio uste zuen, ik. TORREALDAI, J. M., aip. lib., 47; baina ez zuen pentsatzen hil egin behar zuenik (ez zuen nahi hil zedin). Errusia edo Austria-Hungariako Inperioei begiratzea aski zen, printzipioz posibilitatea ikusteko –orduan!–, hizkuntza bat ahozko hizkuntza gisa ederki bizi zedin, eta ez izan literarioa. Menéndez Pidal-ek, Areilza-k, etab., espainolista seguruak, irtenbide holakotsu bat iradoki izan dute. Unamuno-ren espainolismoak ez zuen hori ere onartzen, eta galdetu beharra dago, beraz, zergatik.

279 Ik. *La lucha de clases* aldizkari sozialistan (1899): “(...) quisiéramos un Gobierno que prohibiese los Juegos Florales, donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional...”, in: TORREALDAI, J. M., aip. lib., 42.

na ere ez da. Ataltxo hori testuaren osotik bakanduz, horren zentzua ere itxuragabetzeko arriskua dago.

Diskurtsoa, diosaleko lehen hitzak, historia pertsonalaren errepasso batekin hasten da: “al cabo de cinco años de ausencia...”. Sorterriari eskerrona: “debo a Bilbao la raíz de mi espíritu”. Baina kito; Bilbo sustraiak baizik ez da: “Desde hace diez años que me llevó la fortuna a otras tierras, ¡qué de cambios en Bilbao!; y en mí mismo, ¡qué de cambios! (...)”. Joanak joan. Orain, goazen etortzekoaz elestatzera: ez dauka zerikusirik joanarekin. “La fortuna me llevó a Castilla; cinco de mis hijos han nacido allí, allí se han criado todos. Allí contemplando el reposo de la austera llanura, llena de cielo...”²⁸⁰. Unamuno-ri, Bilbok eta Euskal Herriak eman ez ziona, Gaztelak eman dio. Ez katedra bat soil: onarpen aiterra eta ohorea (Salamanca-ko errektore da); entzutea eta arrakasta, Espainian ez ezik, Latinoamerika guztian; tribuna bat zabalik mundura prentsa eta konferentzia bidez; ezagumendu nazional eta internazionala. “De mi Vizcaya, de mi Bilbao, la simiente; de mi Castilla, de mi Salamanca, el fruto”²⁸¹. Mezua: irten beharra dago Euskal Herritik, munduan arrakasta izateko. Historia pertsonal hau esperientzia partikular bat da, ez filosofia bat. Baina Unamuno-k Euskal Herriko historiaren –etorkizunaren, baina baita iraganarena ere– paradigma moduan erabiltzen du diskurtsoan: “Ni soy yo solo quien a aquella noble tierra debe tanto; débele también este mi pueblo; le debe nuestra tierra toda”²⁸². Eta hala, Unamuno-ren arrakastaren historia Bilboren eta Euskal Herriaren arrakastaren historia dela saiatzen da erakusten.

Unamuno-k orain dagien historiaren irakurketan, Euskal Herriko eta Bilboko historia Gaztelari zor zaio: Euskal Herria historian sartu, bandokideen gatazkekin sartu da, eta “de tan tormentoso estado no se salió hasta que, viniendo en 1457 Enrique IV de Castilla en persona, extrañó a los banderizos”²⁸³. Bilboko portua eta hiribildua “la natural abastecedora de las Castillas” da²⁸⁴, bere oparotasuna Gaztelari zor dio. “La historia toda de Vizcaya es una larga contienda entre la tierra llana y las villas, entre el labrador y el mercader” [Spencer beti! Ikus nola Hegel edo Marx-ek ez duten Unamuno-ren historiaren filosofia, Euskal Herriari dagokion bezainbatean bederen, axalgainetik busti ere egin]; eta borroka etengabeko horretan beti, Zamakoladan, karlistadetan, “Bilbao, con el apoyo de Castilla, de toda España, se

280 UNAMUNO, M. de, OC, IV, 237.

281 Ib.

282 Ib.

283 Ib., 238.

284 Ib., 238, 239.

ha impuesto”; hots, Euskal Herrian merkataria, progresoa, Gaztelaren laguntzarekin bakarrik nagusitzen zaio laborari atzerakoari. Ematen du, Euskal Herriak kalamitateak eta gerrak sortu besterik ez duela egiten; eta gero Gaztelak laguntzen dio irteten eta aurrera egiten. “Tal ha sido nuestra historia”, “esta nuestra villa, apoyada en la Corona de Castilla y en la nación toda española, lleva no ya a Vizcaya sólo, sino al pueblo vasco todo, a su más alto y noble destino, a la conciencia de su misión histórica”²⁸⁵. Patu hau eta Euskal Herriaren misio historiko hau, diosku orain (Gaztela ahaztuz bezala!), bere balio aparta –euskal arrazarena– historia unibertsalean erakustea da. Literarioki Unamuno-k plano historikoak lotzen dituen bezala, bere esperientzia pertsonala, Gaztelara irtenda erreusituz, Bilboko historiaren paradigma da; Bilboko historia, Gaztelak lagunduta erreusituz, Euskal Herriko historiaren paradigma. Eta, halaber, Unamuno-ren esperientzia pertsonala, euskal historia etortzekoaren paradigma historia unibertsalean.

Diskurtsoan, egon, historiaren irakurketa konkretua dago: berak egiten duen Espainia eta Euskal Herriko historiarena; historiaren filosofiarik zentzu hertsian, unibertsalean –Ortega-k duen bezala, esaterako–, ez dago. (Ortega filosofoa da; Unamuno literato bat, informazio filosofiko handiarekin). Baina badago, ezkutatua; h. d., operatu, erakusten ez den historiaren filosofia batekin operatzen da; eta ikusten ez den historia (unibertsal) horrek paper ezkutu erabakigarria jokatzen du diskurtsoan. Unamuno, bere eboluzioen piririkan, gaztetxotako bere historiazale-tasun foralistaz gero (“erromantikoa”, esango du berak)²⁸⁶, laster positibismora konbertitua, historiaren filosofia spencertarraren jarraitzaile izana da, gero hegel-darra-edo, gero marxista edo sozialista ere izana, orain hori dena gainditu eta filosofia berri oraindik definigaitzetan murgildua dago. Baina historiaren filosofia horien aztarnarik ere ez da sumatzen konferentzian, hasmentako Spencer-en hondarren batzuk ez bada Bizkaiko historiaren interpretazioan (oraintxe ikusia duguna), eta –inportanteagoa– historiaren helmuga unibertsalistaren diskurtso hantua (Marx-ekin ere agian ezkon litekeena), substantzialki erlijioso kontsideratzekoa filosofikoa adina. Hemen, alabaina, filosofia bat izatera iristen ez den filosofia hori, ideologia bete-betea da, adierarik txarrean, errealitatearen egia sinplea bozaten duena; eta, euskaldunen gorespenezko loreen pean, arma bat Unamuno-ren diskurtsoan. Unamuno-k jaulkitzen duenez, historia gizadiaren erai-kuntza da, baina ez –Hegel-engan bezala– Estatuetan eratua gelditzeko, baizik azkenean gizadi osoak –herri guztiek– bat egiteko. Beraz, predikatzen digu Una-

285 Ib., 239.

286 Ib., 135: “(...) hace mucho tiempo que dejó los entusiasmos románticos”

muno-k, behar da txokotik irten, geurea gainditu, mundura zabaldu, gizadigintzan kolaboratu. Hori omen da euskaldun jatorrak –“vasco universal”!– egin ere beti egin duena. “Raza, sobre todo, la nuestra, de expansión y compenetración; raza difusiva, en ósmosis y exósmosis perpetuas, vitalizadas. Nuestros hombres representativos son: Elcano, dando el primero la vuelta al mundo, no [!] a Vasconia; Legazpi, ganando las islas Filipinas para la civilización [?]; y, sobre todo, Ignacio de Loyola, fundando una Compañía universal, por encima de las patrias todas (...). Y ved más cerca al bardo, a Iparraguirre, al gran arlote, que a los trece años salió de casa y recorrió, trovador y errante, Francia, Inglaterra, Suiza, Portugal, para ir a entonar sus cantos en las pampas argentinas, a que se cernieran en el follaje del ombú ecos del recuerdo del roble patrio” [“zibilak esan naute”rik ez!]. “Ved nuestro verdadero campo de acción: América, aquella América española, crisol de síntesis orgánica de pueblos, cuya principal metrópoli, Buenos Aires, fue por nuestro Garay fundada; (...), Bolívar, que llevaba sangre y apellidos vascos...”. Egiten da, Elkano-k, etab., edo San Inaziok, historia unibertsalari zuzenean zerbitzatuko baliote bezala, ez interes partikular eta erakunde konkretu guztiz jakinei, hain zuzen beste interes eta beste erakunde jakinen aurka. Eta egiten da, etxean gelditu eta olan edo basoan lan eginez, gutxienez beste hainbeste zerbitzatuko ez balitzazio bezala historia unibertsalari. Gizadia eta historia unibertsala deitzen denak, gizon-emakume konkretuen gizadi erreala eta horien historia erreala ezkutatu eta ukatu egiten du, ideia handiputzen berbapean. Ele kontzeptu loratsuen azpian ezkutatu egiten da, euskaldunek euskara laga eta espainola hartuz, etab., progreso, munduaren batasun handirantz “por encima de las patrias todas” gabe, bakar-bakarrik Espainiaren, eta gehienez ere hispanitatearen batasun handirantz egiten dela. Halakoxea da Unamuno-ren ebanjelioa euskalindioei: “Si queremos hacer valer nuestra personalidad, derramémosla estampando un sello a cuanto nos rodea. Hagamos como a quien le sobra. Gran poquedad de alma arguye tener que negar al prójimo para afirmarse²⁸⁷. Oponen en Inglaterra al pobre sentido de la *little England* el vasto imperialismo del pueblo que habla inglés, *the english speaking Folk*; tengamos también los vascos nuestro imperialismo, un imperialismo sin emperador [besteren inperatoreaz, baina hizkuntza ere besterenaz!], difusivo y pacífico, no agresivo y guerrero. Rebasemos la patria chica, chica siempre, para agrandar la grande y empujarla a la máxima, a la única, a la gran Patria humana. Y si un vasco fundó la Compañía de Jesús, contribuyamos nosotros, su casta, a fundar la Compañía del

287 Esaldi hau, geroago, abertzaletasunaren aurka esandakotzat erabili izan du, baita idazle latinoamerikarren abertzaletasun antiespainolaren aurka ere.

Hombre”²⁸⁸. Euskaldunaren eginkizuna mundu berria eraikitzea da (ez da esaten: Espainia berria eraikitzea – hemen inor ez da nazionalista espainola); mundu berria eraikiz, euskalduna bera ere berri-berria sortuko da. “Y así acabará de surgir de su larga prehistoria [euskaldunak, berak bakarrik, historiarik ez du; historian sartzeko, inoren historian barrena sartu behar dizu] el vasco universal²⁸⁹, el ultra-vasco si queréis, que aquí, sobre todo, se elabora. Porque Bilbao es hoy en España, a la vez que el foco del despertar económico, el de los más generosos ideales de redención social, el núcleo más sólido de las doctrinas más humanitarias y universalizadoras [sozialismoa]”²⁹⁰. “Y ahora, al terminar este acto de los primeros Juegos Florales de Bilbao, saludemos a las castas [arrazak] y regiones todas que componen la común patria histórica, España, y a los pueblos todos que en ambos mundos, en robusto romance castellano, sus pensamientos encarnan; hagamos votos porque este nuestro pueblo vasco, vertido en la gran raza histórica de lengua española [!], raza en vías de formación, sea mañana en ella fermento que a la máxima familia humana, suprema y una, la levante, y pidamos que el arte guíe a la industria y al comercio a la conquista de la sociedad futura, en que, comulgando todos los hombres en un solo espíritu, sean común la tierra, el trabajo libre, le ley interna, la paz perpetua, la fe pura y la vida obra de amor, bajo un cielo ideal, de verdad, de bondad y de belleza. He dicho”²⁹¹. *Labur: euskara baztertzeko egiazko arrazoia da, unibertsala izan behar dela, eta ezin dela unibertsala izan euskararekin. Unamuno-ren diskurtoan hau da, eta hauxe bakarrik, axioma bat bezala, zinezko eta lehenengo zergatikoa euskararen hastantzeko. Eta bigarrentiarra bakarrik, hots, premisa hori suposatuz bakarrik balio duena, euskararen berezko ezgaitasunaren arrazoi gehigarria, edo –ezgaitasunaren arrazoi hori arrazoitxo ezberdin gehiagotan laurgitzen baita– arrazoi gehigarri honen beste gehigarriak (hizkuntzaren txikia, ezerengabetasuna, etab.).*

Unibertsaltasuna bera zertan datzan ez dakigu garbi, baina gutxi gorabehera handitasuna, arrakasta, ospea, garaipena, boterea eta holakoak da nonbait derrigor; askatasuna eta holakoak, ez.

(Unibertsaltasunaren tokian progresoa ere esan liteke, Unamuno-k maiz balio berarekin erabiltzen baitu. Baina unibertsaltasunak aurpegi osoki positiboa duen

288 *Ib.*, 240. *Ik.*, 244: “Si no queréis ser invadidos, invadid; si no queréis que se os absorba, absorbed; todo menos cerrar las valvas y permanecer aislados. No guardéis una absurda virginidad de raza que nos prive de la maternidad, de la paternidad más bien”.

289 “Vasco universal” euskaldun deseuskaldundu, espainoldua da.

290 *Ib.*, 247.

291 *Ib.*, 247-248.

bitartean –gizakia zabaldu, aberastu egiten baitu–, progresoak jada garai honetan Unamuno-rentzat zentzu anbigua dizu, negatiboa ez denean –giza balio asko sakrifikatzen du–, eta hala nabaritzen da haren mintzamolde batzuetan: “Nos es menester, cuando menos, resignarnos al progreso, porque progreso es en este caso, para nosotros los vascos, el acabar de cambiar de lengua. Resignación al progreso...”²⁹². Unamuno konturatzen da, progresoarekin argumentatuz, berarentzat zoru labainkorrean mugitzen ari dela).

Diskurtso unibertsalista horren barruan euskararen arlora etorriko gara. Unamuno-k ez du noski dedukzio logiko baten maneran argudiatzen, eta bere argumentazioaren martxan, gero, zergatik ezin den euskararekin unibertsala izan, nabaritzen da, mahai gainean inoiz garbi aitortzen ez diren azpiarrazoi edo suposizioekin operatzen dela euskararen ezgaitasun frogan, inoiz iristen ez direnak arrazoi berezi eta beregainak izatera, baina arrazoiketaren lagungarri gisa dabil-tzanak, hala nola, (1) logika politiko edo politiko-linguistikoaren ildoan: Euskal Herriak, historian ibiltzeko eta unibertsala izateko, Espainiarekin bat egin beharra daukala (eta espainol gisa bai, unibertsala izan liteke); orduan, ondoriozkoa ematen du, Euskal Herriak beretzat Espainiako hizkuntza hartu beharra dauka, eta hori gaztelania da (ez katalana-edo, eta gutxiago ingelesa)²⁹³. Objektatzen bada uniformizazio linguistikoak kultura eta gizarte historikoen txirotzea dakarrela, Unamuno-k ez daki zer erantzun (objekzioa zeharo bere filosofia berrienaren logikan baitago)²⁹⁴, baina bera sinetsita dagoela ziurtatzen du, euskarak eskualdeko hizkuntza gisa ere ez daukala bizitzeko gaitasunik. Zergatik ez? Orduan barneko ezgaitasunera, arrazoiketa linguistiko-historikoaren ildora, pasatzen gara. Are, euskaldunek euskara baztertu eta osoki espainoldu beharra arrazoitzen da, esate baterako, elebitasuna ere praktikan ez omen delako posible; arrazoia eztabaidagarria begitandu dakiguke, zergatik ez da izango posible? Zein formatan bai, eta zeinetan ez? Unamuno-k orduan beste arrazoi batekin korapilatzen du: hizkuntza handi bat

292 Ib., 252. Ezin pasa gogoratu gabe Aita L. Akesolo-ren iruzkina: euskararena izan da “la única muerte que llegó a aceptar con total resignación”, ik. UGALDE, M. de, aip. lib., 144.

293 OC, I, 1062: “No falta tampoco quien diga en mi país que si se ha de morir el vascuence, adoptemos el francés o el inglés antes que el castellano (...). La cosa es tan risible que no merecería la menor atención, si no fuese porque envuelve un sentimiento despreciable y malsano...”. Baina hori barregarria, buruan posibilitate bakarra edukiz gero bakarrik da: Euskal Herria politikoki probintzia espainol bat dela eta izan behar duela; ez, adibidez, departamendu frantses bat izateko suposizioan; edo askea, eta euskararen orde z ingelesduna, edo elebiduna, etab.

294 OC, IV, 253-254: printzipioz, “si me propusiera la cuestión general de la conveniencia o inconveniencia del mantenimiento de las lenguas regionales, no sé cómo lo resolvería; probablemente la dejaría sin resolver después de examinar y analizar las caras todas del problema”.

mintzatzea abantailatsuagoa dela hizkuntza txikia mintzatzea baino. “Que se vaya hoy a los habitantes de la antigua Lituania y se les pregunte si quieren volver a hablar lituánico, dejando el alemán, y se verá lo que contestan. Así sucederá con los vascos de mañana, cuando hayan abandonado por completo el vascuence (...). A los que me digan que bien puede el pueblo vasco aprender castellano sin olvidar el vascuence, les diré que esto envuelve un cándido desconocimiento de la vida. Cuando sea el castellano la lengua corriente y usual, raro será el que se tome la molestia de aprender vascuence, que de no servirle para entenderse con sus hermanos, de poco o nada *útil* le habrá de servir; preferirá emplear ese tiempo y ese esfuerzo en aprender francés, inglés, alemán..., cualquier idioma. Y pensar que tenga el pueblo dos lenguas usuales, domésticas y para diario, es pensar una niñería”²⁹⁵.

Euskararen unibertsaltasunik edo modernitaterik ezinaren frogan, beste arrazoi modu batzuen ildo (2) linguistiko-historikoa da. Jada tesi doktoralaz gero, kultura modernorako euskararen berezko ezgaitasunaren arrazoi funtsezkoa horren natura eranskaria –aglutinantea– da, giza mintzamenaren garapideko estadio primitibo bati, ahalbide linguistikoen garapenean maila apal bati, dagokion izae-ratzat jotzen dena. Bitxiki, ordea, argudio esentzial beti ailegatu hori gero ez da behin ere zehazten. Euskaraz pitin bat idatzi duen nornahik daki, lexiko tekniko edo kultuak baino mila aldiz lan gehiago ematen duela joskerak, esaldiak, h. d., euskararen jariaera gramatikal ez indoeuroparrak. Baina euskararen ezgaitasuna frogatzeko Unamuno-k beti hartzen duen bidea txirotasun lexikalarena izaten da: gaur arte, Unamuno-ren adibideak izaten dira gehienak, gure lagun espainolek bilera guztietan atera ohi dizkigutenak, euskarak ments omen dituen kontzeptu kulturalen kasuak²⁹⁶. Honek zerikusirik ez du hizkuntza bat eranskaria edo malgukaria izatearekin, baina Unamuno-k beti esplizitatzen duen arrazoia hau da. Hots, ez hizkuntzaren egitamuarena, baizik historiarena. Izan ere, Unamuno-k euskarekin darabilen matrakaren arrazoia eta jomuga, azkenean da, euskaldunek isolamenduan (h. d., euskaraz: euskara berdin isolamendua) ezin dutela kulturarik eta historiarik izan eta ez dutela izan sekula, euskal kultura autoktonorik egon ere ez dagoela, eta kulturarik edukitzeko espainolei lotu behar dutela (euskara abandonatuz orain). Baina hau eztabaida hizkuntzaren naturatik hizkuntzaren historiara

295 OC, I, 1061-1062. OC, IV, 252: “(...) porque el vascuence y el castellano son incompatibles, y si caben individuos, no caben pueblos bilingües: es éste de la bilingüidad un estado transitorio”.

296 Ik. “Del elemento alienígena...”, in: OC, IV, 128 eta hurr. (“De las ideas universales”). “La cultura de un pueblo se mide más que por el número de objetos que conoce, por el grado de abstracción a que llega en sus ideas”.

(herriarena) pasatzea da. Horixe da Unamuno-k beti egiten duena, horrela agerira ateratzen zaiola ezkutuko bere egiazko motibazioa. Behin eta berriro, euskararen kultur ezintasunaren argumentua, euskal herri/arrazaren iragan historiaren argumentura itzultzen du (historia gabetasunera)²⁹⁷. “La civilización y cultura que hay en el país vasco son de origen latino”; “el idioma vasco lo era de un pueblo que antes de ponerse en contacto con los pueblos latinizados que le rodean vivía en un estado casi salvaje; no queda rastro alguno de civilización alguna indígena, que no ha debido de haber. Los latinos civilizaron a nuestros abuelos, y al civilizarlos les metieron con los conceptos y objetos de cultura las voces con que los expresaban”²⁹⁸. “Toda, absolutamente toda la civilización que poseemos los vascos se la debemos al cristianismo y a los pueblos extraños: ellos nos han civilizado”²⁹⁹. Hala sartuak dira berba erlijiozkoak: zeru, infernu, fede, gurutze, etab.; baina baita naturarentzako kontzeptu orokorrak ere (abstraktuak): gauza, arbola, abere, kolore. Honek frogatzen duena –pentsatuko litzateke–, doi-doi alderantzizkoa da logikoki: alegia, euskal arrazak (herriak) kulturarik ekoiztu ez badu ere berak, euskarak (hizkuntzak) gaitasuna baduela kultura espresatzeko, gutxienez besteri hartutakoa. Hizkuntzak ez luke arazorik, berriz ere hori egiten jarraitu nahi badu “kultur kontzeptu” famatu horiekin. Objekzioaz akordaturik bezala jarraitzen du Unamuno-k: “Y el vascuence permaneció siendo una lengua rural, en que apenas se hablaba más que de la vida cotidiana, de la vaca y de la borona, una lengua sin literatura. Hasta las leyes y los fueros están escritos en castellano; no hay legislación en vascuence”³⁰⁰. Hau, berriro, beste problema bat da: euskarak, edozein hizkuntzak bezalaxe, erabiltzen dutenen kultura espresatu ahal du; ez erabiltzen ez dutenena, edo erabiltzen ez den espazioetakoa. Unamuno-k alfer-alferrik gura duena da, ezintasun faktikoa (historiko, soziologikoa: euskararen herria ez da oso kultua izan), hizkuntzaren naturakoa bezala pasarazi. Horregatik, bitxiaren bitxia baino ez da, gero, testuingurua aldatu orduko, euskarak historian beti egin omen duena –kultur hitzak latinetik hartu– haren naturaren aurkakotzat jotzen badigu modernitaterako. Hizkuntza modernotzeko bi modu omen dago: hizkuntzak bere

297 OC, IV, 134: “El pueblo vasco puede decirse que es un pueblo sin historia hasta el siglo VIII, y por eso lleva en su seno toda la fuerza virgen de una naturaleza no gastada”. Ib., 261 (“Mi raza”): “Durante siglos vivió en silencio histórico, en las profundidades de la subhistoria, hablando en lengua milenaria...”. Ja ez da intrahistoria (oroit *Paz en la guerra*), subhistoria da.

298 OC, I, 1058. “El pueblo vasco era un pueblo que antes de recibir la cultura latina no se elevaba al grado de abstracción que exigen los conceptos genéricos” (Ib.).

299 OC, IV, 134.

300 Ib.

baitatik sortzea kontzeptu berriak, edo kanpotik hartzea horiek. Gaztelania, portugesa, etab. ere, hastean pobreak eta ruralak ziren, jende xumearen mintzairak; baina latin kultutik hartuz joan dira behar zutena, eta “como estos idiomas son latinos, las cosas que del latín se introducen en ellos consueñan con su primitivo fondo”³⁰¹. Ingelesak eta alemanak ere makina bat hartu dute: ingelesarena ongi omen dago, “merced a su mesticismo lexicológico” (!), alemanarena ez digu esaten. “La mezcla de dos organismos es fecunda y hasta provechosa cuando los organismos tienen un cierto grado de parentesco; cuando de este grado se alejan, el hibridismo es estéril (!). El catalán ha podido y puede recibir voces latinas, castellanas o francesas, catalanizándolas, porque es lengua latina; pero el vascuence, si las recibe, degenera en jerga”³⁰². Euskara, latinari eskerrak behiala “kristautu” ahal izan zen, baina orain modernotu ez. Nola beste bideak ere –kontzeptuak bere baitatik sortzeak–, aparte euskarak horretarako ez omen duela aski kulturarik³⁰³, onenean ere zapo-euskara batera bakarrik eramaten duen³⁰⁴, euskarak ez du inolako irtenbiderik modernitatera.

Eta hala ere, hispanitatearen misiolariak bortizki baieztatu arren ezinezkoa, Unamuno aski zuhurra da filologo gisa ez gehiegi konprometatzeko ezinezko hori absolutu bihurtuz. “Y esta lengua [rurala, etab.], ¿es posible convertirla, con la premura que la vida del país exige, en lengua de cultura?”³⁰⁵. Azkenean, ezintasuna, zailtasuna da; eta zailtasuna, linguistikoa gabe, sozial pragmatikoa: “el pueblo vasco, el verdadero pueblo, encuentra menos costoso tomar el castellano o el francés ya hechos, que no hacer de su vieja lengua una nueva lengua que le sirva para su nueva vida, para la vida que se desarrolla en las villas industriales y mercantiles”. “La primera necesidad es la de vivir, y la necesidad de vivir trae consigo la de acomodarnos y adaptarnos al ambiente. El pueblo vasco tiene que vivir, y para ello tiene que adaptarse al ambiente de cultura en medio del cual vive, y para esa adaptación le estorba el vascuence”³⁰⁶. Hori gaur halaxe dela, izan, ezingo genioke ukatu. Baina

301 OC, I, 1059.

302 Ib. Tenore berean gaztelaniako purismoaren aurka idazten ari zen.

303 Ib. “Una lengua puede desarrollarse de propio fondo (...). Pero para esto es preciso que el pueblo que la habla desarrolle una cultura indígena y propia (...). El pueblo vasco no tiene cultura indígena propia”.

304 Ib. “(...) vanos esfuerzos de eruditos que forjan desde su gabinete un volapük con raíces vascas”. Ik. OC, IV, 142: “La facilidad (relativa) que hay en el vascuence para formar compuestos sólo ha servido para que los euskaristas entusiastas hayan creado un dialecto literario y bastardo que a duras penas entiende el vascongado que no se inició en él”. Ib., 254: “Además, esa labor puede hacerla mejor o peor un individuo o un grupo de ellos –sobre todo si son desocupados–, pero no un pueblo”.

305 Ib.

306 Ib.

horrek Lenin-en itauneraino heltzeko bakarrik laguntzen du, gogoetan, eta handik aurrera ez du gehiago laguntzen erabakian: beraz, zer egin? Euskara utzi, ala euskara landu? Lore Jokoetako diskurtsoa dei bat da zer egin erabakira – Salamancako Errektoreak txit erabakita ekarri duena.

Erabaki korapilotsua Unamuno-rena; lehen-lehenik politikoa, barnebilkiak larri-larriak daramatzana ordea kultural eta linguistikoak: Euskal Herria Espainiaren modernizazio eta birreraikuntzan osoki enplegatzeko erabakia, osoki bertan “bat eginez”, hainbesteraingoxe, ezen horretarako euskara iraitzi eta hizkuntza espainola baitaratu beharko bailuke beretzat. Euskararen “agoniarena” kapitulu sentibera da, Unamuno-k badaki hori. Euskara utzi eta espainola hartzea, ez al da norbere nortasuna, historikoa (ez dago bestelakorik) erantzi eta besterena jantzi nahi izatea, hots, beste bat bilakatzea? Horri erantzuteko Unamuno-k Biblia aha-leginarazten du: “No temáis perder la personalidad étnica: no fructifica la simiente sino reviviendo en tierra. Un pueblo que en otro se vierte, se agranda; no muere, resucita”³⁰⁷. Baina Biblian zentzu zehatz eta garbia daukan metaforak (han heriotza materiala da bizitza dakarrena, eta bizitza izpirituala da heriotzak dakarrena), hemen zentzurik ez dauka batere, amarrutxo literario txar batena baino estutasunetik eskapatzeko. Unamuno-k egin lezakeen guztia, euskaldunen espainoltzea apaindurietan estaltzea da: “Dad vuestro oro sin importaros el cuño. A la gran aleación española primero, a la humana después, llevaremos nuestro metal (...). Ya os digo que no somos un pueblo que se va, sino un pueblo que se viene. Creamos en nosotros mismos, en nuestra casta, en su porvenir y misión histórica...”³⁰⁸. Kontuak kontu, “¿Para qué España? Tal es nuestro problema ahora”³⁰⁹. Artekogabeki, espainolketaren apologia mistiko-teologiko honetan, bi puntu daude nabarmenak (gaiaren lehegarritasuna erakusten dutelako): lehena, Unamuno-ren interesa erremarkatzeko espainoltzearen zentzua gizadigintza batena dela (alegia, espainoltzea, barne-barnenean, ez dela espainoltzea): “y así es como se prepara una España nueva, grande, fuerte, culta y apta para fundirse en la gran República humana”³¹⁰; eta, bigarren, espainoltze librea izan behar duela, ez Estatuak behartua (ez “unificación impuesta a destiempo, desde afuera y a la fuerza”)³¹¹. Gaurko demokrata eta liberal batzuek ez bezala, Unamuno-k arazorik ez du aitortzeko Estatu politika

307 OC, IV, 241.

308 Ib.

309 Ib., 242.

310 Ib.

311 Ib., 241.

bat, Euskal Herriaren integrazioa bortxatu gura izan duena: “El intento de unificar, prematura y violentamente, retarda y dificulta la integración fecunda y razonada. Triste es nuestra experiencia en ello”³¹². Hain zuzen, Estatuaren bortxatze plan horrexen aurka (oraindik ere hori baita “la obstinación de ciertas gentes en España”)³¹³ egiten du berak bere kontraproposapena, Euskal Herriaren beraren integrazio borondatezkoarena (“integración evolutiva y sana”), kanpotik hertsatua gabe. “Y a todo ello ha de irse por pasos contados, apresurándose con calma, sin tirones. Os repito que no sirve la violencia [Estatuarena!], y el ejemplo lo tenéis en el vascuence mismo. Ridículas fueron las discusiones bizantinas sobre si es dialecto o lengua; tan necio es preguntar, como hay quien lo hace, si tiene reglas y gramática, como sería preguntar si el ornitorrinco tiene anatomía y fisiología; de poco o nada sirvió la odiosa época del anillo; torpeza insigne fue cierta circular de un ministro sobre la predicación en vascuence”³¹⁴.

Irakurlea oraindik gomutatzen bada herri gogoaz: herri bakoitzak bere izpirituaren arabera hozitzen zituen legea, politika, artea; azpiratzen duen uholde ororen despit, intrahistorian, herri gogoak betibat zirauen, etc. Orain, alderantziz, herri gogoak bata bestean urtzen eta nahastekatzen dira, denak irabiatu eta azkenean Gizadi Gogo moduko bakar handi bat sortzeraino. Hau da Unamuno-k euskararen heriotza iragarriari bere argumentazioan ipini dion marku filosofikoa, hots, eskatologia kuakero spencertarraren markua – *Paz en la guerra*-ko bera, eta beste gaietarako aspaldi abandonatua duena: ulergaizkiro, Unamuno-k Euskal Herriaren gaia –historia ere– hasierako filosofiarekin jarraitu du gogoetatzen, beste eremuetan filosofia hori baztertu eta gero ere. Badauka bere handitasun bat, euskararen eta Euskal Herri historikoaren fingarantz saihestezina kontsideratzen dena sublimatzeko modu honek. Campion-ek, melankolikoago, euskara, Jainkoagandik hurbilago hiltzeko, hirietatik mendietara erretiratzen ari zela esaten zuen. Unamuno-k, euskararen heriotza triunfo bat bihurtu gura du: “Sobre las razas fisiológicas, basadas en la animalidad, se hacen en labor secular las razas históricas, cuya sangre es el idioma. La unidad del linaje humano, que en sus orígenes soñamos, está puesta al final de él; es el coronamiento de la historia. Ciertamente es que los pueblos se diferencian y que sólo cultivando su personalidad privativa viven como pueblos; mas no olvidemos que en vía sólo de la suprema armonía tal personalidad se mantiene, que sólo

312 Ib.

313 Ib.

314 Ib., 242.

para la integración suprema la diferenciación se cumple”³¹⁵. Progreso historikoaren buruan gizadiaren bategintzak itxaroten digu.

Unamuno, pentsalari artega, mila gauzatan paregabe interesantea eta izpiritu librea da; baina progresoaren kapitain bat inon ez da izan eta ezertan ez da izan. (Liberala ere ez, “teologo” liberala ez bada behintzat). Iruzingile askok Unamuno-ren ausardia ere nabarmendu ohi du haren Bilboko interbentzioan – euskararen agresoreak beti balienteak izaten dira (“valiente discurso”; “la nota española más valiente en estos tristes tiempos”, Maeztu-k)³¹⁶. Intelektual ausarta zen Unamuno. Baina Bilboko haren diskurtsoa, boterearen diskurtso huts ausarta da: tesia, Bilboko burgesiarena da, burgesia handi aberastuberri guztiarena bereziki; komunikabide hedatsu guzti-guztiena Bilbon bertan zein Estatuan; Bilboko sozialismoarena da orobat; eta, batez ere, Gobernuaren tesia da goitik behera; zehazkiago, justifikazio biribilena besterik ez ordukoxe praxi tamalgarriarentzat euskal herrietako hurrekin eskola guztietan (berak apaizari esanarazten dionak ere ikusarazten digun moduan: eskolan gaztelania irakasten da, liberalismoa irakasten da). Bestalde, eta hala ere, hautematen da, Unamuno-k berak eta haren lagunek jokabide zakar hura ez dutela ekintza politikotzat saltzen, baizik eta beti eginbide moralaren izenean, betebeharraren, egiazaletasunaren (“el primer deber es decir siempre la verdad”), “sentido ético”³¹⁷ eta “valor moral”aren³¹⁸ izenean zurrizten dute. Bizkaitaristen jarrera politiko eroaren aurka, intelektualaren jarrera moral prestua.

Gorabehera politiko-moralok bazterturik –euskararen izpiritu edo izpiritu faltaren auzi gisa Unamuno-k kaleratu diguna, Antzinako eta Modernoen Kereila txotxongilotiar hori, “kuestioaren hondoan” izpiritu nazional espainolaren arazoa baino ez baitzen–, azpianago jokoan dabilzan kontzeptu nagusiak berrikus genitzake. Izan ere, hori da beti arreta erakartzen duen aspektua: betiere herri gogoaren terminotan jarraitzen da kuestioak planteatzen – literatura eta zientziarenak bezalaxe hizkuntzaren “berezko” balioarenak, hala erregenerazio politika nazionalarenak, nola –ikusiko dugu– Hispanitatearenak.

1886an dioenez, “el pueblo hace el idioma y el idioma el pueblo: son como el órgano y la función; así es que ni el pez respira en el aire ni el cuadrúpedo en el agua”³¹⁹. H. d., herri bakoitzak (hemen herriaz mintzo da) bere hizkuntzan arnasar-

315 Ib., 241.

316 Ib., 250 (“Comentario de R. de Maeztu sobre el discurso de Unamuno”).

317 Ib., 251.

318 OC, I, 1060.

319 Ib., 142 (“Más sobre el vascuence”).

tzen du eta ez bestetan. 1887an arrazaren kontzeptuarekin operatzen du, eta Unamuno erabakia da bere tesian, arrazak eta hizkuntzak bat egiten dutela: “el lenguaje es la raza”, “nada diferencia más al espíritu de una raza que su idioma”³²⁰. Euskararen karakteristikak dauzka euskal arrazak eta vice versa (bizitasuna, gogo-eta abstrakturako zailtasuna, etab.). “El idioma vasco señala las diferencias de la raza que le habla para con las demás, por sus diferencias con los demás idiomas”³²¹. Baiespenon oinarritzat arrazoi hau ematen da: “el hombre piensa con palabras. Tesis ésta que indicó en la Edad Media Roscelino, y en nuestros días ha desarrollado el psicólogo inglés Lewes” (Herder edo Humboldt-en ezta zantzurik ere!)³²². Beraz, arraza bakoitzak bere hitzak (hizkuntza) eta bere pentsaera. Historia pixka bat ikusita, objektzioa errazegia da: Espainian eta Frantzian bertan, ez al dira kolonizatzaileen mintzairak mintzatzen, jatorrizko hizkuntzak galdurik? Eta Cornwall-en, etab.³²³ Baina Unamuno ez da atzeratzen: “Estas son razas cuyo espíritu se ha enajenado, razas en el cuerpo, no razas en el alma”³²⁴. (Espainia eta Frantziako kasuetan jatorrizko “araza fisiologikoa” ere galdu egin dela ulertu behar da agian, dagoena nahas-mahas hutsa baita)³²⁵. Honen arabera arrazaren arima eta izpiritua hizkuntza da: hizkuntza galdu duen arrazak, izpiritua eta arima galdu du, gorputza bakarrik da lehengo arrazakoa; hizkuntza aldatuz, arraza izpirituz eta arimaz aldatzen da. Hala ere, fisikoki arraza horrek hor jarraitzen du, eta –objektatuko genioke– dirudienez, ez da gaizki moldatzen, berea ez den hizkuntzarekin –ikus Cornwall edo Frantzia–, hots, berea ez den izpiritu eta arimarekin! Unamuno ez da kontzeptuaketik aseguratzen asko nekatzen direnetakoa, baina honela ulertu behar dela ematen du: hizkuntza hilik, arrazak bizirik segitzen du, herria hil egiten da. Euskara gabe eta euskal herritasuna gabe, zer da gelditzen den hori? Arraza fisikoa, ez dago besterik: materia, izpiritua gabe; edo, alde batean arraza fisikoa, bestean hizkun-

320 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 57.

321 Ib., 58.

322 Ib., 57.

323 Ib., 57-58: “Los celtas del país de Cornuailles hablan inglés, y los judíos del Austria [Inperioa!] meridional consideran al castellano como su lengua sagrada; los lapones y los fineses en Europa, los melanesios y papúes en Oceanía, tienen la misma lengua y son esencialmente diferentes. El eslavón se extinguió en 1683 en Prusia, donde cinco siglos antes no se conocía el alemán; los galos fueron vencidos por el espíritu romano; los normandos por el francés e inglés; los varegos, en Rusia, y los francos, en Galia. Todos estos hechos y otros que me dispenso de citar prueban que la raza lingüística no es idéntica a la fisiológica, pero nada prueban contra la proposición que he sentado, que el lenguaje es el espíritu de la raza”.

324 Ib., 58.

325 Ib., 57: “Hablar de raza española es no saber lo que se dice. Iberos y vascos, celtas y fenicios, griegos y romanos, suevos, vándalos, alanos y selingos, godos, árabes, moros, sirios, judíos, hasta gitanos y mil otras razas han buscado el calor del sol de España y los frutos de su tierra”.

tza/izpiritua. Arraza bat posible da bere izpiritu propioa gabe, izpiritu propio bat ez hizkuntza propioa gabe.

Salvador de Madariaga-k auzi bera darabil arrazarekin eta arrazaren izpiritu eta hizkuntzarekin. Baina haren interesa jeinu edo izpiritu espainola bereiztea zen, beste hizkuntza latinoetako herrietatik, eta –berriro ikusten dugu– bere interesen arabera mozten ditu kontzeptuak. Honen esanean, akaso irakurleak gogoratuko duenez, arraza bakoitzak bere izpiritua dizu, eta izpiritu horrek betiere bere eitea itsasten dio hizkuntzari, hau bere propioa izan ala konkistatzaile batek inposatua. “No es el lenguaje –dio “El genio español” atalean– mera multitud de palabras ordenadas por medio de una gramática, sino fenómeno natural cuya evolución se rige por la acción de fuerzas internas o psicológicas sobre una materia externa o filológica. Mientras las primeras [indar psiko edo izpiritualak] son nacionales y autóctonas, la segunda [materia filologikoa – hau, berez, izpiritu gabekoa suposatzen da!] puede ser, y generalmente es hoy, extraña y adventicia. Lo que nos interesa, pues, aquí, no es el cuerpo, sino el espíritu de la lengua. La clasificación de los pueblos según el origen filológico de la lengua que hablan, reposa sobre una base falsa, a saber: que la comunidad de origen lingüístico es más importante que las diferencias producidas en siglos de evolución sobre el tronco filológico común; siendo así que aquélla es un fenómeno puramente accidental (generalmente debido a conquista común por un pueblo más civilizado), mientras que éstas son esenciales y debidas a los distintos caracteres nacionales [hauek, hortaz, hizkuntza baino lehenagokoak eta horrengandik arraz jareak]. Es evidente que un escocés pelirrojo y un negro de Virginia no tienen nada racial de común, aunque ambos hablen lenguas derivadas de la que hablaba Chaucer. Y tan cierto, aunque no tan evidente, es que el hecho de que del mismo tronco latino, franceses, españoles, italianos y portugueses hayan hecho diverger lenguajes tan distintos en ritmo y carácter, basta para destruir la leyenda de la «raza latina», en cuanto esta expresión quiere significar semejanza de genio entre las naciones de habla romance (...). De aquí que el castellano, aunque latino de cuerpo, sea en su espíritu un lenguaje dotado de fuerte genio propio, hondamente distinto, no sólo del francés y del italiano, sino de esa vaga entidad étnica que se llama *latinidad*”³²⁶. Beraz, hizkuntza espainolaren berezitasuna, arraza espainolaren izpiritu berezitasunari zor zaiona da.

Hemen, Madariaga nahiz Unamuno baitan, posible da arraza bat bere hizkuntza/izpiritua gabe, edo arraza/izpiritu soil-soil; arrazaren eta hizkuntza/izpirituaren

326 MADARIAGA, S. de, *Semblanzas literarias contemporáneas*, Bartzelona 1924, 15-17.

artean bata bestearekiko lokabetasun posible bat ohartzen da (eta Unamuno-ren kasuan bederen, arraza bat posible da bere izpiriturik ere gabe, edo hizkuntza bat bere arrazarik gabe), Herder edo Humboldt-en nazio eta hizkuntzaren artean ezin egon zen dikotomia, autore alemanok arlo hauetan ez baitute arraza ezertarako inoiz aintzat hartu: hauentzat nazioak (arrazak barik!) eta hizkuntzak bat egiten zuten, bai agertzeko eta bai desagertzeko unean, biak izpiritu bat baizik ez zirelako. Izpiritua, aldiz, ez zen premisa arrazial baten fakultate edo ahalmen aprioriko ezkuturen bat han urrun, ez dakigu zer misteriotarako kapaz, baizik hortxe begien aurrean errealtate kultural konkretu bat enpirikoa: erakunde sozialak, ohiturak, ipuin eta mitoak, eta hizkuntza bereziki, horiek gizartean ematen diren bezalaxe (“Geist”), hots, herri nortasun edo ahalmen bat historian manifestatua den bezainbatean soil-soil. Hauen denen izaera bilbatuaren suposizioa besterik ez zen, horiek nortasun edo karaktere unitario baten manifestaziotzat suposatzea. Baina hitz egin, ikerketak fenomenoez bakarrik hitz egin lezake; nortasun edo karaktere hartaz berbaitan, zuzenean, razionalki ezin da deus esan, ez bada haren existentzia hutsa suposatzea soil, premisa edo aurrebaldintza gisa enpirian bildutako datuen koherentziaren esplikaziorako. Autore alemanetan ez dago “izpiritu” metafisiko alde aurrekorik, edozertsutarako ahalmen zedarrigabetu gisa; dago izpiritu (kultura) manifestatu sozial historiko bat –herri bakoitzak berea–, izpiritu (nortasun) baten obra bezala interpretatzen dena. Aitzitik, autore espainolek, alde batetik arraza bat berbaitan suposatzen baitute, bestetik hizkuntza eta kultura bat aparte, arraza hari ahalmen bat eta “izpiritu” bat hizkuntzaurrekoa suposatu beharra daukate, hizkuntza bat ala bestetik eta ekintza kultural bat ala bestetik menpegabea; hots, izpiritua eta kultura baino lehenagoko izpiritu eta kultura bat. Hori gertatzen zaie –orain Ortega-ren kategorietan mintzatzeko– ez dakitelako natura (arrazak) eta historia (izpiritua, kultura) filosofikoki pentsatzen beren arteko erlazioan. Ortega-ren borroka gogorrenetako bat, positibismo horren aurka izango da, txarra zientzia legez nahiz filosofia legez, haren juzguan.

Unamuno eboluzionatuz joan da – Unamuno-ren moduko eboluzioan: hots, laster iritsi da, ez iritziak aldatzera bakarrik, baizik interesen arabera kontzeptuak berak nahierara erabiltzera, modu batean ala kontrarioan, hemen bat baztertuz, han bestea iruntzitarra manciatuz. Pasea gaitezen haren testuetan, pasarte nabarmentxo batzuk han-hemen buruxkatuz:

1886an Unamuno Euskal Herriari eta euskal gaiei buruzko bere jarrera kritikoa, bere zalantzak, hasi da aldarrikatzen. Bere tesi oinarrikoa da herritasunak eta hizkuntzak bat egiten dutela: “el día que el idioma se haya ido [euskara] el pueblo agonizará [euskal herria]”. Haatik, “herriaren hiltze” horretan zerbait ez du oso garbi

ikusten nonbait (zer da herri baten hiltzea?): hala, “pero nada muere –gehitzen du–, todo se transforma, todo cobra nueva vida”³²⁷. Esaldi honek, batzuetan keru biblikoa duena Unamuno-rengan, hemen eboluzionismo bai material bai historiko spencertarraren esanahia du, non, denaren dena bilakaeran munduan, deus ez baita ezabatzen, eta zerbaiten heriotza ez baita zerbaiten azkena, ezpada forma berrien –beraz, eraldakuntzaren– sorgunea, bilakabide berrien hastapena. Herriak ere, Spencer-en historiaren filosofian, hasieran bereiziz doaz, bakoitza bere diferentzian garatu eta handituz, gero atzera elkartu eta handiagotuz, azkenean herri guztiek herri bakar bat zabalanditzeraino mundu guztian. Euskal Herria orain herri handiago eta moderno-agoekin bat egiteko unean dago apika gizadi geroz handi eta goragoa egiteko eboluzioan? “Los latinos nos sacaron de la barbarie –pentsatzen du Unamuno-k–, ellos nos han civilizado, ellos nos arrastran consigo a fundirnos en la gran familia latina hija del pueblo más grande, más robusto y más fecundo”³²⁸. Entzuleak, noski, esaldi hauetan ez du Spencer entzun, baizik esaldiak dioena; eta, esan bezala, Bilbon polemika sortu da, Unamuno-k bere burua gaizki ulertua sentitu du.

1887an, “Espíritu de la raza vasca” –bere interes guztia Euskal Herrian zebilen zentratua–, hizkuntzaren izpiritua, ikusi dugu, arraza eta herriaren bera da³²⁹.

1888an euskararen eta “euskal arimaren” berdintasuna inoiz baino sendoago baieztatzen da eta euskaraz “Agur, arbola bedeinkatube!” artikuluan: “Gorputzarako irudije legez, bardiñ de izpirituarako berbakuntza. Arrapau euskubezan legezarrak, gure bizije ziriala, bañon gorde daigun gure euskaldun arimie eta onetati urtengo jakuz barriro foruak, bai, urtengo dira justiziaren eguzkije argituko danian, betiko udaberriaren egunian. – Euskaldunak euskaraz eztakijenak ikasik biar dabe, arren, biotz indartsuarentzako bere errije maitauten daben gauza erraza da; bada-kijenak ez aztuteko, euskerie korapillube estuten dituzana illobak aitonai eta gurasoen jakintasuneko ontzije dalako”³³⁰. Garai honetan Gernikako neska batekin mai-

327 UNAMUNO, M. de, OC, IV, 135 (“Del elemento alienígena...”, 1886).

328 Ib.

329 1887koa izan daitekeen Unamuno-ren eskuizkribu batean (Novia de Salcedo-ren hiztegiari buruz) irakurtzen da: “Los que me han juzgado hostil a este renacimiento ni me conocen ni saben bien lo que dicen. He combatido y seguiré combatiendo las exageraciones, la falta de crítica, la carencia de método y espíritu científico (...). Pero ni he pensado jamás ni pienso hoy en combatir el actual movimiento euscárico, porque soy vascongado y aficionado a los estudios filológicos, y estas dos son dos razones que me mueven a desear el mayor adelanto de estos estudios”, cfr. UNAMUNO, M., *Escritos inéditos sobre Euskadi* (arg. eta oharrak: L. Robles), Bilbo 1998, 135. “(...) Me mueve tan sólo el deseo de que el renacimiento euscárico se purgue y limpie de resabios viejos y sea lo que debe ser” (136-137).

330 EREÑO ALTUNA, J. A., “Remitidos polémicos. A propósito de la conferencia de Unamuno en *El Sitio*, el año 1886, «Orígenes de la raza vasca»”, loc. cit., 109.

temindua dabil, familia osatu eta bizia Euskal Herrian finkatzeko ametsetan, eta urte horretan bertan euskarako katedraren konkurtsora aurkeztu da³³¹.

1891n –katedratiko Salamancan– utzia dizu Euskal Herria eta familia Euskal Herrian hazteko ametsa, baina euskal gaiez idazten jarraitzen du. Egunetik egunera gogoberoago “doktrina biologiko modernoekin”, “La evolución en los apellidos” artikuluan 1892an idazten du: “En esto se verifica la ley general que rige la evolución de los organismos. Éstos no desaparecen de pronto, aunque resistan a las inclemencias del mundo social. Consecuencia de la lucha por la vida es la selección. Vencen los individuos más aptos y así se verifica un tamizado en el que sobreviven los dotados de ventajas, ventajas que transmitidas por la herencia tienden a fijarse y acrecentarse en los organismos”³³². Pentsamendu hau oraindik Bilbokoaren jarraipena eta esplizitazioa kontsidera genezake.

1895ean, *En torno al casticismo*-n bilduko diren artikuluko solteak –Salamancan– idazten ari dela, bere interesa Espainian eta tradizio espainolean zentratua dago. Estudiantetatik ikusmolde positibista krausistaren alboan, elementu berriak –“mistikoak”– hasten dira nabarmentzen. Liburu hori jada, dio P. Ribas Unamuno-ren ezagutzailerik minak, anbiguitatez jositako dago: denbora guztian Espainiaz eta Espainiaren barnemuina zertzen duen tradizioaz dihardu; Espainia –dio– ez da Gaztela bakarrik, baina –arrazak eta, desagertu dira– “Unamuno no trata otra tradición que la castellana. Aquí aparece el tan interesante como debatido concepto de *intrahistoria*, extraído del estudio de la lengua: «La lengua es el receptáculo de la experiencia de un pueblo y el sedimento de su pensar; en los hondos repliegues de sus metáforas (y lo son la inmensa mayoría de sus vocablos) ha ido dejando sus huellas el espíritu colectivo del pueblo, como en los terrenos geológicos el proceso de la fauna viva». Eta iruzkintzen du Ribas-ek Unamuno-ren perpausa: “La lengua contiene la sabiduría que los hablantes han depositado en ella a lo largo de los siglos, sabiduría que los hablantes aprenden con ella, inconscientemente. Por ello afirma Unamuno que cada lengua tiene su filosofía. Pero la incoherencia, que es constante en el tratamiento de esta cuestión por Unamuno, consiste en que habla de cultura y filosofía española como si no existiese más que la castellana”³³³. Beharbada Unamuno-ren pentsamendua bera hizkuntzari buruz orokorki ez da

331 Ib., 120.

332 ROBLES, L., “Introducción”, in: UNAMUNO, M., *Escritos inéditos sobre Euskadi* (arg. eta oharrak: L. Robles), loc. cit., 20.

333 RIBAS, P., “Contexto sociocultural de la generación del 98 (1895-1905)”, loc. cit., 58.

aldatu, esango genuke, baina interesa galdu da edo galdu samartzen ari da euskarari buruz.

1899an, Inperio materiala definitiboki galdua (“98ko desastrea”), haren ordeztu espainolaren inperio izpiritual batean hasi da Unamuno amesten, “el pueblo que habla español”arena. Gogoeta batek segitzen du hizkuntzaren garrantziarentzat tenoreko mugimendu sozio-politikoetan. “Es un fenómeno interesante el de la lucha por el idioma, combate obstinado y persistente (...). Todo regionalismo empieza por manifestarse en la esfera lingüística. La primera victoria de los checos sobre los alemanes fue la de que se reconociese su lengua como oficial en el imperio austro-húngaro”. Ez dugu pentsatuko, Unamuno-k lerro hauek Katalunian eta Euskal Herrian pentsatu gabe idatzi dituenik. Baina horretan ez du pentsatu gura, beste bide honetatik darama bere gogoeta: “Por otra parte, el panslavismo, el pangermanismo y el anglosajonismo no son más que movimientos basados en la lengua. Trátase de reunir –Spencer-en herrien eboluzio historikoarekin jarraitzen du– en grandes razas históricas, bajo una lengua común, a castas y pueblos cuya consanguinidad es más que discutible de ordinario. – Y aquí estamos el pueblo que habla español. Recluidos de nuevo a nuestra Península, después del gloriosísimo ensueño de nuestra expansión colonial, volvemos a vernos como Segismundo, vuelto a su cueva, según decía Ganivet. Y ahora nos acordamos de nuestra raza”³³⁴. Hizkuntza eslabiarrez mintzo diren herriak oro, edo hizkuntza germaniarrez mintzo direnak, oro ez dira odol edo kastakideak noski. Baina haiek oro “hizkuntza komun batekoak” izatea (flandriar, aleman, daniar, suediarrek; baina baita ingelesak ere: zergatik bereizi germanistak eta anglosaxoistak, kontua hizkuntza baldin bada?), Unamuno-ri interesatzen zaion apailaketa da, berak espainolez mintzo diren arraza ezberdin guztiekin (hizkuntza erromanikoen arraza barik!) panhispanismo bat osatu ahal izateko; urrundurik, beraz, mundu germaniar eta anglosaxoiari buruz buru “batasun latinoan” proposatzen zutenengandik, “arrazo latinoan” oinarritua (Espainia, berriz ere, Frantziaren petatxu bat izango litzateke). Unamuno-k hizkuntzazko Espainia handian amets egiten du. Planteamendu arrazialak enbarazu bat baino ez dira asmo horretan. Gainera, bera ez al da arraza ezespainol batekoa? “Y ahora es cuando nos acordamos de nuestra raza. – Mas esta nuestra raza no puede pretender consanguinidad; no la hay en España misma. Nuestra unidad es, o más bien será, la lengua, el viejo romance castellano convertido en la gran lengua española”³³⁵. Helburua orain hizkuntza handi hori egin egitea da: “hay

334 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 127.

335 Ib.

que fraguar la gran lengua española o hispanoamericana, amigo Maeztu”³³⁶. Unamuno, beharbada modan jarria zen arrazaren kontzeptuari ez uko egitearren beste-lako proiektuen faboretan, hartaz esanahi linguistikoa baliatzen da (Renan-ek inspiratua agian), lexiko arrazialista guztia (odola eta, edo “arimaren hezurra”) hizkuntzari aplikatuz metaforikoki: Ameriketan “empieza a abrirse la raza española a nueva vida”, “en América desarrollará la [raza] española, la raza histórica, la que tiene por sangre la lengua, absorbidos por nuestra sangre espiritual, por nuestro idioma”³³⁷. Unamuno hau izan da Bilbon Lore Jokoetan mintzatu dena.

Batez ere 1866ko polemiken ondoren, ematen du, Bizkaian bederen, arrazaren arazoa hizkuntzari itsatsia gelditu dela behin betiko. Galdera esentziala da: zer da euskal arraza euskararekin, zer euskara gabe? Unamuno-k ja tesian, ipuin genealogiko edo historikoak bazterturik, euskal arraza edo herriari buruz mintzo zaigun material funtsezkoa hizkuntzara murriztu du. Berdin dio Arana Goiri gazteak, Unamuno-rekin polemikan, baina puntu honetan osoki ados: ez arkeologiak, ez kraneologiak (beraz, biologia edo “zoologiak”) esan ahal digute ezer ganorazkorik euskal arrazaz; “el único medio de investigaciones prehistóricas que nos quedan respecto a esta raza es, pues, su propio singular idioma”³³⁸. Arana-rentzat, baieztatzen jarraitu duenez, euskal arrazaren ezaugarri eta arrazaren izpirituaren adierazpen nagusi-nagusia euskara da; Unamuno-rentzat, hasieran hala izan dena, gero utzi egin du hala izatea. Bientzat arrazak funtsean linguistikoa izaten jarraitu du nolabait. Baina gero, bitxia baino gehiago da, zein logikak behartu dituen bai Unamuno eta bai Arana, arrazaren izpiritua hizkuntzagandik menpegabea eta haren aurretikoa kontsideratzera: Arana-ren arabera, maketok euskara ikasiko balute, euskaldunek beste hizkuntza batean salbatu beharko lukete euren arrazaren izpiritua; Unamuno-rentzat, euskaldunek, maketoen hizkuntzan salbatu behar dute euren arrazaren izpiritua. (Testuak eta testuak bereizi ere egin beharko da, edonola ere: Arana-rena ateraldi politiko bat da, Unamuno-rena tesi “zientifikoa” [!]).

1901eko Bilboko hitzaldian hizkuntza ez da jada arrazaren arima edo izpiritua; aitzitik, arrazak bere izpiritu propioa du, hizkuntzatik aparte (“nuestra alma es más grande ya que su vestido secular: el vascuence nos viene ya estrecho”); eta, bitxiki, hizkuntzak ere bere gorputz bat eta bere izpiritu bat dizkizu, non hizkuntza/gorputzetik bereizi eta jarea baita hizkuntza/izpiritua (berau arrazaren izpirituarekin identikoa dela suposatu beharko da; ondorioz, euskara izango da hizkuntza/gor-

336 Ib., 129.

337 Ib., 128-129.

338 EREÑO ALTUNA, J. A., op. cit., 142.

putz bat izpiriturik gabekoa): hala eta ze, bihar euskaldunak euskararen lekuan mintzatuko diren gaztelania “será como una traducción gloriosa y depurada del para entonces muerto eusquera”; eta “el pensamiento que dormitaba cual crisálida en el vascuence de Axular (...), lo romperá y saldrá a bañarse en luz (...) en el español de la mañana” (“el sobre-castellano”, “la lengua española o hispano-americana”)³³⁹. Testua konplikatua da, Unamuno-k ez duelako garbi esan gura, esan gura duena. Formulazio absurdoak estaltzen duen pentsamendu oso sinplea, Unamuno-ren “kriolismo”aren argitan argitzen da.

1903ko “Sobre el criollismo” artikuluan, panhispanismoaren apostolutzan sartua honezkerok, espainolak nola ez duen gaztelania estriktoa izan behar, baizik herri(alde) ezberdinen espresio ezberdina (herri penintsularrei erreferiturik ja *En torno al casticismo*-n agertzen den ideia), eskualde hispanoamerikarrei zabaltzen zaie: horiek ez dute hizkuntza nazional berriak sortzera jo behar, espainoletik urrunduz, baizik bakoitzak bere izpirituaren araberako espainola hozitu eta aberastu, eta guztion espainierek osatuko dute “espainol handia”. Errepublikako latino-amerikarretan ez zegoen nonbait Espainiari sinpatia larregirik arestian, eta Unamuno-k intelektual argentinar, txiletarren joerak gaitzesten ditu –Bilboko zakarkeriarik gabe, hori bai–, horiek nahi izaten baitute beren buruak kulturalki frantsesagoak aitortu espainolak baino, eta euren hizkuntza ere argentinera edo txilera kontsideratu, ez espainola. Eta idazten du hor: “Yo soy vasco, y usted sabrá, porque fue cosa que me atrajo la irreflexiva hostilidad de no pocos de mis paisanos, que he sostenido que el vascuence se muere muy de prisa y que nos conviene a los vascongados que se muera. Pero a la vez dije y sostuve, como lo digo y sostengo, que al adoptar el castellano, el idioma de setenta y tantos millones de hombres, no debemos resignarnos a adoptarlo pasivamente, plegándonos en todo y por todo a las exigencias de los castellanos, sino que hemos de tirar a infundir en él nuestro espíritu, a hablarlo a nuestro modo [horra izpiritua fakultate edo ahalmen metafisiko bat bezala ulertua, modu linguistikoko partikularrak sortarazteko gaitasun apriorikoduna!], siempre que nos demos a entender de todos los que lo hablan, y acelerar su vida. Y por mi parte procuro cumplirlo, y me encojo de hombros cuando me dicen que tal o cual giro de los que uso es poco castizo o cuando se me reprocha el que a las veces, y en mis trabajos de alguna fuerza, tengo el estilo poco español³⁴⁰.”

339 OC, IV, 242-243.

340 Ik., orobat, UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 144: “Nosotros, los vascos, verbigracia, vamos dejando nuestra antigua lengua, y adoptando el castellano, lengua internacional, pero me parece que llegará un día, y aun hoy sucede, en que a los escritores

Esto me parece lo acertado y lo progresivo y no el malsano prurito de mantener dialectos y lenguas regionales por un afán, poco noble, de diferenciación a todo trance”³⁴¹. “¡Pobre personalidad nacional la que se busque por semejantes senderos! Yo, escribiendo castellano, me creo tanto o más vasco que los más de mis paisanos que escriben en vascuence, y les llevo la ventaja de que mi palabra será más oída que la suya”³⁴².

Norabide berean dihardu 1904ko “Alma vasca” artikulua (beti arrazak bere-bere izpiritua duela suposatuz –karaktere, pentsamendu, are bizi filosofia bat eta erlijioa ere–, hizkuntzarekin zerikusirik batere gabe haatik): “El día en que [euskal arrazak] pierda la timidez, cobre entera conciencia de sí y aprenda a hablar en un idioma de cultura, os aseguro que tendréis que oírle, sobre todo si descubre su hondo sentimiento de la vida: su religión propia”³⁴³.

Unamuno aurkitu da abelera kuriosoan, batetik, Amerika krioloa bere ideia pan-hispanistan biltzeko, garrantzi gutzia hizkuntzari eta hizkuntzari bakarrik eman beharra zeukala, arraza diferentziak-eta gutxietsiz edo zabartuz; baina bere burua definitzeko, pertsona den aldetik nahiz idazle bere gisako den neurrian, arraza beste elementurik ez daukala – euskotarra da; eta bere ni horrixek berak pisu handi samarra esleitu ohi dionez, nolanhiko dohain, izpiritu, arbasoengandiko leinargitasun, odol eta historiaz kargatu beharra daukala atzera bere arrazatxo hori, euskarari inportantzia kenduago ahala arrazari emanago beharrea hain zuzen. Hau bai, paradoxa da, aporia ez bada. 1905eko *Vida de Don Quijote y Sancho*-n, bizkaitaristen kritiko zorrotza, ez dakit paroxismo edo erretorizismo superbaroko, inoren lotsagarri samarrerraino heltzen da bera:

vascos se nos conozca por un cierto modo de manejar la lengua común” (“El idioma nacional”, 1908). OC, IV, 260: “A este respecto, pocas cosas más instructivas que el estudio del estilo que en lengua castellana, que era la lengua en que pensaba y que aprendió en la cuna, distinguía a Sabino Arana, el fundador del nacionalismo vasco” (“Más sobre la lengua vasca”, 1907).

341 Ib., 133-134.

342 Ib., 135. Partikularismo eta erregionalismo linguistikoen kritika hemen katalanenganaino iristen da. “Lo triste es, que por lo menos aquí, en España, no son sentimientos de amor a lo propio, sino de odio a lo ajeno, los que dictan semejante conducta. «Gran poquedad de alma arguye tener que negar al prójimo para afirmarse», dije en mi discurso de Bilbao y repito aquí”. “Casi todas las investigaciones etnográficas, lingüísticas y sociológicas están envenenadas por miras tendenciosas y por prejuicios (...). Aquí, en España, apenas puede leerse lo que los catalanes y mis paisanos los vascos escriben a propósito de las lenguas catalana y vasca...”, Ib., 134. Euskaldun eta katalanen joera partikularista grinatsu eta kaldarraren kritika hau, joera berak Hispanoamerikan sermonatzeko zeharbide bat da kasu honetan nolanhahi ere.

343 Ib., 87 (“Alma vasca”, 1904).

“Deja, Don Quijote, que hable de mi sangre, de mi casta, de mi raza, pues a ella debo cuanto soy y valgo, y a ella también debo el poder sentir tu vida y tu obra.

¡Oh tierra de mi cuna, de mis padres, de mis abuelos y trasabuelos todos, tierra de mi infancia y de mis mocedades, tierra en que tomé a la compañera de mi vida, tierra de mis amores, tú eres el corazón de mi alma! Tu mar y tus montañas, Vizcaya mía, me hicieron lo que soy; de la tierra de que se amasan tus robles, tus hayas, tus nogales y tus castaños, de esa tierra ha sido mi corazón amasado, Vizcaya mía.

Discutía un Montmorency con un vasco, e irritado aquél, hubo de decirle a mi paisano que ellos, los Montmorencys, databan no sé si del siglo VIII, X o XII, y mi vasco le respondió: ¿Sí? ¡Pues nosotros los vascos no datamos! Y no, no datamos los vascos. Los vascos sabemos quiénes somos y quiénes queremos ser.

(...)

Aprended, hermanos míos de sangre, a pelear apeados [Don Quijote eta Santxo Azpeitikoaren batailari alusioa]. Apeaos de la mula rabiosa y terca que os lleva a su paso de andadura por sus caminos de ella, no por los vuestros, y míos, no por los de nuestro espíritu, y que, con sus corcovos, dará con vosotros en tierra, si Dios no lo remedia. Apeaos de esa mula, que no nació ahí ni ahí pasta, y vamos todos a la conquista del reino del espíritu. Aún no se sabe lo que podemos hacer en este mundo de Dios. Aprended, a la vez, a encarnar vuestro pensamiento en una lengua de cultura, dejando la milenaria de nuestros padres; apeaos de la mula luego, y nuestro espíritu, el espíritu de nuestra casta, circulará en esa lengua, en la de Don Quijote, los mundos todos, como circularó por primera vez al orbe la carabela de nuestro Sebastián Elcano, el fuerte hijo de Guetaria, hija de nuestro mar de Vizcaya”³⁴⁴.

Unamuno, beti esaten da, oso kritikoa zen bizkaitarrismoarekin. Eta egia da, inkultura, elizkoikeria, espainolen gorrotoa, etab., amorruz leporatu ahal zizkiola; hura kritikatu ezin duen puntua da, alabaina, arrazaren kapitulu pozoitua, Unamuno bera ez baita gutxiago arrazialista Arana Goiri baino, Sabin Arana hispanofobia baldin bada ere gartsua, eta don Miguel hispanofilo sutsua. *Maketo* berba bera, arrazismo abertzalearen seinaleztat ailegatu ohi dena (politikoa), Unamuno-k aberastuberrien lorrinkeriatzat jotzen du (soziala): Euskal Herri tradizionala igualitarista izan ei da – “ahora que con las minas y las industrias ha empezado a acumularse una gran riqueza, ahora es cuando empieza a notarse algún cambio en el espíritu. Emprendedor y activo, sí, pero se ha hecho insoportable el bilbaino por lo pagado de sí mismo y de su riqueza y de su convencimiento de pertenecer a cierta raza superior. Mira con cierta petulancia al resto de los españoles, a los no

344 UNAMUNO, M. de, *Vida de Don Quijote y Sancho*, Madril 1987, 60-61 (IX. kap.).

vascongados, si son pobres, llamándolos despectivamente *maquetos*³⁴⁵. Zientzian izenean zorrotz maiseatzen ditu euskal nobletasunaren harrokeria (gustatzen zaio, hala ere, Tirso de Molina-ren “un nieto de Noé les dio nobleza” hura behin eta berriro aipatzea)³⁴⁶, kantabresek erromatarrekin egindako gerra heroikoen legendak, Tubal edo Aitor eta bestelako mitografiak; baina ikustekoa da gero, nolako baliabide literarioekin atzera berreskuratzen duen horren guztiaren oroipena, flakoi hutsean oraindik parfumea gozatzen duenaren moduan. Unamuno, Unamuno da: baina hori, Unamuno bat baino gehiago da beti.

Bilboko Lore Jokoetako diskurtsoa zirriboratu eta egun bertsuetan idatzia izan daiteke Unamuno-ren “La reforma del castellano. Prólogo de un libro en prensa”, M. Ugarte-ren *Paisajes parisienses*-erako hitzaurrea (1901eko uztailean datatua berau), espainiera handi berria eraikitzeko ideia laboratuz. Espainiera horren pipita gaztelania izango da (“su núcleo germinal”); baina gero hispanitateko herrialde guztiek, bakoitzak bere izpiritua gehituz, denen artean mintzaira berri bat adalatu dute (“la lengua hispanoamericana”). Orain artean gaztelania gaztelauek bakarrik egin baitute, izpiritu gaztelauarena soilik du eitea (herriaren izpiritu, hortakoz, zerbait berbaitako eta hizkuntzaren aurretikoa suposatzen da; eta hura osatua izan eta haren geroko ekoizpena, hizkuntza); eta izan ere, lurraren, hots, jendearen izpiritu hori bezalakoxea da bera, gaztelania: lehor eta hotza, zurruna, antzinatarkotea. Zalu eta modernotzeko, bihurritu eta desartikulatu beharra dago, airostu, zehaztu, lexikoa berritu, sintaxia malgotu; hitz batean (euskararekin ezin omen dena)³⁴⁷, irauli eta birfundatu egin behar da hizkuntza. Hala dio “La reforma

345 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 86. “Es antigua en el pueblo vasco la pretensión de nobleza, originada del aislamiento en que vivió (...). Estos *humos* han producido ahora, a favor de la riqueza, una atmósfera irrespirable”. (Ik. bertan kontatua Montmorency-ren anekdota). “Maketo”ri buruz, ik. orobat, OC, IV, 244: “Suprimid, ante todo, ese odioso nombre de *maquetos*, nombre teñido de injusticia y de sinrazón (...). No digáis nunca ni Bilbao para los bilbainos, ni Vasconia para los vascos, que al decirlo renegáis de nuestra raza”. 1924an, bere lehen artikulua publikatua gomutatuz, oroitzen da: “Aún no se conocía la palabra *maqueto* que desde Portugaleta se extendió al resto de Vizcaya. En Bilbao los muchachos llamábamos *pozanos* a los que luego se llamó *maquetos*”. Argitu didatenez, santanderinoek leonesei esaten zieten –eta diete– maketoak; eta XIX. mendearan buruan Bizkaiko meatoki eta industriari etorri zen langile asko leonesa baitzen, bada, maketoak.

346 Maeztu-ren arabera Unamuno zen “un vizcaíno que suele enorgullecerse de sus treinta y dos apellidos vascongados”, ik. UNAMUNO, M. de, OC, IV, 249.

347 OC, VIII, 914-915 batez ere. Gaztelaniaren alde Unamuno-k aipatzen duen argumentu bat, beti haren hedadura zabala munduan izaten baita, susmoa gelditzen da, euskararen modernotu ezinaren arrazoi sendo bat, jendaurrean airtzeko itxuratzarragoa, baina efektiboagoa ausaz, haren txikitasun kuantitatiboa ez ote den; hots, ez duela merezi modernotzen senperrentzea, hala ere ez lukeelako balioko “munduan”, mundu modernoan gabe. Katalanak, adibidez, ez bailituzke euskarak bere izaera arkaikoagatik omen dituen arazo intrintsekoak, baina Unamuno-k harentzako lekua etorkizunean euskararen berdintsu balioetsi du.

del castellano”n: “Revolucionar la lengua es la más honda revolución que puede hacerse; sin ella, la revolución en las ideas no es más que aparente. No caben, en punto a lenguaje, vinos nuevos en viejos odres”. 1903an, “Contra el purismo” saioan salatzen du³⁴⁸, euskarari buruzko ez oso bestela (eta oso bestela, aldi berean!), oraingo gaztelania dela “en realidad, solapado instrumento de todo género de estancamiento espiritual; y lo que es peor aún, de reacción entera y verdadera”. Gaztelania horretan izpiritu gaztelauaren itxikeria guztia hezurmamtzen da, “de tal modo ha encarnado en la lengua el empecatado dogmatismo de la casta que apenas se puede decir nada en ella sin convertirlo en dogma al punto (...). Una lengua de conquistadores y de teólogos dogmatizantes, hecha para mandar y para afirmar autoritariamente”³⁴⁹. Inperioko Unibertsitate gorenaren Errektoregotik, Unamuno-k, euskaldun, katalan, galegoak eta Latinoamerikako herri guztiak bere deiarri jarraika dituela, Inperio berri bat fundatu gura du, hizkuntza berri bat. Ordea, denek ez dituzte partekatzen Salamancako maisuaren entusiasmo hispano-ekumenistak. 1908an aurre egin behar dio, zeri-eta latinoamerikar askok Espainiarekin hurbiltasuna bilatzeko ez duela gogorik batere erakusten. “¿Pero no ve usted, amigo Unamuno, el absurdo de que veinte repúblicas se estén sirviendo de la lengua de una monarquía?”³⁵⁰. Edo gurago duela hizkuntza beren modura gartu Espainiaren axolarik gabe; edo itxaropena duela “que pronto llegarán en esa América a formarse dialectos diferenciados del castellano de España”³⁵¹, etab. Unamuno-k horiei ere³⁵² hispanofobia egozten die: “En el fondo de todo eso, hay que decirlo, no hay en muchos más que ojeriza y desafección a España y a todo lo español. Afirman redondamente la superioridad de la lengua francesa, verbigracia, sobre la castellana, los que no conocen aquélla mejor que ésta, conociendo ésta muy mal, sobre todo los que, habiéndolo buscado, no han conseguido crearse una reputación literaria escribiendo en castellano” (polita da Unamuno salaketa hau inori egiten irakurtzea, salaketa bera Unamuno-ri eginda itsuskeria bat eta injustizia omen baita). Orain Unamuno alderantziz argudiatzen topatzen dugu. Hizkuntzak berak ez errepublikarrak eta ez monarkikoak dira; eratu zuen arrazaren izpiritua ere, ja ez dauka nonbait. “Hay desgraciado que se cree que con la lengua cas-

348 OC, I, 1063 eta hurr. Saio honek lehen idazketa bat 1899an izan du (ik. 1063 or., 2. oin-oharra).

349 OC, I, 1063-1073.

350 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 152.

351 Ib., 125.

352 Berdin egiten baitu galego, euskal eta katalanzaleekin: “En el fondo del catalanismo, de lo que en mi país vasco se llama bizkaitarrismo, y del regionalismo gallego, no hay sino anticastellanismo...” (“La crisis actual del patriotismo español”).

tellana va el espíritu inquisitorial o que no podemos decir en ella lo que en otras se dice”³⁵³. Hizkuntza gora eta behegorik ere, moldaeraz edo moldakaitzagorik ez dago: “No hay superioridades ni inferioridades absolutas; lo que es en un respecto superior a otro, lo es en otro respecto inferior. Y sobre todo, para cada cual, la mejor piel es la suya propia, por ser la que se formó y creció con su propio cuerpo”³⁵⁴.

Unamuno-ren testuetan, tirandura asko ez ezik, kontraesanak ere ugari daude, haren arrazoiketak ad hoc izan ohi dira-eta (Ortega ez da oso diferentea puntu honetan). H. d., zer nahi duen, ez du izaten kontraesanik, ezpada nola arrazoitzen duen, nahi duena. Euskarari buruz ari bada, inportantea arrazaren izpiritua bakarrik da, hizkuntzaren axolarik gabe; eta, “si, como creo –iristen da esatera 1905ean–, el pueblo vasco es en España el pueblo más capacitado hoy para la íntima vida de la cultura espiritual”, euskotarrek egin behar dutena da (gaztelania hartu eta) Espainia menperatu eta baskonizatu, etc., espainolaren bitartez “euskal sena” gizadi guztiari gainezartzeko, ezagutzen da boutadea (“La crisis actual del patriotismo español”)³⁵⁵. Berdin arrazoituko du arraza eta lurralde ezberdinenekin hizkuntza espainol handiaren batasunaren alde argudiatzean, esanez, argentinarrek, txiletarrek, etab., ez dutela ahalegindu behar bakoitzak hizkuntza bat ahalik eta nazionalena garatzen, ezpada, nazio horiek zinez izpiritu diferenteak badituzte ere, bakoitzak bere nortasun propioarekin, hala ere denek oso egoki espresa lezaketela bakoitzak bere izpiritu berekia hizkuntza bakar berdinean. Eta, “La raza vasca”n behiala baietsiaren kontrara, adibide hauexek ailegatzen ditu froga moduan: “Al profesor Saavedra le preocupa el que su pueblo [txiletarra] llegue a tener una verdadera literatura propia, y con ella una personalidad. Está muy bien esto y es preocupación muy plausible. Pero su pueblo puede llegar a tener una literatura propia, reflejo de su alma, y tenerla en castellano. El alma de Escocia –he de repetirlo– se refleja tan bien o mejor que en los cantos en el viejo lenguaje céltico que agoniza en los highlands, en los de Burns, escritos en dialecto inglés³⁵⁶, y

353 Ib., 145.

354 Ib. Bitxiago ezina arrazoia, Bilboko Lore Jokoetako mantentzailearentzat. Bestetik, ohar bedi hizkuntza zermugatzeko erabiltzen den iruditeria ugaria: herriarentzat da haren arima (hezurra duen arima!), odola, azala, ekoizpena, etc., halaber pentsamenduarentzat horren jantzia, etab.; herria/hizkuntza/pentsamendua erlazioa razionalki zehaztu, ez da sekula egiten; hor dago Herder edo Humboldt-ekin diferentzia esentziala.

355 UNAMUNO, M. de, OC, I, 1293. Ik. TORREALDAI, J. M., aip. lib., 57. Orobat, OC, IV, 244 (Bilboko Lore Jokoetako diskurtsoa: Espainiari “algo podemos darle con nuestro sentido de gobierno, adquirido en el autonómico ejercicio de él”).

356 Ik., orobat, OC, IV, 260.

el alma de Bretaña, no más en cantos en el lenguaje también céltico que allí mismo agoniza, que en los escritos de Renan, que están en puro y correcto francés. No necesitan los chilenos tener una gramática y un diccionario propios –que, además, serían una ridiculez fundada en desconocimiento del español que se habla en España– para tener un alma suya propia”³⁵⁷.

Berriro gertatzen dena da, hizkuntza hain instrumental soil-soila bada, hori Euskal Herrian, Katalunia, Galizia zein Gaztelan, Txile eta Argentinan hizkuntza komuna izateak, denok Fagor hozkailua erabiltzeak baino ez digula ematen bata-sun izpiritual handiagoa. Eta hispanitatearen apostoluak egiaz bilatzen zuena, ez zela hori.

1927an Hendaian dago, Primo de Rivera-ren ihesi “desterruan”, Espainiara begira, hispanitateaz meditatzen (hispanitate hau Espainitatea soil da, Latinoamerika gabe). “Digo Hispanidad y no Españolidad para incluir a todos los linajes, a todas las razas espirituales, a las que ha hecho el alma terrena –terrosa sería acaso mejor– y a la vez celeste de Hispania (...). Y quiero decir con Hispanidad una categoría histórica, por lo tanto espiritual, que ha hecho, en unidad, el alma de un territorio con sus contrastes y contradicciones interiores”³⁵⁸. Saio franko kaotikoa bere joanera formalean, sentimenduen peko idazketa automatikoaren adibide bat izan liteke. Pirinio mendiei begira, Unamuno-ren gogamena berriro geografiara itzultzen da, lurra bihurtzen da berriro giza historiaren ama. Penintsula lurralde ezberdinez osatua dago; lurralde ezberdinok, arima ezberdinak dituzte: arraza ezberdinak, hizkuntza ezberdinak. Berriz ere geografiak sortzen du hizkuntza; hizkuntzak ematen dio arima parajeari; are, hizkuntzak berak dira, egiten dituztenak arrazak ere: “esta tierra hizo, con el latín, unos lenguajes, unos romances. Hizo el catalán, y el aragonés, y el leonés, y el bable, y el castellano, y el gallego, y el portugués (...). Y esos lenguajes son las razas”³⁵⁹. Gehiago: “y un lenguaje es un pensamiento, es un sentimiento común, es una filosofía, hasta una metafísica”³⁶⁰. Hizkuntza, beraz, ia dena da. Hizkuntza, pentsamendua, arraza, lurra, dena bat, dena osotasun bat. Baina Espainiak lurralde diferenteak dauzka, hizkuntza, arima, arraza diferenteak –bakoitza osotasun bat. Zer batasun da Espainiarena? “Un territorio tiene un alma, un alma que se hizo por los hombres que dio a luz el cielo. Y cuando un territorio

357 UNAMUNO, M. de, *La raza vasca y el vascuence. En torno a la lengua española*, loc. cit., 152 (“Más sobre el idioma nacional”, 1908).

358 Ib., 264 (“Hispanidad”, 1927).

359 Ib., 266.

360 Ib., 267.

como es el de Hispania está fraguado de íntimas contraposiciones, obra de Dios, sus hijos son hijos de contraposición. Tienen el alma de Job”³⁶¹. Espainiaren batasuna (arima askoren arima hori), lurrak ez duela eman, inposatua dela, aitortzea adina da hori; eta barrutik –arima hori– zatitua dagoela. Arima bakarra ote da? “Y ¿hay un lazo que une estas contraposiciones y contradicciones íntimas hispánicas? ¿Hay un alma –un alma de contradicción– que hace la unidad, la hispanidad?”. Unamuno-ren erantzunak baietz izan behar duena, badakigu alde zuzenetik. Hala ere, baieztapenak ezberdinak egon litezke, eta Unamuno-rena ikusteko hau da: “Un alma de contradicción es un alma profética. El profeta que siente dentro de sí la contradicción de su destino se yergue frente a Dios y le interroga a Dios, le escudriña, le enjuicia, le somete a enquisa. Y a esto es a lo que he llamado en otra parte el sentimiento trágico de la vida. El profeta, el pueblo profético, sienten la responsabilidad de Dios. Y sienten la justicia”³⁶². Espainia bat dena, aspaldi erabakia dauka Salamancako errektorearen nahikariak, haren irakurlearentzat orriotan interesantea ezin izan liteke hori. Interesgarria, batasun horrentzat, Hendaia-etik begira eta hispanitatearen meditazioan beren-beregi, erakusten duen kontzeptua da; alegia kontzeptu bat, ez politiko, bai politika ororen ukaziozko, sasimistiko, absolutuki unamunotarra, tragedia sakro baterako bakarrik zentzuzkoa. Espainia diferentziaz eta Kain eta Abelen anai borrokaz dago bat egina, hori da Espainiaren batasuna: “porque no hay unidad viva si no encierra contraposiciones íntimas, luchas intestinas. Y la única guerra fecunda es la guerra civil, la de Caín y Abel, la de Esaú y Jacob, la guerra no ya hermanal, sino mellizal”³⁶³. Elkarrizketaren ordeztasun, elkarriketaren printzipioa –Kain eta Abel– batasungile; eta bata bestea lapurtuz –Esau eta Jakob– inposaturiko batasuna. Hots, ideologiarik ideologikoa, adierarik txarrean: trape literario koloretutan bezitua, bortxa historiaren eta Estatu harrapariaren justifikazioa, arima profetikokoaren mitologiaren erlijioso-mistikoki sublimatua. Arima hori gaztelua da. Geografia penintsularren zentro eta bizkarrezurrak –“las mesetas del Duero y del Tajo, espinazo Gredos”– ernarazi du jende mota bat –artzain alderrai, monje, konkistari– “que siendo de la tierra se despegaba de ella”, “el alma trashumante”³⁶⁴, arima profetikoa. Nonbait beste arimak euren lurralde atxikiak gelditzen dira³⁶⁵, eta hori ez. Hori da hispanitatearen arima. Eta hori, errematera-

361 Ib., 264.

362 Ib., 267.

363 Ib., 264.

364 Ib., 265.

365 Ib., 266 (Amerika konkistatu zuten “los extremeños, los despegados de la tierra, los dueños y no siervos de ella. Lo mismo que fue con los dorios”).

ko, bere justiziaren egarriak bultzatu bide zuen –arima profetikoa– mundu berrien konkistara: “La hispanidad, ansiosa de justicia absoluta, se vertió allende el océano, en busca de su destino...”³⁶⁶.

Bestelakoak beste, berriro gauza lorios bat Unamuno-ri gertatzen zaiona. Gogo-eta hauek Hendaian idazten ari denean, “La raza vasca” idatzi zuenetik, doi-doi berrogei urte bete dira. Geografia, lurra, arraza, hizkuntza, gogoetarako berriro elementu berdin-berdinak erabiltzen ditu, berriro elementu horiek denek bat egiten dute: lurrak egiten du arraza, hizkuntza, etab. Baina, berriro, teorizazio guztian Euskal Herria ez da Espainiarekin batera kokatzen. Han Euskal Herriaren zerizana teorizatzen zuen: Espainia kanpoan gelditzen zen (atzeko ate batetik sarrarazten zuen momentu batean). Oraingoan hispanitatearen zerizana teorizatzen du: lurrak, latinarekin, hizkuntza eta arraza anaia bizkiak sortarazi ditu, katalanak, gaztelau eta galegoak, etab. Euskalduna, berriro, ez da eskeman sartzen, ez arraza eta ez hizkuntza anaia da. Hispanitatearen meditazioan, eta Hendaian, eta Euskal Herriak inon ez dio lekurik eskaintzen bere hispanitatean³⁶⁷. Unamuno-k, berriro, atzeko atetik sartzen du, bestela bere tresna teorikoekin egiten ez dakien batasuna, nolabait, egiten duelako itxurak egiteko. “Y bien, a fin de cuentas, ¿qué es la Hispanidad? –bukatzen du saioa, sigi-saga galdu samartuta ibili dela akordaturik–. Ah, si yo la supiera... Aunque no, mejor es que no la sepa, sino que la anhele, y la añore, y la busque, y la presienta, porque es el modo de hacerla en mí. Y aquí, en este rincón de mi terruño nativo, sentado sobre la yerba que me da del Pirineo «la ceniza verde» [Góngora], frente a la mar materna, bajo el cielo del Carro, busco en el hondón de mi raza, en mi corazón milenario, al Dios hispánico que me ha de responder de mi destino”³⁶⁸.

Menturaz –hala iradokitzen baitu zantzu askok izkribuan– Hendaiaiko saio-txoaren garai berekotsu eta haren osagarritzat hartu behar da beste “Por el son a la visión” izenburukoa, data gabekoa antza³⁶⁹. Hemen guztiaren erro eta arima –nazioaren kintesentzia, arrazaren zentzu, mundu-ikuskeraren egitamu, patu historikoa-aren argi, eta zer ez–, hizkuntza da, hitza, kasik balio teologiko sanjoandar batean (eta hainbat eratan Renan gogorarazten duen arren, inon ez da nabaritzen Herder edo Humboldt-en oihartzunik urrunekoena ere). Testu hauta bere osoan orotari-

366 Ib., 268.

367 Behin iragaitzaz bera hemen jaio zela esateko ez bada, Ib., 265.

368 Ib., 268.

369 Ik., Ib., 122 eta hurr., 1943an argitaratu dela jakinarazten da azken oharrean, beste argitasunik gabe noiz idatzia izan denaz.

ko analisisetarako, lehen zatiko ebakin batzuk baino ez ditugu hemen aldatuko, iruzkinak irakurle artatsuari utziz:

“Lo que hace a una nación, o digamos acaso mejor, a un pueblo, lo que le hace uno, es el sentimiento de una unidad de destino, de misión histórica –se ha dicho en diversas maneras diferentes veces, y así lo repitió un día en el Parlamento don Francisco Cambó–. Este sentimiento es un convencimiento, base de la convivencia. Y en cuanto al destino y la misión históricos, éstos dependen de la conciencia que de sí mismo se haga el pueblo. Y la conciencia que de sí mismo se dé y se cobre un pueblo produce su visión del Universo, lo que los alemanes llaman *Weltanschauung*, la contemplación del mundo todo. Que el hombre, individuo o pueblo, ve en su propia conciencia reflejado el Universo (...).

Esa visión del Universo y a la vez adivinación más o menos profética de sus invisibilidades universales es la obra de la historia. Y la historia ¿es obra de la raza?, ¿de la sangre?, ¿del territorio? ¿Es etnografía?, ¿es geografía?, ¿es antropología, entendiéndose por *ántrōpos* un hombre el animal zoológico? La raza, claro está, en el sentido mismo en que emplean esta palabra los ganaderos de reses de todas clases, y entre ellas el averío. Pero la historia no es eso, sino que es en esencia palabra. Hay que repetir aquello de que en el principio –en el principio de la historia– fue el verbo y que por él fue hecho todo lo que se hizo³⁷⁰.

La figura del mundo nos la dio la palabra: la visión salió del son. El habla nos enseña a ver. Nombrar una cosa es definir su idea, marcar su contorno. Porque idea quiere decir en su rigor etimológico visión (...).

Y la historia, la visión, la contemplación del destino y de la misión de un pueblo, de lo que le hace ser un pueblo –pueblo uno–, esa visión, ¿de dónde brota? Del son también de la palabra, del habla, del lenguaje. La lógica deriva de *logos*, que quiere decir verbo, palabra. Y quiere decir razón. Y razón, de *rationem*, deriva de un verbo, *rerī*, que significa hablar. Hoy todavía, en catalán, *enraonar* y *raonar* quiere decir hablar. Y hablar es razonar, es pensar. La lógica no es, en el fondo, más que gramática. Y la filosofía es filología. Y pensar es sentir: se piensa el sentimiento como se siente el pensamiento. Y en cuanto a la religión, brota de una mitología, y mito quiere decir palabra. Todo idioma –idioma quiere decir propiedad– y todo dialecto –dialecto quiere decir lengua conversacional, coloquial– lleva en sí la expresión de siglos de historia, una lógica, una estética, una ética y hasta una religión propias, que son idiomáticas y dialectales, conversacionales, cotidianas³⁷¹.

370 *Ib.*, 267: “No anduvo tan descaminado el que dijo que el cartesianismo es la lengua francesa pensando el universo, y el hegelianismo, la lengua alemana en análoga función. ¿Y la lengua castellana? ¿Es que no ha pensado –y al pensar sentido– el universo?”. *Filosofía –munduaren ikuskera– espainola mistikoak izango dira*. 371 *Ib.*, 122-123.

(...)

Una lengua es el espacio espiritual de las almas de los que la hablan más que con sólo los labios. En ella –una vez más– se siente, se sueña, se piensa, y hasta se quiere. Es intraducible lo que dice un hispano-parlante cuando dice que «no le da la gana» de hacer o de decir algo. Intraducible al término culto: voluntad. Y por algo, por otra parte, dicen pensadores en otras lenguas, pero que conocen la nuestra, que nuestra palabra *nada* suena en lo hondo de la conciencia a otra cosa que en francés *rien* o que en italiano *niente* (...).

En resolución, que para llegar a la unidad del sentimiento –y por tanto del consentimiento– de un común destino histórico de los pueblos de lengua hispánica, el mejor camino es zahondar en la vena de expresiones en que se integran nuestros dialectos todos, y entre ellos el castellano. El son común integral, está la visión común integral, y el consentimiento de la convivencia³⁷².

Unamuno, euskal “arrazaren” bere jauntxo harrotasun guztiarekin, inoiz ez da izan arrazista. Eta gaineratu behar da, XX. mendeko 30eko urteetan, arrazismoaren puri-purienean nola European hala Espainian, bera, arrazaren kontzeptua erabiltzen jarraitu badu ere, beti ahalegindu izan dela horri esanahi linguistiko huts-hutsa ematen (“la raza espiritual encarnada en el lenguaje”)³⁷³, eta arrazismoaren aurka (alemana, edo Arrazaren Eguna eta) zindo paratu dela. Fiesta de la Razaren orde, Fiesta del Habla izan behar omen luke, zeren eta arrazaren kontu horrek³⁷⁴, brakizefalo beltzaren eta dolikozefalo horailen komerietan, “lleva a la barbarie antropológica, mientras que el habla, que es la sangre del espíritu, nos dice de algo espiritual, psicológico, incruento”³⁷⁵. Literatura espainola landu duen autore bikainenetakoa hainbatek, zainetan odol material ez espainol gehiago eizuen halako hori baino –dio; odol espainol edo ez espainolarekin zernahi ulertu behar dugularik ere–, “y hasta se ha dado el caso de indio puro o de negro puro que no ha pensado ni sentido sino en español”³⁷⁶. Benito Juárez indio zapoteka purua, José Rizal txinar-tagaloa, espainolez pentsatu, sentitu, amestu duten “espainol” garbi-garbiak

372 Ib., 126.

373 Ib., 164 (“De nuevo la raza”, 1933).

374 “Raza –palabra por cierto de origen castellano– [oharrarazten du], equivale a «raya», línea o linaje (una «raza de sol», se dice por un rayo; «una raza de tejido», por una hebra)”, Ib., 169. Ik., orobat, 266. Corominas-ek ez du onartzen.

375 Ib., 169. “Las naciones de lengua española –la lengua es la sangre del espíritu– abarcan razas materiales muy distintas, indios americanos, negros, judíos de secular lengua española (...) a los descendientes de hebreos expulsados de España”.

376 Ib., 163.

dira³⁷⁷. Arrazismoaren aurkako jardunotan aurkitzen dira Unamuno-ren testurik ederrenetakoak –geografia, arraza eta enparauak oro bazterturik– hizkuntzaren gorazarrez, herri baten izpiritu eta arima bezala, edo pentsaera baten sustrai bezala. “Un idioma de habla es una raíz, más que depósito, de tradiciones, y lleva en sí una visión y una audición del universo mundo, una concepción de la vida y del destino humano, un arte, una filosofía y hasta una religión. No sólo se imagina, sino que se piensa, se sueña y se siente en un idioma de habla popular (...). La visión, el ideal del Universo, surge para cada pueblo de su idioma verbal. En metáforas, estibadas a peso de siglos, hechas ya expresiones inmediatas y espontáneas, está la raigambre de la filosofía de cada pueblo”³⁷⁸. Hizkuntza da “la que asienta lo que podríamos llamar la religión civil de las naciones”³⁷⁹.

Ez genuen Unamuno-ren hizkuntzaren filosofia –edo teologia– osoa barrendu gura (ez gara haren testu guztiak, ezta gehienak ere, biltzen saiatu); gutxiago haren jokabideak hizkuntz politika espainolean; hizkuntzaren eta herri gogoaren artekotasuna nola tratatzen duen orrizkatu soil baino. Hori ere, pentsamendua bera gabe, sintoma batzuk behatzera mugatu gara. Gaia –aski interesgarria eta emankorra ikerketa sistematiko baterako– ez da sinplea, ez dugu sinplifikatu gura izan, trataera partzial batean ezinbestekoa baino gehiago behintzat.

Berriro fenomeno ohargarri bat seinalatuz utziko dugu bilbotarra. Unamunoren eboluzio bat nabaritzen da hizkuntzaren garrantzia herritasunarentzat, herri gogoarentzat, geroz eta gehiago azpimarratze aldera, azkenean –bere teoriari jaramon egitekotan– munduan espainolez mintzo diren eskualde guztietako jendeak nazio bakar bat bihurtzeraino. Komunitate nazionala (pentsamendu, sentimendu, destino komunitatea) komunitate linguistikoa da, hizkuntzak egiten du nazioa. Baina konklusio honetara ekarri duen prozesuak eta gogoeta berrizteak espainolari bakarrik begiratzen dio. Unamuno-ri, Penintsulako hizkuntza ez espainolek, enbazaru egiten diote. Azken urte horietan katalana ederraldi bat gozatzen ari zen; euskara, ez da posible Unamuno-k albisterik ez izatea zenbat urrats berri ematen ari zen Pizkundean, Azkue-ren hiztegi handiaz adibidez (bere lehiakide izana), edo poesia egunez. Horrentzat guztiarentzat Unamuno-ren prozesurik eta eboluziorik ez da egon, jarrera geroz eta ukakorragora, espainolaren eskusiboagora ez bada³⁸⁰. Berak

377 Ib., 171.

378 Ib., 167.

379 Ib., 168.

380 UGALDE, M. de, *Unamuno y el vascuence*, Buenos Aires 1966, 143, Aita L. Akasolo-ren hitzok aldatzen ditu: “Varios años después de la aparición del diccionario de Azkue, sigue repitiendo la letanía de nom-

behin adierazi duen moduan: “por mi parte declaro que siento cada vez más fanatismo por la lengua en que hablo, escribo, pienso y siento” (“Lengua y Patria”, 1911).

Unamuno utzirik, hizkuntza espainolaren izpiritu goratasunaz testuak erruz bil daitezke, poeta, literato, literaturazale, kritikiko modernoen artean, dotore askoak. S. de Madariaga aipatuarekin amaitzea aski izanen dugu. Arrazaren izpiritu eta hizkuntzaren izpirituaren arteko erlazioan, Unamuno-ren goiti-beheitiak gabe, Madariaga-rentzat, esana dugunez, hizkuntzaren izpiritua (hizkuntzakoa, hobe) arrazarena baino ez da. Latin berarekin, arraza frantsesak frantsesa egin du, italiarrak italierra, arraza espainolaren izpiritu paregabeak hizkuntza paregabea atondu dizu bereztzat (“El genio español”): “entre los lenguajes europeos, y considerémoslo tan sólo como instrumento de expresión del espíritu humano: ¿Dónde hallar, entre las modernas, lengua más hermosa? – En la amplitud de su registro musical, supera al francés, al alemán y al italiano, y, por lo menos, iguala al inglés. Tiene sobre el italiano la superidad de una armazón más fuerte y de una arquitectura más acusada”³⁸¹. Alemana organo ahaltzu bat da, baina ez du frantsesaren delikadezia melodikoa; frantsesa biolin eskisitoa, baina ez du Goethe-ren alemanaren hanpatutasuna, gutxiago Milton-en betetasuna; ingelesak ere, bere on-gaitzak. “El castellano sabe de todos estos estilos. Navega majestuosamente por mares de elocuencia miltoniana (...), y rivaliza de plenitud musical con las cadencias del órgano del alemán (...). Pero éstas son sus virtudes más evidentes. No lo son tanto la airosa gracia que rinde bajo la batuta mágica de Valle Inclán (...), ni la verlainiana sonoridad que adquiere al imperio de la emoción (...). Conocida es su energía. En su voluntarioso octosílabo posee un instrumento sin rival para expresarse con vigor varonil así como para acuñar contundentes fórmulas proverbiales (...). Su férvida y aldeana sencillez en Santa Teresa, su refinada cortesanía en Garcilaso, su convincente sobriedad en Lope, su honda emoción lírica en ciertos sonetos de Quevedo, su complejidad y riqueza de recursos en los modernos. No todas estas cualidades, sin embargo, le son inherentes por igual. De escoger una como la más representativa del carácter y de la lengua de Castilla, quizá quedara (...) una especie de genio para la expresión directa que le permite conseguir grandes efectos emotivos o espirituales por medio de palabras humildes y cotidianas (...). Lenguaje que sabe ser a la vez tan sencillo y tan bello tiene que ser por fuerza creación de un gran espíritu nacional. Y así, aunque no

bres de Larramendi, Astarloa, Erro, Novia de Salcedo, con los estribillos de siempre, para recordar que no hay vasco ninguno que sea capaz de hacer sobre la lengua vasca nada digno de atención. Ninguna mención para Azkue, cuya obra marca una nueva etapa en el campo de la filología vasca”.

381 MADARIAGA, S. de, aip. lib., 17.

hubiera otros hechos que lo confirmasen, bastaría el estudio de la lengua española para dejar sentado que España, aunque no en el primer rango de las potencias políticas y económicas, es y sigue siendo una de las grandes potencias espirituales del mundo”³⁸². Madariaga-k zenbatzen jarraitzen du jeinu espainolaren ekarpen handiak (“un espíritu nacional complejo, rebelde a definición exacta”)³⁸³ Europaren bizitza izpiritualari: Ameriketaren aurkikuntza (“la epopeya más grande que la raza humana ha realizado”)³⁸⁴, etab., etab. Eta: “¿Quién vacilaría en declarar que el libro más grande que ha dado Europa es nuestro *Don Quijote*?”³⁸⁵.

382 Ib., 19-21.

383 Ib., 24.

384 Ib., 22.

385 Ib., 23.

12

DON QUIXOTE

Beste azterketa monografiko baterako lain gai hauxe halaber, inork astia izanez gero: arima espainolaren mitologiako figurak, Don Juan, Segismundo –*La vida es sueño*–, El Cid, Don Quixote oroz gain. Ramón y Cajal-ek “Psicología de don Quijote y el qui jotismo” konferentzia paratu du; Unamuno-ren obrarik harreratsuenetakoa *Vida de don Quijote y Sancho* izan da; Azorín-ek *La ruta del Quijote*-n, eta Maeztu-k *Don Quijote, Don Juan y La Celestina*-n arima espainolaren eszenategiak arakatu dituzte; Ortega-ren lehenbiziko liburua *Meditaciones del Quijote* da; Mada-riaga-k *Guía del lector del Quijote* bat prestatu du. XIX. mendetik XX.erako itzulian intelektualeria espainola –ohituraren poderioan 98ko belaunaldia deitzen jarraitu ohi dena batik bat³⁸⁶– biziki interesatu da *Don Quixote*-z, 1905aren inguruan batez ere, argitalpenaren hirurehungarren urtemuga, zein ere Espainian solemnitare ofizial handienekin ospatu baita. Mantxako heroia, figura ezin unibertsalago bat izatetik sinbolo nazionaltara pasa da; obra literarioa izatetik ideologiko politikotara; eta kreazio satiriko jainutsuan, bat-batean metafisika sakonenak deskubritu dira, arima espainolaren hezur eta azal abenturari eginak, nobelan, Sobejano-k susmatzen zue-nez Cervantes baino Nietzsche gehiago irakurriz agian. *Don Quixote*-aren instru-mentalizazio politiko eta literario hau (elkarlotua probintzietako jai eta monumen-tutzar edo -txoen hedakunde aldiberekoarekin), ez da arima espainolaren arazoare-kin zerikusi gabekoa. Espainia “berriak” identitate zeinu berriak bilatzen ditu, eta Don Quixote, azken finean, Menéndez Pidal-en Erdi Aroko Cid armatu basakume-tsua baino eztikiago erosotzen da aspirazio modernoetan, hauek Ortega-ren libera-

386 Izendapen horren (des)egokitasunaz, ik. BLANCO AGUINAGA, C., *Juventud del 98*, Madril, 1970. CACHO VIU, V., *Repensar el 98*, Madril 1997. FOX, E. I., “El uso y abuso del sentido de la ‘generación del 98’ de España”, in: *Revista de Hispanismo Filosófico* 3 (1998) 5-16. Ik., orobat, SHAW, D., *La generación del 98*, Madril 1982, 16 eta hurr. JULIÁ, S. (arg.), *Debates en torno al 98: Estado, sociedad y política*, Madril 1998.

lak (?) izan ala Unamuno-ren mistikoak. Don Quixote Espainiaren sinbolo nazional-esentzialista bat bihurtu da, bere aspektu biekini: enigma bat, harengan balego beza-la ezkutatua Espainiaren gainbehera eta “desastre”aren sekretua; eta itxaropen iturri bat, harengan gordeko balitz bezala Espainiaren erregenerazio eta etorkizun zorigarbi baten edabea. Sumarioki: Don Quixote Espainiako historiaren intepretaziorako klabe bihurtu da; gero, Espainiako historiaren intepretazioa bera, arima espainolaren historia baten klabean burubidetzen da. Azkenik, Espainiaren arima hori gaztelaua da (hobe, Gaztela da): Espainia Gaztela da, eta Gaztela Don Quixote.

Oroz gain, Espainia arima bat da.

Unamuno-ren *Vida de don Quijote y Sancho*, espainolismoaren gogo-jardunak nolabait, izkribu distiratsu bat da, eta eusko seme batek sekula idatzi duen obrarik erreakzionarioena izatetik oso urruti ez da ibiliko. Espainia da arima bat agonian dagoena (“agon” edo borroka unamunotarrean), kristautasuna bezalaxe; arima espainolaren esentzia, harentzat, kristautasunaren esentzia baino ez delako behar bada. Katolikotasunarena, hobeto. Katolikotasunean Unamuno faszinatzen duena irrazionaltasuna da –eromena– eta ideal baten infinitua. Hori da berak Cervantes-en obran ere irakurtzen duena. Unamuno-k Erdi Aroaren nostalgia sentitzen du; higuin ditu “los hidalgos de la Razón” – modernitate zientifikoa, kritikoa. Saio horretan bere asmoa da “la santa cruzada de ir a rescatar el sepulco de Don Quijote del poder de los bachilleres, curas, barberos, duques y canónigos” – eromenaren erreskatea (ez derrigor idealismoarena: fanatismoa eta intolerantzia ez da gutxiago ospatzen).

Unamuno-ri, Cervantes-ek bere nobelarekin zer asmo zuen edo zer adierazi nahi zuen, bost axola zaio³⁸⁷. *Vida de don Quijote y Sancho*, berari lumara datorkion guztia zeruari eta lurrari predikatzeko aitzakia bat da, erruz aipatzen duen San Inaziok baino hagitx inaziotarkiago. Haren Don Quixote Jesukristo bat da; Santxo, San Pedro; hango mandazainak, etc., Espainietako jendea; hots, Cervantes-en nobela ebanjelio bat da, salbaziozko mezu –filosofia– ona, espainola. “¿Hay una filosofía española? Sí, la de Don Quijote (...). ¿Hay una filosofía española, mi Don Quijote? Sí, la tuya, la filosofía de Dulcinea, la de no morir, la de crear, la de creer la verdad. Y esta filosofía no se aprende en cátedras, ni se expone por lógica inductiva ni deductiva, ni surge de silogismos, ni de laboratorios, sino surge del corazón”³⁸⁸. Egiazko egiaren filosofia horren maisuak San Joan Gurutzekoa eta Santa

387 UNAMUNO, M., *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*, loc. cit., 284. “Zer ardura dit Cervantes-ek han ipini nahi zuenak edo ez zuenak, eta egiaz ipini zuenak? (...) Han gure filosofiaren lorratzen bila aritu nahi izan nuen”. Eta ediren zuena izan zen, filosofia espainola erlijioa dela.

388 UNAMUNO, M. de, *Vida de Don Quijote y Sancho*, Madril 1987, 256-257.

Teresa eta Aita Rivadeneyra dira. Eta hor, eta hor bakarrik, bilatu behar dizu Espainiak bere osasuna, doktrina arrotzen zornez herbalarazi nahi duten intelektual erroi eta beletzarrei entzungor eginez. “Y mira [«mi amado Quijotiz»] si al son de tu pastoril caramillo puede hacerse amorosa filosofía española, aunque graznen, para ahogar sus melódicos sonos, los grandísimos cuervos y grajos que anidan en la boca de la cueva de Montesinos”³⁸⁹. Gorde diezagula fedea, ez edozein Jainkok, ez zure edo nireak, baina “Dios de mi España” jaunak³⁹⁰. (Espainiaren arimak definitzen baitu Unamuno-ren Jainkoa bera).

“¿A qué, pues, contestar la carta del rector de Salamanca? ¿Qué dice en ella, al fin y al cabo? «Si fuera imposible que un pueblo dé a Descartes y a San Juan de la Cruz, yo me quedaría con éste». – En los bailes de los pueblos castizos no suele faltar un mozo que cerca de la media noche se siente impulsado sin remedio a dar un trancazo sobre el candil que ilumina la danza: entonces comienzan los golpes a ciegas y una bárbara baraúnda. El Sr. Unamuno acostumbra a representar este papel en nuestra república intelectual. ¿Qué otra cosa es sino preferir a Descartes el lindo frailecito de corazón incandescente que urde en su celda encajes de retórica extática? Lo único triste del caso es que a D. Miguel, el energúmeno, le consta que sin Descartes nos quedaríamos a oscuras y nada veríamos, y menos que nada el pardo sayal de Juan de Yepes”³⁹¹. Ortega Unamuno-ren antitesia da puntu askotan.

Bakarrik, Ortega-k ere –“en mi mocedad un delirante lector de Barrès”, aitor-tza propioaren arabera– Quixote-ren Meditazioetan Espainiaren esentzia bilatzen dizu; bere kasuan, Cervantes-en filosofian, h. d., “estiloan”. Eta bakarrik, Ortega-rentzat ere arazoa Espainiaren arimaren salbazioa da; bere kasuan, arima hori europartzea: “Europa. En esta palabra comienzan y acaban para mí todos los dolores de España”³⁹². Ortega ez zebilela bakarrik ohartarazten digu S. Juliá-k: “Tomás Giménez Valdivieso escribía por las mismas fechas que era preciso establecer una activa comunicación con las razas del Norte, que daría nuevas energías a la raza indígena”³⁹³. Eta irakurleak, arrazaz mintzatzen ari garelá, ohartua izango du.

389 Ib., 259.

390 Ib., 282. Ik. *Bizitzaren sentimendu tragikoak*, loc. cit., 296: “Zer utzi dio Don Quixotek Kulturari? Eta esango dut: Kixotismoa, eta ez da gutxi! (...) erlijio oso bat batez ere...”

391 ORTEGA Y GASSET, J., OC, I, 129 (“Unamuno y Europa, fábula”, 1909).

392 Ib., 128.

393 JULIÁ, S., aip. lib., 145.

Ortega-ri ez zaio asko gustatu Unamuno-ren Don Quixoteren irakurkera³⁹⁴, eta ehunurtekoaren kariaz ugaldutako kixotismoaren glosekin, oro har horien perspektiba jeneralarekin, ez da gustura gelditu. “Porque en cierto modo es Don Quijote la parodia triste de un cristo más divino y sereno: es él un cristo gótico, macerado, en angustias modernas; un cristo ridículo de nuestro barrio, creado por una imaginación dolorida que perdió su inocencia y su voluntad y anda buscando otras nuevas”³⁹⁵. Maisua gurutzean hil eta izuaren izuz sakabanaturiko Emausko dizipuluak bezala ikusten ditu Ortega-k “98ko desastreak” deskontsolaturiko intelektual espainolak, Quixoteren inguruan euren negarren eukaristia ospatzen: “Cuando se reúnen unos cuantos españoles sensibilizados por la miseria ideal de su pasado, la sordidez de su presente y la acre hostilidad de su porvenir, descendiendo entre ellos Don Quijote y el calor fundente de su fisonomía disparatada compagina aquellos corazones dispersos, los ensarta como un hilo espiritual, los nacionaliza, poniendo tras sus amarguras personales un comunal dolor étnico. «¡Siempre que estéis juntos –murmuraba Jesús–, me hallaréis entre vosotros!»”³⁹⁶. Cervantes-en nobela Kempis-en *De imitatione Christi* baten izpirituan irakurtze horren segimenduan, obra handi hartatik xede moral groteskoak ondoriatzen dira – salbamendu nazionalerako moral bat: “Unos, con encantadora previsión, nos proponen que no seamos Quijotes; y otros, según la moda más reciente, nos invitan a una existencia absurda, llena de ademanes congestionados”³⁹⁷. Ortega da, beraz, Don Quixote sinbolo nazional bat bihurtzearen aurreneko kritikoa; pertsonaia hori sinbolo nazional erlijioso-morala bihurtzearen salatzailea ber denboran: hori efektua baita, batetik Espainiaren arazoa axialgainki planteatzearena, eta bestetik Cervantes-en obra literarioa behar ez den legez irakurtzearena.

Ortega-k ere, ordea, “Espainiaren arazoari” askaera bila meditatzen ditu bere Quixote-ren Meditazioak³⁹⁸. Non datza diferentzia? Zer eta, Ortega-ri, ez Quixote –fikzioa–, baizik oroz gainetik Cervantes –errealitatea– interesatzean. “Las cosas artísticas –como el personaje Don Quijote– son de una sustancia llamada estilo”. Cada objeto estético es individualización de un protoplasma-estilo”. Izateko estilo

394 “(...) Ha tenido el secreto de hacer sobre el libro más simpático (en sentido científico) del universo, el libro más antipático y repelente de la tierra”, ik. ORTEGA Y GASSET, J., *Cartas de un joven español* (arg., S. Ortega), Madril 1991, 592. Ik., halaber, 602.

395 OC, I, 326.

396 Ib.

397 Ib.

398 Ib., 328: “El lector descubrirá, si no me equivoco, hasta en los últimos rincones de estos ensayos, los latidos de la preocupación patriótica”.

bat den Don Quixote fikziozko hori, izateko estilo erreala den Cervantes-en produktu bat da. “Conviene, pues, que, haciendo un esfuerzo, distraigamos la vista de Don Quijote, y, vertiéndola sobre el resto de la obra, ganemos en su vasta superficie una noción más amplia y clara del estilo cervantino, de quien es el hidalgo manchego sólo una condensación particular. Este es para mí el verdadero qui jotismo: el de Cervantes, no el de Don Quijote”³⁹⁹. Urrats bat gehiago eginez: Ortega-ren suposizioan, Cervantes den estiloa, Espainia den estiloaren agerketa distiratsu bat da; ondorioz, Cervantes-en estiloa zertan datzan aurkitzen badugu, Espainia zertan datzan aurkikunde a edukiko dugu (oroit estiloaren filosofia nietzschearra). Eta hori da, ez beste ezer, Espainiaren arazoaren muin-muina, horrela bakarrik aurki liteke Espainiaren salbamendua.

Ortega-ren “estiloa” –alegia, Nietzsche-rena–, nortasunaren sinonimoa da: artean periodo edo eskola bakoitza “estilo” bat bezala ezagutarazten den moduan, gizadian eta historian arraza edo herri bakoitza estilo bat bezala da. Gizadi osoa bat eta berdina da, gizon-emakume guztiak; baina gizadi berdinean arraza edo herri bakoitza, estilo propio bat ordezkatzegatik da bakoitza eta diferentea (“olvidamos que es, en definitiva, cada raza un ensayo de una nueva manera de vivir, de una nueva sensibilidad (...). Un pueblo es un estilo de vida, y como tal, consiste en cierta modulación simple y diferencial que va organizando la materia en torno”)⁴⁰⁰; eta arrazaren estilo berezi horren agerketa baino ez da norbanakoa. Espainian dagoen dena, edo historian gertatu den dena, ez da espainol jatorra (ez da “estilo” espainolekoa). Aitzitik, asko eta asko (gehiena, Ortega-ren susmoan), ez da espainol jatorra, Espainia jatorraren desitxuraketa baizik. Hala “tiene que parecernos perverso un patriotismo sin perspectiva, sin jerarquías, que acepta como español cuanto ha tenido a bien producirse en nuestras tierras, confundiendo las más ineptas degeneraciones con lo que es a España esencial”⁴⁰¹. Eta, hala, premiaz premia-tua da ikertzea “aquella media docena de lugares donde la pobre víscera cordial de nuestra raza da sus puros e intensos latidos. – Una de esas experiencias esenciales es Cervantes, acaso la mayor. He aquí una plenitud española. He aquí una palabra que en toda ocasión podemos blandir como si fuera una lanza. ¡Ah! Si supiéramos con evidencia en qué consiste el estilo de Cervantes, la manera cervantina de acercarse a las cosas [gauzak ikusteko manera espainola!], lo tendríamos todo logrado. Porque en estas cimas espirituales reina inquebrantable solida-

399 Ib., 327.

400 Ib., 362.

401 Ib. (“La crítica como patriotismo”, *Meditaciones del Quijote*, 1914).

ridad y un estilo poético lleva consigo una filosofía y una moral, una ciencia y una política. Si algún día viniera alguien y nos descubriera el perfil del estilo de Cervantes, bastaría con que prolongáramos sus líneas sobre los demás problemas colectivos para que despertáramos a nueva vida. Entonces, si hay entre nosotros coraje y genio, cabría hacer con toda pureza el nuevo ensayo español”⁴⁰². Erantzun argi bat, zein den Cervantes-en (Espainiaren) estilo edo esentzia hori, beraz Espainiaren salbazioa, Ortega-k ezin digu esan (“en tanto que ese alguien llega, contentémonos con vagas indicaciones, más fervorosas que exactas...”). Bere gogoe-tek norantz begiratzen duten, ez gaitu guztiz ilunpean uzten hala ere.

Quixoteren Meditazioak Ortega gaztearen aurreneko liburua da, eta ikerlan franko badago, saio txo multzo horretan Ortega-ren “sistema filosofikoaren” lehen formulazioa induskatu guran: haren ezagutza teoria,razio-bitalismoa, perspektibismoa, fenomenologia, etab. (J. Marías, Ph. W. Silver)⁴⁰³. Ene ustea da, Ortega-ren filosofia fundamentalki historiaren filosofia dela, eta nagusi-nagusiki Espainiaren filosofia. Lot gakizkion, bada, honi dihoakion bi punturi bakarrik: bat, Espainiaren historia moderno guztia, Eze Espainiaren historia dela; bi, orain premiatsua Espainiaren esentzia salbatzea dela (eta hori arraza da).

Tradizio espainol jatorrera itzultzeko erretolikarekin ari ziren erromantiko, krausista, Menéndez Pelayo, Unamuno eta enparau guztien aurka –bakoitzak bere modura konposaturiko tradizioa–, Ortega-k zirt-zart tradizio bedeinkatu hori guztia ezespainola deklaratu du. “¿No es un cruel sarcasmo que luego de tres siglos y medio de descarriado vagar, se nos proponga seguir la tradición nacional? ¡La tradición! La realidad tradicional en España ha consistido precisamente en el aniquilamiento progresivo de la posibilidad España. No, no podemos seguir la tradición. Español significa para mí una altísima promesa que sólo en casos de extrema rareza ha sido cumplida. No, no podemos seguir la tradición; todo lo contrario: tenemos que ir contra la tradición, más allá de la tradición”⁴⁰⁴. Bigarren: “De entre los escombros tradicionales, nos urge salvar la primaria substancia de la raza, el módulo hispánico, aquel simple temblor español ante el caos. Lo que suele llamarse España no es eso, sino justamente el fracaso de eso. En un grande, doloroso incendio habríamos de quemar la inerte apariencia tradicional, la España que ha sido, y luego, entre las cenizas

402 Ib., 363.

403 ORTEGA Y GASSET, J., *Meditaciones del Quijote*, arg. eta sarrera J. Marías, Madril 1957. SILVER, Ph. W., *Fenomenología y Razón Vital. Génesis de ‘Meditaciones del Quijote’ de Ortega y Gasset*, Madril 1978.

404 OC, I, 362.

bien cribadas, hallaremos como una gema iridiscente la España que pudo ser”⁴⁰⁵. Espainia moderno guztiaren uko bete honek (Antiespainiaren diskurtso bat!), pesimista ez beste guztia izan gura du. Da, Alemaniatik ideiaz eta asmoz beterik dato- rren Ortega gaztearen errebelazioa, Espainia zeharo berri batena: “Habiendo negado una España, nos encontramos en el paso honroso de hallar otra. Esta empresa de honor no nos deja vivir. Por eso, si se penetrara hasta las más íntimas y personales meditaciones nuestras, se nos sorprendería haciendo con los más humildes rayicos de nuestra alma experimentos de nueva España”⁴⁰⁶.

Tradizio espainol hori guztia (“gravitan sobre nosotros tres siglos de error y de dolor”: beraz, XVII, XVIII eta XIX osoak)⁴⁰⁷ zergatik den ezespainola, zuzenean ez du argitzen, baina, ezbai gabe, honela moduz uler genezake, hasteko: ez da espainola, ez delako (historikoki) europarra; eta ez da europarra, ez delako modernoa; eta ez da modernoa, zientziarik gabekoa izan delako. Ortega-rentzat berdin da europarra eta modernoa, eta berdin da modernoa eta zientifikoa: “Europa = ciencia; todo lo demás le es común con el resto del planeta”⁴⁰⁸. Kendu zientzia, eta europarra afrikar edo asiarraren parekoa da. Beraz, Espainia, zientziarik ez badu izan, zer kontsideratu behar da? Hori da arazoaren arazoa, eta ez erregenerazionisten beste nolana- hiko arrazoiak, Costa bera barne⁴⁰⁹. Espainia gaixoa sendatzeko, hortaz, ez da kon- kistari eta santuen Espainia Urre Mendetarrera itzuli behar (“las glorias más o menos legendarias de nuestra raza en tiempos pretéritos”)⁴¹⁰, baizik behin betiko handik eskapatu. Espainia hori, bera da arazoa; ez soluzioa. Bilboko “El Sitio” Elkarte- an 1910ean eman konferentzia honela amaitzen da:

“Un gran bilbaíno ha dicho que sería mejor la africanización; pero este gran bilbaíno, D. Miguel de Unamuno, ignora cómo se las arregla, que aunque se nos presenta como africanizador es, quiera o no, por el poder de su espíritu y su densa religiosidad cultural, uno de los directores de nuestros afanes europeos.

La última vez que estuve en vuestra ciudad fue un año tristísimo: 1898. ¡Qué abismo de dolor!, ¿no es cierto? Entonces se empezó a hablar de regeneración.

La palabra *regeneración* no vino sola a la conciencia española: apenas se comienza a hablar de regeneración se empieza a hablar de *europaización* (...).

405 Ib., 362-363.

406 Ib., 328.

407 Ib., 504.

408 Ib., 102 (“Asamblea para el Progreso de las Ciencias”, 1908).

409 Ib., 99.

410 Ib., 505.

Verdaderamente se vio claro desde un principio que España era el problema y Europa la solución”⁴¹¹.

Espainia, europartz bihurtuko da zinez espainola – eta salbatuko da. Gaur Espainia ez da existitzen Espainia bezala: “España no existe como nación. Construimos España”⁴¹². Baina –dio eskolaketa programa krausista ez askietsiz: Ortega-ren erregenerazionismoaren espezifikoa hau da– herri eta auzoetan eskolak zabalduz ere ezingo da Espainia berria eraiki: “¿Ha habido, de 1898 acá, programa alguno que considere la ciencia como la labor central de donde únicamente puede salir esta nueva España, moza idealmente garrida que abrazamos todos en nuestros más puros ensueños? Se ha hablado, y por fortuna se habla cada vez más, de educación (...). Pero esto no basta: el problema educativo persiste en todas las naciones con meras diferencias de intensidad. El problema español es, ciertamente, un problema pedagógico; pero lo genuino, lo característico de nuestro problema pedagógico, es que necesitamos primero educar unos pocos hombres de ciencia”⁴¹³. Modernitatea, hots, nazio modernoak, Europa alegia, zientziaren obra da.

Cervantes ez dela zientifiko bat, esango da. Hala ere Ortega-k uste izan du, hura Espainiaren esentzia europarraren xerkan balia zezakeela, Shakespeare edo Goethe-ren garako idazle espainol kreatzaile jeinutsu bakarra bera ikusten zuelako (eta, oroit, “en estas cimas espirituales –obra jeinuzkoen gailurretan– reina inquebrantable solidaridad y un estilo poético lleva consigo una filosofía y una moral, una ciencia y una política”). Aukeran, arima espainola (“estiloa”) zinez zer den edo modernian zinez izan zitekeenaren irudi bat eta promesa behinik behin, ez Quixote-rengan, baizik Cervantes-engan –artistan eta haren artean– itxaron daiteke, inon izatekotan, Ortega-ren ustean. (Izan ere, artea izan liteke, beste herri europarren aldean, arraza espainolaren nortasun, sormen, bere burua modernian erakusteko “estilo” espezifikoa). Menéndez Pidal-en Cid-en, ez: “El *Myo Cid* es un baluceo heroico, en toscas medidas de paso de andar, donde llega a expresarse plenamente el alma española del siglo XII, un alma elemental, de gigante mozalbete, entre gótica y celtíbera, exenta de reflexión, compuesta de ímpetus sobrios, pícaros o nobles”⁴¹⁴. Cid printzipioz espresio jatorra da arraza espainolaren arimarena (“entre gótica y celtíbera”), baina barbaroa, ertarotarra; arraza espainolaren arimaren agerkunde jator eta modernoak, h. d., izpirituarena,

411 Ib., 521.

412 Ib., 504.

413 Ib., 102-103.

414 OC, II, 44.

Cervantes da⁴¹⁵. Urteak geroago berak aitortuko duen legez, orainokoan Ortega, beste denak bezala, Espainiaren gainbeheraren arrazoiak arduratzen da, eta, beraz, historia modernoak bakarrik; eta hori, arima espainolaren hutsegiteen eta gainbeheraren historia begitantzen zaio dena. “Luego, mayor estudio y reflexión me han enseñado que la decadencia española no fue menor en la Edad Media que en la Moderna y Contemporánea”, idatziko du *España invertebrada*-n⁴¹⁶. Orduan dekadentziarik ez dagoela egon, juzgatuko du, ez dagoelako nondik beheraturik, baizik eta arraza espainola beti makal-makal egon dela: “y si España no ha tenido nunca salud (...), no cabe decir que ha decaído”, “en nuestro pasado la anormalidad ha sido lo normal”⁴¹⁷. “Si se habla de decadencia, como si se habla de enfermedad, tenderemos a buscar las causas de ella en acontecimientos, en desventuras sobrevenidas a quien las padece. Buscaremos el origen del mal fuera del sujeto paciente. Pero si nos convencemos de que éste no fue nunca sano, renunciaremos a hablar de decadencia y a inquirir sus causas; en vez de ello, hablaremos de defectos de constitución, de insuficiencias originarias, nativas, y este nuevo diagnóstico nos llevaría a buscar causas de muy otra índole, a saber: no externas al sujeto, sino íntimas, constitucionales”⁴¹⁸. Baina Quixoteren Meditazioetan dagoeneko Ortega-k erakusten du susmoa, Espainiako historian dena espainola ez delako aieruaren ondoan, espainol denak ere ez direla espainol jatorrak, arraza espainol jatorrekoak. “Dicen que toda la sangre puramente griega que queda hoy en el mundo cabría en un vaso de vino. ¿Cuán difícil no será encontrar una gota de pura sangre helénica?”⁴¹⁹ Pues bien, yo creo que es mucho más difícil encontrar ni hoy ni en otro tiempo verdaderos españoles. De ninguna especie existen acaso ejemplares menos numerosos”⁴²⁰. Cervantes inondik ere arraza espainoleko salbuespen bakantxoak da. Miseria arrazial honen azalpen gehiagorik oraingoz ez zaigu ematen⁴²¹. Baina Ortega historia espai-

415 “Al resbalar la mirada por las viejas páginas [Don Quijote-n], encuentra un tono de modernidad” (OC, I, 365).

416 OC, III [2005], 502. “Costa y su generación comenzaron a entrever que la decadencia tenía dos siglos de fecha. Va para quince años, cuando yo comenzaba a meditar sobre estos asuntos, intenté mostrar que la decadencia se extendía a toda la Edad Moderna de nuestra historia. Luego, mayor estudio...”

417 Ib.

418 Ib., 503.

419 Ik. CHAMBERLAIN, H. S., aip. lib., 273, bereziki oin-oharra.

420 OC, I, 361 (“La crítica como patriotismo”).

421 VARELA, J., aip. lib., 198: “Desde sus primeros escritos, suele explicar las diferencias nacionales por el sustrato biológico. En las *Meditaciones* establece un paralelismo entre rasgos culturales –arte, costumbres, normas jurídicas– y raza –entendida como constitución biológica–, sin atreverse a postular una relación de causalidad”. “Las cautelas sobre la dependencia racial de la cultura desaparecen en la *España invertebrada*. La raza, la constitución biológica, pasa a determinar directamente la trayectoria histórica de una nación” (200).

nol modernoaren arazoa gaixotasun arrazial baten terminoetan pentsatzen ari dela, ez digu dudarik uzten. *Meditaciones del Quijote*-ren urte berekoa da “Vieja y nueva política”, 1914, non hainbat zuzenkiago salatzen baitu ja: “Lo malo es que no es el Estado español quien está enfermo por externos errores de política sólo; que quien está enferma, casi moribunda, es la raza, la sustancia nacional, y que, por tanto, la política no es la solución suficiente del problema nacional porque es éste un problema histórico”⁴²². Arima espainolaren eta haren sendabidearen arazoa geroz eta zailagoa jartzen da.

Arima hori desesperatuki salbatzearen Ortega-ren jokaera Primo de Rivera eta Franco-ren aurrean ez da gure gaia. Unamuno-k azkeneraino herriaren arimaren edo esentzia espainolaren minak geroz eta minduago jarraitu du⁴²³. Beharbada min obsesibo horrek esplikatzeko dituen haren jarreraren batzuk, ez bereziki ereduak intelektual kritikoa batentzat, azkenaldian bereziki⁴²⁴.

422 OC, I, 276.

423 GIMÉNEZ CABALLERO, E., *Genio de España*, Zaragoza 1938 [orig., 1932], 113: “(...) con ese su dolor de España, que es un auténtico dolor de indigestión. De España atragantada. De España sin digerir”.

424 Ik., besteak beste, URRUTIA, M. M., “Un documento excepcional: el manifiesto de Unamuno a finales de octubre – principios de noviembre de 1936”, in: *Revista de Hispanismo Filosófico* 3 (1998) 95-102. “Apenas iniciado el movimiento popular salvador que acaudilla el general Franco me adherí a él diciendo que lo que hay que salvar en España es la civilización occidental cristiana y con ella la independencia nacional (...). En tanto me iban horrorizando los caracteres que tomaba esta tremenda guerra civil sin cuartel debida a una verdadera enfermedad mental colectiva, a una epidemia de locura (...) [y en el aspecto religioso la profunda desesperación típica del alma española que no logra encontrar su propia fe]. Las inauditas salvajadas de las hordas marxistas, rojas, exceden toda descripción y he de ahorrarme retórica barata (...). Si el desdichado gobierno de Madrid no ha podido querer resistir la presión del salvajismo apellidado marxista debemos esperar que el gobierno de Burgos sabrá resistir la presión de los que quieren establecer otro régimen de terror [falangistak] (...). Insisto en que el sagrado deber del movimiento que gloriosamente encabeza Franco es salvar la civilización occidental cristiana y la independencia nacional ya que España no debe estar al dictado ni de Rusia ni de otra potencia extranjera cualquiera puesto que aquí se está librando, en territorio nacional, una guerra internacional. Y es deber también traer una paz de convencimiento y de conversión y lograr la unión moral de todos los españoles para rehacer la patria que se está ensangrentando, desangrando, arruinándose, envenenándose y entonteciéndose. Y para ello impedir que los reaccionarios se vayan en su reacción más allá de la justicia y hasta de la humanidad, como a las veces tratan (...). Triste cosa sería que al bárbaro, anti-civil e inhumano régimen bolchevístico se quisiera sustituir con un bárbaro, anti-civil e inhumano régimen de servidumbre totalitaria. Ni lo uno ni lo otro que en el fondo son lo mismo”.